

JAKIN

ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO PLATAFORMA
INFORMAZIOA ETA DEMOKRAZIA EUSKADIN GAUR

DAVID BARBERO

NOLA DEFENDITU HEDABIDEEN AURREAN

MARIANO FERRER

KOMUNIKABIDEAK ERAKUNDEEN GATIBU

PETXO IDOIAGA

ETIKA PROFESIONALA ETA INFORMAZIO-ANTOLAKETA

LUIS MENDIZABAL

AGINTEA, GIZARTEA, INFORMAZIOA ETA KAZETARIAK

XABIER OLEAGA

KAZETARITZAKO ARAU TRADIZIONALEN DEFENTSAN

RAMON ZALLO

INFORMAZIOA KRISI-GARAIAN

TXEMA RAMIREZ

PRENTSA-BULEGOAK

XABIER CILLERO

APOCALIPSAREN LILURA

JOXEAN MUÑOZ

INAKI IRAZABALBEITIA

HASIER ETXEBERRIA

ELIXABETE GARMENDIA

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

BEGONA DEL TESO

KIKE AMONARRIZ

EGUNEN GURPILEAN

81

MARTXOA-APIRILA 1994



JAKIN

81

MARTXOA-APIRILA 1994



Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
---	----------------	---

G	AI NAGUSIA	11
	ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO PLATAFORMA INFORMAZIOA ETA DEMOKRAZIA EUSKADIN GAUR	15
	DAVID BARBERO NOLA DEFENDITU HEDABIDEEN AURREAN	21
	MARIANO FERRER KOMUNIKABIDEAK ERAKUNDEEN GATIBU	27
	PETXO IDOLIAGA ETIKA PROFESIONALA ETA INFORMAZIO-ANTOLAKETA	35
	LUIS MENDIZABAL AGINTEA. GIZARTEA, INFORMAZIOA ETA KAZETARIAK	45
	XABIER OLEAGA KAZETARITZAKO ARAU TRADIZIONALEN DEFENTSAN	53
	RAMON ZALLO INFORMAZIOA KRISI-GARAIAN	

G	AIAK	65
	TXEMA RAMIREZ PRENTSA-BULEGOAK	

H	AINBAT ABURU	95
	XABIER CILLERO APOCALIPSIAREN LILURA	

E	GUNEN GURPILEAN	111
	JOXEAN MUÑOZ INAKI IRAZABALBEITIA HASIER ETXEBERRIA ELIXABETE GARMENDIA XABIER MENDIGUREN ELIZEGI BEGOÑA DEL TESO KIKE AMONARRIZ	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1994ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.500 pta.	—
Ale arrunta	750 pta.	1.125 pta.
KANPOAN		
Harpidetza	5.000 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	850 pta. (40 FF)	1.300 pta. (60 FF)

SUMMARY

INFORMATION AND DEMOCRACY IN THE BASQUE COUNTRY

VARIOUS AUTHORS

In February this year, the Platform for Freedom of Speech published a text in which its 42 signatories express their concern about the deontological and democratic deterioration of the communications systems in the Basque Country.

We publish the text and gather the point of view of six significant members of the Platform, lecturers of the Faculty of Journalism or belonging to the world of active journalism.

These are some of the subjects discussed: the subordination of the media to institutional information, the manipulation of information by the ever-increasing number of news agencies, the use of information as a political tool, the intrusion into the media of financial sharks, the instability of a journalist's work, the need for professional independence, the editorial committee as an organized social structure or group and the need for a deontological code, etc.

NEWS AGENCIES: THE VISIBLE PART OF AN UNDERGROUND REALITY

TXEMA RAMIREZ

The current proliferation of news agencies has altered the news production process. News seeks the journalist.

The aim of news agencies is to offer news to the journalist, taking good care not to overlook the interests of the institution they serve. There are news agencies in all important social sectors and groups. This study focuses on news agencies close to political power due to their great influence.

The introduction of news agencies into the communication system brings with it various consequences, among which are: that it standardizes the message, it distorts reality, the primacy of official information sources marginalizes other alternatives, it limits the journalist's creative output, it conditions his obligations and puts his critical sense in jeopardy, etc.

FASCINATION WITH THE APOCALYPSE

JAVIER CILLERO

What took place last spring in Texas in the case of Dave Koresh and his religious cult the "Branch Davidians" was by no means an isolated incident. Dave singled out an over-dangerous apocalypse, but there seem to exist a who-

le range of apocalypses in American society disguised as lay groups. One may speak of the apocalypse of the "American Dream", the apocalypse of war, the economic apocalypse, the ecoapocalypse, the nuclear apocalypse.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This section gathers together current trends in subjects related to culture, art, the world of entertainment, science, literature, language and society. The following participate throughout all issues published during the year: Hasier Etxeberria, cultural critic; Jo-

xean Muñoz, art critic; Inaki Irazabalbeitia, Doctor of Chemistry; Elixabete Garmendia, journalist; Kike Amorriz, socio-linguist; Xabier Mendi-guren Elizegi, literary critic; and Be-goña del Teso, film, theatre and television critic.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 81. zenbakia da eta 1994ko bigarrena.

Gaurkotasun handiko gai bizi eta polemiko bat plazaratzen dugu: Informazio-munduaren egoera kezagarria gurean. Duela zenbait hilabete agertu zen idazki batean du abiapuntua dossier honek. Otsailean, *Adierazpen-Askatasunerako Plataforma*-k Euskal Herriko kazetaritzak azken hilabeteotan egin duen ibilbidearen diagnosi gordina kaleratu zuen. Plataforma horretako kide izan eta informazioarekin zerikusi zuzena duen zenbait izen propiori eskatu diogu testu hartako hainbat ideia sakontzeko, zabaltzeko, xehetzeko. Horretan saiatu dira David Barbero, Mariano Ferrer, Petxo Idoiaga, Luis Mendizabal, Xabier Oleaga, Ramon Zallo. Egiaz eta benetan salakuntza dira egiten dituzten konstatazioak, hala nola, agintearen eta zenbait medioaren aliantza, informazio instituzionalarekiko kazetaritzaren menpekotasuna, komunikabide publikoak gobernuak bere ga-

natzea, prentsa-bulegoek eragindako informazio-manipulazioa, informazioa tresna politikotzat zuzenki erabiltzea, marrazo ekonomikoak prentsan sartzea, kazetarien utzikeria, etsipena, konfomismoa. Gure lankideen luma ez da diagnosian agortzen, ordea. Irtenbideak ere proposatzen dituzte, adibidez, independentzia profesionala, Erredakzio-Batzordearen protagonismoa, kode deontologikoaren eztabaida-proposamena, etab.

Gaiak sailean ematen dugun gaia ezin egokiago datorkio aurreko dossierrari. Prentsa-Bulegoek gaur egungo sistema informatiboan, komunikazio-prozesuan eta mezuan bertan duten eragina ikertzea, ebaluatzea eta azaltzea da Txema Ramirez-en ikerlan honen helburua. EHUn aurkeztu berri duen tesi doktoralesan oinarritu du artikulua Txemak.

...hainbat aburu sailean Xabier Cilleroren artikulua interesgarri bat plazaratzen dugu. Renon bizi da Xabier eta Ipar Amerikako gizartea ondo ezagutzen du. Gizarte horretan apokalipsiak hartzen dituen molde desberdin eta ugariak azaltzen ditu, eta bereziki aztertzen Dave Koresh eta bere talde erlijiosoaren inguruan gertaturikoa.

Egunen Gurpilean saila, oraingoan ere, idazlez, gaiz eta orrialdez hornitu-hornitua datorkigu.

G AI NAGUSIA

ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO PLATAFORMA
INFORMAZIOA ETA DEMOKRAZIA EUSKADIN GAUR

DAVID BARBERO
NOLA DEFENDITU HEDABIDEEN AURREAN

MARIANO FERRER
KOMUNIKABIDEAK ERAKUNDEEN GATIBU

PETXO IDOIAGA
ETIKA PROFESIONALA ETA INFORMAZIO-ANTOLAKETA

LUIS MENDIZABAL
AGINTEA, GIZARTEA, INFORMAZIOA ETA KAZETARIAK

XABIER OLEAGA
KAZETARITZAKO ARAU TRADIZIONALEN DEFENTSAN

RAMON ZALLO
INFORMAZIOA KRISI-GARIAIAN

INFORMAZIOA ETA DEMOKRAZIA EUSKADIN GAUR

*ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO
PLATAFORMA*

Duela hilabete batzuk, Plataforma honek, komunikatze-
-eskubidearen alde, adierazpen-askatasunaren alde,
medio publikoen zerbitzu publikoaren alde, komunika-
bide autonomoen garapena eta aniztasunaren alde egin
zuenean, kazetariaren lanarekiko zenbait arriskuri buruzko
kezka ere azaldu zuen. Ondorengo gertaerek, arrazoitu egin
dute gure komunikatze-sistemaren hondatze demokratiko eta
deontologikoagatiko alarma hura.

Lehenik eta behin, Iglesiasen bahiketa zela eta, zenbait ger-
taera ezkor ikusi ahal izan ziren: informazioa erantzun sozia-
lak sortzeko tresna gisa erabili izan da, medioak alderdikerien

berehalako oihartzun bihurtuz; zifren erabilera okerra egon da (manifestazioetan) eta baita albistena ere (Goierriko enpresarien bilera); alarma soziala eragin zuten gertaeren nahitako azpibaliotzea egin izan da (Calvo, Iantzi eta Kalparsoren heriotzak); aldatu egin izan dira albistea, tituluak eta eduki infomatiboekiko lanbidean zeuden arau tradizionalak; muturtzea eta agresibotzea dakarren sinplekeria manikeoa erabili izan da; *Amnistiaren aldeko Gestore k* antolatutako ekintzetan, kazetariak mehatxatu ziren; *HBk* ohar kezkarria plazaratu zuen, tonu mehatxaria erabiliz eta lankide arteko salakeria eskatuz.

Bigarrenik, poliziak *Egin*-en artxiboetan eginiko sarrera arbitrarioa dago. Gobernutik *Egin* ixtea eskatu eta publizitatearen boikotera egin da dei. Honek, komunikazioaren alor pribatuan agintekeriazko eskuhartzea egin dela adierazten du.

Hirugarrenik, filtrazio eta dokumentu pribatuen ageriko erakuste publikoa bere egiten duten kazetaritza instituzionalizatu egin da, legezketasuna eta egiazketasuna ziurtatzeke eta pribatutasuna aintzakotzat hartu gabe. Esklusiba sentsazionalistaren lehiari ekin zaio.

Azkenik, nahiz eta erabaki parlamentarioak hartuta egon, informazioa ez da medio publikoetan aniztu, alderdiei dagokien minutu-banaketatik harantzago.

BALIO PROFESIONALAK AUZITAN

Deontologia autoerregulatzaitetik eta irizpide profesionaletatik eginagatik, informazioa beti izaten da informatzailearen araberakoa. Inoiz ez da neutrala izaten. Bereziki Euskadin, krisian eta bidegurutzean dagoen herri honetan. Elkarren artean onartu gabeko unibertso sinbolikorik gabe eta denok onarturiko jokorako araurik gabe gauden honetan. Honaino, halere, normala irudi lezake, nahiz eta iritzi ezberdinak medioetara iristeko aukeren artean desoreka izugarriak egon.

Kezkarriena, aldi berri batean sartu izana da. Informazioaren arau eta funtzioetan aldaketa kualitatiboak ari dira

gertatzen, agi denez, lanbideak bereganatzen dituenak. Informazioa zentzuz aldatzen ari da, aldi berezietarako informazio gisa hartuz, ekintza politikorako tresna bilakatu, interes politikoaren eta iritzi-taldearen menpeko zuzen bihurtuz, lagun/areariorien arteko muturketa lagunduz, eta itxura batean, nolabaiteko adierazpen-askatasun abstraktu baten kontra jo gabe.

Sinplekeria eta manikeismo horretatik, ordea, beren burua biktimatzat dutenak ere ez dira libratzen. *MLNVa* ren kontrako iritzi-joen beraien estrategia politikoekin zerikusirik ez balute bezala eta erroak gizartearengan berarengan ez balituzte bezala jokatu, bere gidariek medio eta kazetariei leporatzen dieten joera horien errua, aldi berean berorien kontrako mezu gotor bat eraginez. Estatuaren botere polizial eta exekutiboaren esku zuzenak balira bezala aurkeztuz, oinarrian gizartearen beraren joeren katalizatzaile diren «mezulariak» erruduntzen dira.

MUTURRERATZEAREN ARRISKUAK

Alde bateko eta besteko komunikabideek elikatzen duten muturketa sozial honetan, beste ate arriskutsu bat ari gara gurutzaten: informazioa fronte politiko berri bihurtzen da —esplizitoki indarkeriaren aurka eta inplizitoki, arerio ideologikoak diren kontra—, gerra informatiboa egiten da «guztiak balio du» pentsatuz. Denok ikusi behar genuke, gizartearen muturreratze horrek bi ondorio larri dituela. Batetik, desagertu egiten da komunikabideen funtzio demokratizatzailea (elkarrizketa soziala, hausnarketa, ideien eztabaidatze askea bultzatzea). Bestetik, kazetaritzak berezko dituen balio eta arauak, nahiz inplizitoak, nahiz esplizitoak, hondatu egiten dira.

Errealitate honen aurrean, *Adierazpen-Askatasunerako Plataforma* ren kideok, bere aniztasunetik abiatuta, euskal kazetaritzak elkarren artean adostutako zentzu batzuetan joan behar duela uste dugu: adierazpen-askatasunaren alde, garai honetarako arau etikoak bilatu nahi dituen debate baterantz, eta guzti honek irekita dauden komunikazio-liskarrak konpontzeko eduki dezakeen tresna gisako erabilgarritasunerantz.

Hiritarrek ondo informatuak izateko duten eskubideak, agintari publikoengan, erakunde sozial eta politikoengan, eta kazetari eta komunikabideengan, joera-aldaketa eskatzen du. Gure aldetik langintza honekiko atxekimendua aitortzen dugu, ardura bera bereganatzen dutenengana zabalik gaudela adieraziz. Eginkizun hau, kazetari eta komunikabide beraiei dago-kien zeregina da.

NOLA DEFENDITU HEDABIDEEN AURREAN

DAVID BARBERO

Norbaitek galdetzen duenean informazio-munduan gertatutako azken aldaketaz, gogorarazi behar zaio gizarte-aldaketak ez direla une edo data zehatz batean gertatzen, denboran barrena eta bilakaera baten ondorioz baizik.

Hala ere, eta aholkuari jaramonik egin gabe, behin eta berriro data zehatz horren berri galdegingo balu, zera erantzun beharko litzaioke: Golkoko gerran, 1991. urtearen hasieran.

Gatazka hori historiara pasako da telebistaz zuzenean ikusi ahal izan den lehen gerra izan delako. Gerra hartaz, ordea, hedabideek —hala idatziek nola ikusentzunezkoek— hura

sortu zutenek esaten utzi dutena bakar-bakarrik esan dute. Urrundik begiratuz gero nola informatu zen gerra hari buruz, edozein fidagaitzak pentsa lezake armada amerikarrak telebista-plato batean eratutako simulakro bat izan zela, benetakoa gertaera gisa emana.

Ezaugarri hauekin, gerra hari buruzko berriak informazio-garai berri baten sinbolo gisa ipin daitezke, nahiz eta informazio-garai berri honek lehendik ere emanak zituen lehen urratsak eta ondoren indar handiagoz garatu den.

INFORMAZIOAREN ERABILGARRITASUNA

Eta honen manifestaziorik nabarmenena, informazioaren aldetik begiratuz, bere balio espezifikoa galera da. Informazioak ez du balio jadanik bere funtsezko betekizunagatik, hots, jendeari gizartean zer gertatzen den jakinarazteagatik. Orain bere erabilgarritasunean du balioa, beste helburu batzuetarako erabilia izateko eskaintzen duen aukeran.

Hala ere, hedabideen erabilpena gauza berria dela pentsatzea inozokeria litzateke. Datuek erakusten dutenez betidanik gertatu ohi da. Orain, ordea, sakonkiago egiten da, era orokorrago batez eta baita lotsagabekiago ere, ia-ia zientifikoki.

Fenomeno hau bere osotasunean ulertzeko, beharrezkoa da konturatzea nola zenbait kasutan kritikatu egiten den hedabideen erabilpena, besteetan, baita ofizialki ere, txalotu egiten den bitartean. Hedabideen erabilpena eta beren funtsezko helburuaren —gertatzen denaren berri ematearen— desbideratzea kritikatuak izaten dira era desegoki batez hauteskunde-kanpaina batean botuak lortzeko, edo finantza-operazio zikin baten barnean edo interes partikularrak bultzatzeko egiten direnean.

Aldiz, beste hainbat kasutan hedabideen erabilgarritasuna justifikatu ezezik, ofizialki indartu egiten da hari helburu teorikoki onak, altruistak edo duinak atxikiz, nahiz eta ezberdinak izan errealitate soziala isladatzeko duten eginkizun naturalarekiko. Adibide gisa, nahikoa litzateke estatu espainiarreko telebista publikoak eta autonomikoak sortu zituzten

legeak aztertzea hedabideen erabilgarritasuna nola defenditzen den ikusteko. Lege hauetan ez da azpimarratzen hedabide publikoek beren helburu nagusia, informatzekoa alegia, bete behar dutenik; alabaina, azpimarratu egiten da demokraziaren defentsarako, autonomiaren zabalkuntzarako, kultura propioaren bultzapenerako edo hizkuntzaren normalkuntzarako balio eta erabiliak izan behar dutela.

Argi eta garbi ikusten da, beraz, botere publikoentzat behintzat, badela ontzat har daitekeen hedabideen hainbat erabilpen. Dударik gabe oso gai eztabaidagarria da, baina justifikazio hauen subjektibitateaz ohartu beharko genuke. Batzuek justifika balezate hedabideen erabilpena beraien ustetan lehentasuna duen helburu bat lortzeko, edozein botere faktikok, esku-bide subjektibo berberaren izenean, justifika lezake erabilpen hori bera beste helburu dudagarriago batentzat. Historian zehar ez da justifikazioen, edozein delarik ekintza-mota, adibiderik falta.

INFORMAZIOA - MERKATAL PRODUKTUA

Informazio-garai berri honen beste ezaugarria da hedabideetako ekonomi eta administrazio-sailek bereganatu duten indarra. Orain dela urte batzuk, erredakzioa zen jarraibide, ekimen eta orientabideak markatzen zituena, agintari gorena zuzendaria zelarik. Baina azken urteotan, gauzak erabat aldatu dira. Lehengo zuzendarien lidergoa jerente, kontseilari nahiz argitarazle exekutiboek hartu dute.

Aldaketa honek izan ditu jadanik bere ondorioak hedabideen orientabidean. Informazio-irizpideak interes enpresarial eta komertzialen menpe jartzen dira eta jokaera honek eragin nabarmena du azken produktuarengan. Adibide bat —azalezkoa nahi bada, baina esanguratsua—, asteburutan dugu: egunkariak eskaini ordez, bilduma daitezkeen aldizkari deigarriak saldu eta egunkariak oparitu egiten dira, nahiz eta teorikoki kontrakoa ikustarazten den.

Agian esaldi ponposoegia da, baina esan daiteke informazio-medioak hil eta informazio-**enpresak** jaio direla.

MARRAZO EKONOMIKOAK

Aldaketa honen beste zeinu esanguratsua da marrazo ekonomikoen sarrera hedabideetako akziodunen artean. Kapital multinazional handien ordezkariak dira eta jarduera ekonomikoaren hainbat eremutan hedatzen dituzte beren interesak. Ez dira betidanik informazio-negozioetan —prentsa idatzian bereziki— parte hartu duten ohizko enpresariak. Dirutza handia darabilten beste negozio ezberdinetatik datoz eta hedabideetara hurbiltzen badira, ez da haiek handitzeko, baizik eta haietaz baliatu, jaurtikitze-plataforma gisa erabili eta propaganda pertsonala nahiz beren produktuen propaganda komertziala egin ahal izateko. Ez zaie informazioa axola, ezta negozio gisa ere. Nahi duten gauza bakarra da hartaz baliatu beste helburu eta negozioetarako.

LEHIAKORTASUN BASATIA

Planteamendu guzti honen ondorioa informazio-munduan une honetan eta maila guztietan dagoen lehiakortasun basatia da. Merkatuan ez dago denontzako lekurik. Hori da behintzat sumatzen dena, ez dagoela mundu horretan sartuta daudenen eta bertan sartzeko irrikatzen ari direnen handinahientzako lekurik, alegia. Nola edo hala etsaia eliminatu nahi da, merkatu horretan sartu nahi duen oro, nahiz eta merkatu horren hedadura txikia izan edota merkatu-eremu ezberdin baten bila joan.

Lehiakortasun basati hau ez da, gainera, informazio hobearen eskaintzeari eragoz gizaratean gertatzen dena ahalik eta modurik zehatzenean isladatzearen suertatzen. Merkatua eskuratzeko borroka horretan jadanik ez dira errealitatea eta gizarate-gertaerak erreferentzi puntutzat hartzen. Erreferentzi puntu bakarra, imitatze nahiz erasotze, lehiakideek egiten dutena da, errealitateetik gero eta gehiago aldenduz eta hura alboratuz. Era honetan, lehiakortasuna bezeroaren onerako izan ordez, pertsonak informatua egoteko duen eskubideen kalterako da.

LAN-EZEGONKORTASUNA

Prozesu honekin batera, erredakzioen antolakuntzan, hedabide idatzietan zein ikusentzunezkoetan, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira. Kazetari-lanbidea, oraintsu arte nahiko ongi ordainduta zegoena, lan-baldintzei dagokienean bederen, prekarioenatariko bat bihurtu da. Kazetari gehienek behin-behineko kontratuz egin behar izaten dute beren lana, soldata baxuak eskuratuz eta erabateko dependentziaz, inolako garantiarik gabe informazio independenteak eta benetazkoak emateko.

Gainera, prekariotasun honek kazetari gehienengan eragin handia duen bitartean, «izar» bakan batzuk sortu dira, oso ongi ordainduak, protagonismo eta oihartzun sozial izugarria dutenak.

Kazetari-lanbidearen bi estamentuen arteko distantziak gero eta handiagoak dira eta biak doaz informazio-lan eskasago baterantz. Batzuek —gehienek— baldintzarik txarrenetan lan egiten duten bitartean, hots, era duin batean lan egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, segurtasuna eta independentzia gabe, besteak —informazio-izarrak alegia— beren ego-a eta kontu korrontea loditzen doaz, nahiz eta hartarako leialak izan behar duten soldata ordaindu eta mendi-gailurrean mantentzen dituztenekiko.

MANIPULAZIO-BULEGOAK

Interes-sare honek guztiak, egokitze-mekanismoak ere sortu ditu. Hauetako bat prentsa-bulegoen eta imajin agentzien sorruntza izan da. Gaur egun, ez dago bere agentzia propioa edo gutxienez agentziaren baten zerbitzuak kontratatu ez duen erakunde publiko nahiz pribatu, instituzio, talde edo enpresa bakar bat ere ez.

Agentzia hauen funtzioa da beren bezeroentzako onuragarria gerta daitekeen edozein informazio hedabideei filtratzea edota haien kaltetan ager daitezkeen informazio txarren argitarapena ebitatzea. Helburua, beraz, euren bezeroei buruzko informazioa manipulatzeko da azken finean.

Imajin-kabinete hauek lortu duten garrantzia izugarria da. Hedabideetan egunero agertzen diren berrien %75 baino gehiagok agentzia hauetan dute beren sorburua. Hau ikusirik, kargu publiko edo pribatu batera iristen den edozein pertsonak egiten duen lehenbiziko gauza bere konfidantzazko kabinete bat kontratatzea da, haren eskutan utziz hedabideekin zerikusirik duten gauza guztien ardura. Kabinete hauentzat garrantzikoena ez da gauzak ondo egitea, hedabideek euren bezeroez asko —eta ahal dela ongi— hitz egin dezaten lortzea baizik.

AUTODEFENTSARAKO MANUALA

Gauzak horrela, hainbeste interes ezberdin dagoen borroka honetan, herritarrak desbabesturik aurkitzen dira informazio-manipulazioen aurrean.

Gaur egun, ordea, hedabideak gero eta beharrezkoagoak dira pertsona guztiak baldintza-berdintasun batean ibil daitezten euren jardun pertsonal eta profesionalak burutzean.

Horregatik, edozein herritarrek gizartean gertatzen denaz ongi informatua egoteko duen eskubidea defenditu nahi izanez gero, beharrezkoa litzaioke herritarrari autodefentsarako manualaz jabetzea prentsa idatzia irakurtzeko edo ikusentzunezkoak entzun eta ikusteko. Era honetan bakarrik lortuko du bere inguruan gertatzen denaz behar bezala jabetzea manipulatu izan gabe.

Euskaratzailea:
JON BERGARETXE

KOMUNIKABIDEAK ERAKUNDEEN GATIBU

MARIANO FERRER

Batek hobeto dakiena errealitatearen ardatz bihurtzeko arriskua aitortzen badut ere, nik ere uste dut, Patrick Farbiazek bezala, gaur egun komunikabideak direla, hiria, osasuna, hezkuntza edo ekologiaren maila berean, arazo garaikide handietako bat.

Arazoak alderdi asko ditu (munduko informazio-desorekatik tele-zaborreraino, iritzi-moldatze masifikatutik astialdiaren hipotekaraino) eta zenbait zirkunstantzia zehatz gertatzen denean bakarrik erakar dezake arreta alderdi batek edo besteak une jakin batean. Arreta hau zenbaterainokoa den garrantzi erlatiboko gauza da. Garrantzia duena da gertatzen den

guztia, hertsiki pertsonala dena salbu, eta zenbaitetan ezta hori ere, komunikabideez ezagutzera eman ezezik, eratu ere komunikabideotan eratzen dela. Telebista, irratia, prentsa, ez dira jadanik errealtatetik kanpo dauden instituzioak, errealtatearen konplexutasuna kontatu, erretratatu edo interpretatzen dutenak. Komunikabideak askoz haratago doaz gaur egun: ustez deskribatzera edo aztertzeraz mugatzen diren errealtate horren elementu baldintzatzailerak dira. Errealtatearen bilakaera aldaraz dezakete, haren izaera alda dezakete. Berez inoiz gertatuko ez zatekeen zerbait sortarazi ere egin dezakete.

Komunikabideek albistearen prozesuan zuten lekuaren aldaketa (jadanik ez daude prozesuaren amaieran, berria noiz gertatuko zain; lagundu egiten dute sortzen, zenbaitetan berentzat sortu ere egiten da) nabarmen ikusten da haurrentzako marrazki biziduneko telesailekin gertatutakoari erreparatuz: hasieran, telesail baten arrakastak produktu-sorta baten (panpin, elastiko, pegatina, album, etab.en) komertzializazioa ekartzen zuen. Orain, telesaila produkzio-kate komertzialaren elementu bat besterik ez da. Izan ere, Ninja dortoken telesaila jostailu-gamaren salmentak areagotzeko sortu zen, eta ez alde-rantziz.

Joan den udan gertatutakoak, Julio Iglesiasen bahiketa zela eta, lehendik ere nabarmena zen zerbait utzi du agerian, hots, komunikabideak, fikzioaren bidez jostailuak komertzializatzeko errentagarriak izan ezezik, iritzi-egoerak ere komertzializatzeko balio dutela, ustez kontatu soilik egiten duten errealtatea bera moldatzeko prozeduraren bidez.

Julio Iglesiasen bahiketa sozialki traumatikoak gizartea eta, honen bidez, komunikabideak ere polarizatuz, are ageriagoan utzi zuen fenomeno kezkarri sorta bat, kazetaritza-lanbidean enkistatzen ari zirenak, bertako «tradiziozko» arau profesional edo deontologikotzat har litezkeenak arrisku-egoera nabarmenean utziz.

Informazioa beste fronte politiko bat bilakatzea, bide militantez erantzun sozialak antolatzeke erabiliz; filtrazio interesatu eta manipulatuak argitaratzeko orduan edozein eskrupulu

desagertzea; aginte politikoarengandik modu arbitrarioz ihardutea laguntza eta informazioaren banaketari zegokienez; batzuen aldetik zenbait komunikabide ixtearen aldeko jarrera hartzea, edo beste batzuen aldetik zenbait profesionalen aurka mehatxuak luzatu eta hauen salaketa bultzatzea; ideien zirkulazio librea, hausnarketa eta elkarrizketa soziala sustatu beharrean, polarizazioa areagotzea, gizartea era manikeo batez banatzen lagunduz; komunikabide publikoek pluralismo sozialaren adierazpena bere funtsezko zutabe bat dela beregain ez hartzea; horrek guztiak, azkenik, eguneroko lan profesionalen bere marka uzten aritzea; horiek izan ziren gutako batzuk (nahiago nuke gehiago bagina), informatu eta informatua izateko eskubidea gure artean pasatzen ari den egoera kaskarraren aurrean geure kezka azaltzera bultzatu gintuen motiboa. Egina genuen lehenago ere, duela urtebete, «komunikabideetan askatasuna eta pluralismoaren aldeko» gure manifestuaz, eta berriro egin beharko dugu inondik ere.

Baina euskal gizartean egoera oso zehatz bati dagozkion berariazko fenomeno kezagarri sorta honek ez digu galarazi behar informatu eta informatua izateko eskubidearekin erlazio zuzena duten kazetaritzaren beste fenomeno estruktural batzuk, eta hauek iritzi publikoan duten ondorio perbertsoak, hausnartzea.

Horien artean aipatu nahi nuke nire iritiz profesioaren minbizi bilakatzen ari den bat: komunikabideek organismo publiko zein pribatuen aldetik eskaintzen den informazio instituzionalarekiko duten menpekotasuna.

«Le Monde Diplomatique» aldizkariaren zuzendaria den Ignacio Ramonetek berriki esan du ironiaz: «Gehiegi dira informazioa berek bakarrik sortzen dutela pentsatzen jarraitzen duten kazetariak, errealitatean gizarte osoa baita modu frenetikoz gauza bera egiteari ekin diona». Gaur egun ez dago komunikazio-sistemaren bat eskuratu ez duen instituziorik (administratibo, militar, ekonomiko, sindikal, kultural nahiz sozial), horri esker komunikabideak manipulatzeko eta beren jakinmina neutralizatzeko helburu bikoitza «eskularru zuriz» lortu ahal izateko. Zentsuraren bertsio moderno honek, dio Ramonetek,

informazioa gordetzeko forma klasikoa eta informazioz gainezkatzeko forma modernoa ditu zutabe nagusi. Kazetariari informazioa ematen zaio gorde dezan, eta hau mobilizatuta, okupatuta eta funtsezkoa denetik adigabetuta mantentzen duten datu, adierazpen, dossier eta prentsaurreko-pilo baten azpian ehortzita geratzen da.

Hau bere dimentsio egokian kalibratzeko beharrezkoa da eguneroko informatze-iharduera era erabakigarriz baldintzatzen duten bi elementu elkarlotu kontuan hartzea: egitura-akatsak eta errutina profesionalak.

Komunikabideek segurtatu egin behar dute tarte erregular eta maizkotan sortutako berrien fluxu etengabea. Eskuarki, komunikabideek ez dituzte beren kabuz informazio hori sortzeko bitarteko ez teknikorik ez pertsonalik. Errealitate bikoitz horren eraginez, tarte erregularre iharduera aipagarritzko bolumen erabilgarria sortzen duten berri-«iturri» jakin batzuen menpe geratzen dira. Institutuzio pribatuek beren interes partikularrengatik, eta publikoek beti bertan egoteko eta beren erabilgarritasuna zurituzeko premiak bultzatuta, prentsa, komunikazio edo erlazio (ala «sustapen» esan beharko al genuke?) publikoetarako gabineteak sortzen dituzte, hauetatik egunero errealitate prefabrikatuak sortzen direlarik.

Ukatu ezinezkoa da iturri instituzional hauek hornitzen duten informazioaren zati handi bat interes orokorrekoa dela. Eztabaidagarriagoa da, ordea, «eskainitako» berri hauek komunikabideek ematen duten informazioaren portzentaia horren handia izatea eta hauek, beren lanari dagokion urgentzia dela eta —berehalako telediarioa, edizioa itxi beharra— beren ekarpena mugatzea berri horietan deigarriena iruditzen zaiena ateratzera, ohorezko lekua ala hutsuneak betetzeko lekua ematea erabakitzea, eta testua eskura duten espazioan sartzera. Bihar beste zenbait prentsaurrekok, beste zenbait agerpenek, beste zenbait batzordek, beste zenbait osoko bilkurak beteko dute kazetarien agenda, eta hauek pixkanaka berena egiten dute denbora-ekonomi mailan eta informazioaren muntaketa-katearen arrazionalizazio-mailan hain errentagarria den lan-metodologia, zeinak errotiko ajea duen: izan ere, gertaera/albiste

sekuentzia kutsatzen du, eta azken batean irakurle edo teleikusleari katalogo-gaurkotasun bat eskaintzen zaio, konbentzionalismoak gertakizun berebizikoen aurrean bakarrik alde batera utziko dituen, hauen tratamenduak beste zenbait konbentzionalismo abiarazten dituelarik, iturri ofizialen menpe dauden konbentzionalismoak (adibide patetikoak dugu Golkoko Gerlan gertatutakoa).

Dinamika honen arabera Gobernuak, poliziak, elkarteek, alderdi politikoek, ugazabek markatzen dute kazetariaren agenda, eta azkenean «albiste»tzat ematen da erakunde hauek guztiek komunikatzen duten dena, halako moldez non argitaratzeko irizpidea ez baita honen interes edo kalitatea, baizik eta modu eroso eta egokiz eskaintzen zaien ala ez.

Iturri ofizialetatik eskaintzen den informazioa «gertakizun argitaragarri»tzat emateko jarrera hau kontrajarri egiten da beste agente «ez instituzionalizatu» batzuek komunikatzen dutenari maila hori emateko orduan gertatzen den mesfidantzarekin; honen bidez komunikabideak instituzio gatibu bilakatzen dira, batez ere boteretsuei eta agintean daudenei irekia eta hauek manipula dezaketena. Begirale arretatsu bati deigarria iruditu beharko litzaioke komunikabideek Gobernuak egiten duenaz egiten ez duenaz baino askoz gehiago iharduteak. Arrazoia sinplea da. Lehenbizikoa Gobernuak berak zerbitzatu du, zilarrezko erretiluan zerbitzatu ere. Bigarrena landu beharreko gauza da, denbora eta nahigabe ugari eskatzen du, eta ez dago eguna amaitzean artikulua bat izateko segurtasunik.

Jarrera dependente eta akritiko honetarako arrazoen berri eman dugu jadanik, baina ez da sobera egongo berriz aipatzea:

- Iturri baimenduena da, eta beti egoten da eskueran.
- Laguntza hori gabe, Espainiako kazetariak, egungo lan-eskema barruan, aterperik gabe geratuko lirateke, bere egitekoa betetzeko baliabiderik gabe.
- Informazioa eskuratzeko bide merkeena eta arriskurik gutxien duena da.

Honen ondorioz, komunikabideek utzi egiten diote notiziagarria denaren definitzaileak izateari. Agintearekin duten harreman estrukturalak paper funtsezko baina bigarren mailako bat jokatzera bultzatzen ditu: iturri sinesgarriaren izaera lortu duten horien errealitatearen definizioak errepikatzen. Hartara, era kontziente nahiz inkontzientean, ikuspuntu menderatzaileen zerbitzura jartzen dira eta iragazki-lana egiten dute beste batzuk kanpoan uzteko.

Euskaratzailea:

JUAN MARI MENDIZABAL

ETIKA PROFESIONALA ETA INFORMAZIO-ANTOLAKETA

PETXO IDOLAGA

Badirudi kazetaritzaren paperari buruzko hausnarketak (edo kezkek) nolabaiteko espazioa irabazi duela gure gizar-terren esparru jakin batzuetan. Hori baiezkorra da. Adierazpen-askatasunarekiko errespetuak ez du inongo zerikusirik kazetarien lana epaitu eta kritikatzeko ezintasunarekin.

Tamalez, badirudi hausnarketa (kezka) hori ia-ia ez dela gertatzen kazetarien beren artean. Kazetaritza eta bere jokabidea bizitza sozialaren erdi-erdian egon diren egoeretan ere, hala nola Iglesiasen bahiketan, Iantzi eta Kalparsororen heriotzean, *Egin*-en egoitzan egindako razzian, etab... une horietan ere ez baita auto-hausnarketa profesionalezko korronterik sortu (salbuespenak albuespen).

KAZETARITZAREN FUNTZIO SOZIALA

Eztabaida urri horietan kazetaritza hausnartzen denean, errazegi agertzen da tentazio manikeoa, onaren eta gaitzaren arteko bereizketa garbia. Baina kazetaritza ez da ertz oso zehatzak dituen gorputza, eta bere jarduera eta ondorioak ezin dira zehaztasunez kodifikatu. Anbibalentea da, are kontraesanezkoa ere. Aingira bezain lingirdatsua, atzamarren artean irris-tatzen zaigu analisi-eredu itxi baten sareetan atzeman nahi dugunean.

Egia da, esaterako, gizarte aurreratuetan kazetaritzazko informazioa funtsezko elementua dela indarrean dagoen sistema ekonomiko eta politikoari legitimitate soziala emateko. Baina Watergategetik gaur arte, ustelkeriaren ikerketa eta berri emateak kolokan jarri ditu zenbait gobernu eta alderdi, baita modelo ekonomikoak ere, edo horretan lagundu du modu erabakigarrian (Italian). Sistemaren aurkako bonba bat den intsumisioa ezin uler liteke komunikabideetan izaten duen islada izango ez balu. Adibide franko gainera liteke.

Egia da orobat aginte finkatu guztiek «interes nazional»tzat hartzen dituzten gaitetan, informazioa eskuarki sistemaren aldeko propaganda-hedatzaile bihurtzen dela. Kazetaritza ingelesaren jarrera Irlandaren kasuan, edo hemengoarena ezker abertzalearen kasuan, horren lekuko dira. Baina ez da ahaztu behar prentsak izan duen papera britaniar armadak Ulsterrengindako «gerla zikina»ren berri ematen edo, gurean, Amedo-kasuaren edo diru berezien erabilpenaren aurkikuntzan, adibide-pare bat ematearren.

Eta egia da, azkenik, inguratzen gaituen munduaz kazetaritzak ematen dizkigun datu eta analisiak ez direla mundua ulertzeko egokiak, baizik eta hutsune eta deformazio interesatuak sortzen dituztela. Baina egia da halaber komunikabideei esker gizarteak bere inguruneari buruzko ezagupen-gaitasun eta kontzientziario handiagoa duela (nola azaldu, bestela, ekologiazko eskakizunen pisu soziala, nahiz eta kontraesan asko izan?).

Argi dago ez dugula sinetsiko komunikabideek egiten duten autopropaganda, beren buruak sistemaren desbideraketak kontrolatu eta zuzentzeko herriaren bozeramale gisa aurkezten dituztenean. Baina «Estatuaren aparatu ideologikoak» bezala sailkatzen dituen ezkerren dogma klasikoak ere ez du ezertarako balio. Egunkarietako informazioaren sinesgarritasuna Estatuaren aurrean duten autonomiak (autonomia ez erabatekoak, baina errealak, ez itxurazkoak) ematen die, hain justu.

Beste horrenbeste gertatzen da beren eragina aztertzen dugunean. Eragin hau ukazina da, adibidez, «identitate nazionalen» erakuntzan. Baina nola liteke gehienbat *El Correo* eta *El Diario Vasco* irakurri, *SER* entzun eta *TVE* ikusten duen herri batean Euskadikoa bezain sendoa den identitate abertzalea egotea?

Egunkarietako informazioaren funtzioa eta eraginak ulertu nahi badira, konplexuagoa den errealitate hori arakatu eta bertan ereduak aurkitu behar dira.

INFORMAZIOA ALBISTE-PRODUKZIO ANTOLATUA DA

Normalean gu ere halako sinplekeria batean mugitzen gara kazetaritzaren etika profesionalaren bortxaketak kritikatzeko ditugunean¹. Alde batetik, aginte politiko edo ekonomikoak informazioaren orientazio eta tratamenduan egiten duen sarkeria zuzena aipatu ohi dugu. Bestetik, zenbait kazetari zehatzek halako eragin edo txantajeak onartzean agertzen duten jarrera aipatzen dugu. Ahaztu egiten dugu, ordea, erdian dagoena: erredakzio-taldea egitura edo talde sozial antolatu gisa, eta honek etikaren eta informazio-arauen erakuntzan duen eragina. Haatik, kate-maila galdu hau funtsezkoa iruditzen zait arazoa ulertzeko.

Agintearen sarkeria informazioaren orientazioan begi-bistako gauza da, ez dago inolako dudarik. Har dezagun adibide sinple bat, aginte politikoa. Egunotan jakin dugu Barne-Ministeritzan diru berezien erabileraren berri, borroka antiterroris-

taren zerbitzuan teklak, mikrofonoak eta kamarak erosteko. Eusko Jaurlaritzak joan den urtean *ETB*n informazioari eman beharreko tratamenduaz jaulkitako orientabideak (publikoak, kasu honetan) oso nabarmenak izan ziren (Ajuria Eneko Paktura mugatu, «politika»ren ospe soziala bultzatu, etab.). Gobernu sozialistak irriti pribatuak kontrolatzearen egindako manio-brak benetan eskandalugarriak izan dira. Zentsura militarrik argi eta garbiena arau bihurtu zen Golkoko Gerlan. Zertarako jarraitu...

Baina egoera berebizikoak alde batera utziz, halako sarke-riak ezin du produkzio informatiboa egunero eta etengabe kontrolatu. Beraz, botere arren ideien bozeramaleak izatea kontzienteki erabaki duten profesionalen gehiengo bat dagoelako gertatzen al da halako kontrola?

Nahikoa litzateke kazetarien artean inkesta simple bat egitea gehiengo batek halako jarduera modu kontzientez ez duela egiten aurkitzeko. Alderantziz, ikuspuntu profesionalak aipatuz azalduko dute beren zeregina.

Baina gizajoa aginte ekonomiko edo politikoa, komunikabideen paper soziala kazetari bakoitzaren irizpide etiko edo profesionalaren menpe utzi beharko balu! Botereari beharre zkoak zaizkio funtzio hori bermatuko duten egitura antolatua: erredakzio-batzordeak.

Ia 20 urte dira Ipar Amerikako komunikazio-teorietako klasiko batek —Ch. R. Wright-ek— esan zuela «mass communication is organized communication», eta Estatu Batuetan erabilitako hizkeran sarri askotan entzuten dira «manufacturing news» bezalako terminoak, hots, albiste-produkzioa, kazetari-tzaz ari direnean.

Gure artean, ordea, kazetaritza ez da inoiz aurkezten egitura sozial antolatu eta hierarkizatu moduan². Aitzitik, profesionalaren kontzeptuarekin identifikatzen da, balio etiko propialak dituen irudi indibidualizatu batekin —kazetariarekin—. Logikoa da, horretantxe oinarritzen baita informazioaren legitimitatea eta sinesgarritasuna. Baina hori errealitatearen aurrean ipinitako ke-kortina besterik ez da.

Kazetaritzan badago, noski, halako esparru bat, halako erantzukizun-eremu profesional indibidual bat. Baina ez da oso erabakigarria. Sormen profesional indibidualizatuaren menpe baino, erredakzioko talde edo langilegoaren antolaketa enpresarial-profesionalaren menpeago dago informazioa.

«Kazetaria», «profesionala», horrela, singularrean, indibidualizatuta, errealitate ukigarria baino gehiago balio ideologikoa da³. Benetan existitzen dena kazetaritza da, profesioa, egitura sozial antolatua, hierarkizatua, gizartearen leku batean modu estrategikoz kokatuta arau menderatzaileen sendotze-funtzioa bete dezan.

ANTOLAKETA PROFESIONALA ARAU ETIKOEN ORDEZ

Har dezagun adibide bat. Teleberri baten edukia edo egunkari baten orriak tajuz aztertzen badira, aurkitzen da gizartean dauden botere-zentron (instituzio politiko, alderdi, talde ekonomiko, «lobby», etab.en) transmisore huts moduan jarduten dutela portzentaia izugarri altu batean⁴. Hauek izaten dira albiste askoren ohizko «iturriak».

Izan ere, informazio-bideen eta botere-zentron arteko harremanen egonkortasuna hain handi bihurtu da non, batez ere alderdi eta instituzio politikoaren kasuan, hauen estrategiak estrategia informatiboak baitira. Badakite komunikabideek emandako informazioa estrategia horien oihartzun hutsa izango dela. Horregatik, «salmenta»-estrategiatzat jotzen dutena gero eta gutxiago da zer produktu eskaintzen duten, eta gero eta gehiago nolako informazioa emango den halako produktua-
ren ezaugarri buruz (ezaugarri horiek izan edo ez izan).

Alderdi politiko instituzionalizatuen kasua oso adierazgarria da: informazio-bideez areagotu egin dute beren maniobrabilitate estrategikoa, eta neurri berean hauteskunde-aparatu burokratizatu bihurtu dira, eraginkortasun sozialaren indar antolatzaile bezala egiten zuten papera galduz.

Alabaina, demagun telebista edo egunkari horretara joan eta kazetariari esaten diegula: «botere-zentron mezulari hutsak izan behar duzue, eta teleberria edo egunkaria haien adierazpen eta informazio-estrategien errepikapen huts bezala egitaratu behar dugu». Logikoa denez, egoera nahiko gatazkatsua sortuko litzateke.

Beraz, egin beharra dago hala irudituko ez duen moduan. Baina, jakina, ezin dituzu kazetariak mozolotzat jo eta gezurren bat kontatu. Lan egiteko era horrek gauza berezkoa eta ez ideologikoa bezala agertu behar du. Eta lan-antolakuntzaren behar/ondorio moduan azaltzen da. Berriak egunero eta bizkor emateak iturri egonkorak eta informazioa sortzeko gaitzak «behar ditu». Botere-zentzak horretarako gai dira eta, hartara, iturri pribilegiatu eta egonkor bilakatzen dira. Halako iturriak izateko eta izaten segitzeko, beren produkzioa albiste bihurtzen da.

Beste adibide bat. Teleberri batean «antolaketa-eredu eta lan-eredu»zko kate luze bat gertatzen da. Aldez aurretik erabakita daukate bloke-egitura (hasierako berria, politika, ekonomia, gizarteari buruz gutxi eta estranbotiko samarra, kirola, eguraldia, kultur bitxikeriaren bat amaitzeko...). Horretatik abiatuz, editoreak erabakitzen du zein albistek eratuko duten egun horretako teleberria. Albiste bakoitzean errutina hutsa bilakatu dira aurkezlearen papera eta kazetariaren lan-sistema.

Hau guztia lana antolatzeko modua bezala agertzen da profesionalentzat, besterik ez. Ez dirudi etika profesionalari eta balio deontologikoei buruzko hausnarketak horrekin zerikusirik duenik.

Baina oinarrizko eztabaida, etika informatiboari buruzkoa, hau da, «informazio-iturriak aukeratzeari» eta aipatu iturrietatik hartutakoaren «tratamenduari» buruzkoa, antolaketa-eredu, lan-sistema eta errutina produktiboen eremu hauetan egin beharko litzateke. Hortxe mamitzen baita informazioa.

Eta egunkari edo irrati baten antolamendu-egitura aldi bateko kontratuen portzentaia altu batean oinarritzen denean (azken urteotan gertatzen ari den bezala), egitura horren inda-

rra are gehiago biderkatzen da. Izugarria da kontratu berri hauen segurtasunik eza adierazpen-askatasunean edukitzen ari den eragin ezezkorra, eta izugarria halaber kazetariak beraiek gai honi buruz erakusten ari diren ia erabateko isiltasuna, baita beren erakunde profesionalak eta are beren erakunde sindikalak ere. Egunen batean entzungo dira —berandu samar— horren gaineko deitoeak.

Etika informatiboari buruz lanbidetik bertatik gogoeta serioa egiteko zailtasunetako baten jatorrian dago hemen aipatutakoaz kanpo kokatzen dela eta gehienetan egoera oso zehatz eta bereziki gatazkatsuetan bakarrik abiarazten dela, esaterako informazio-egiteren batek eztabaidak eragin dituenen. Horren garrantziari muzin egin gabe ere, hori bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dirudi ohizko praktika informatiboak hausnartzea.

Horregatik, derrigorrezkoa dirudi etikari buruzko eztabaidak informazioaren antolaketa bera eta produkzio-sistema bera izatea erreferentzigune. Egia da, bai, hori egiteak gaur egungo ildoak aldatzea eta ia-ia berezkoak diruditen zenbait gauza zalantzan jartzea ekarriko lukeela.

Baina ez du inork esan zeregin informatiboetan balio etikoak defendatzea egiteko erraza denik, batez ere kazetariarentzat berentzat.

Euskaratzailea:

JUAN MARI MENDIZABAL

1. Etika profesionalaren kontzeptuak berak erreferente konplexu eta kontraesanezkoa planteatzen du. Etika horrek «objektiboa» edo «konprometitua» delako kazetaritzan oinarritu behar al du? Lehenengo motak bere burua gertaeren igorle inpartzial moduan aurkezten du, eta honen ondorioa da informazioa «egia» bezala legitimatzea. Baina gertaera albistean errepikatzen ezintasuna kontuan hartuz, informazioa manipulatu egiten da: albistea zer den eta zer ez den erabakitzen, erabilitako iturrietatik pasatuz, bere tratamenduraino. Gainera, arazo oso zuzenak planteatzen ditu ikuspuntu «etikotik»: zer esan nahi du, adibidez, arrazakeria eta xenofobiaren aurreko «neutraltasuna»? Badirudi bigarren kazetaritza-mota hobeto moldatzen zaiola funtzio etiko honi. Baina Ipar Amerikako soziologia ofizialaren lehen teoria-gomendioen terminoetara itzuliz (Laswell, 1938), halako konpromezu edo erantzukizun soziala sistema mehatxatzen dutenen «jagoletza» eta sistema horren defentsan egindako «gizarte-bategite» bihurtzen da. Ingaratzen gaituen kazetaritza aztertzen badugu, gomendagarriak ez diren ikuspuntu «konprometitua» horren adibide asko aurkituko genituzke.

2. Beste gauza bat da «marka»ren salmenta (*El País*, *ETB*, etab.).

3. Zer esan, hortaz, egungo gure irratian hain modan dagoen «izar»-kazetaritzaz?: ez al da profesional indibidualizatuaren errealitate ukigarriaren erakuskina? Justu kontrakoa da, ordea. Irratsaioen bizkarrezurra «izar» baten inguruan egindako iraupen luzeko zenbait programa-kontainerrek osatzeak irratia horretako profesional («zerbitzari») guztien antolatze eta hierarkizazio zurruntze gordinena ekartzen du. Aldi berean ilusio (ideologia) perfektu eta purua sortzen dute, hots, badaudela nortasun indibidualak dituzten zenbait kazetari, beren iritzi eta printzipio etiko propialak dituztenak gizartearen zerbitzura jartzeko.

4. Beste gauza bat da gizarteak hala sumatzea edo ez. Komunikabide batek sinesgarria izateko, azaldu den bezala, gizarteari informazioa ematen dion tresna autonomo eta independente gisa agertu behar du bere burua.

AGINTEA, GIZARTEA, INFORMAZIOA ETA KAZETARIAK

LUIS MENDIZABAL

Plataformaren azken idazki/manifestuari izenburu bat ematerakoan, eremu honetan oso klasikoa den izenburu bat aurkeztu zuen idazleetako norbaitek: «Demokrazia eta Informazioa». Hainbat bider genuen erabilia garai batez binomio hau, ez bata ez bestea genituenean, ezen ingurune demokratikoan informazioak eduki lezakeen egitekoa berriro definitzeari ekiterakoan, besterik gabe, ia inertiaren eraginez, atera zen ohizko izenburua. Ez, ordea. Berehala ohartu ginen ez zela lehen bezala. Ez geunden diktadurapean, demokrazia eskatzen, informatzeko eskubidea, besteren artean, ekintzan jartzeko; informazioa erantzat berarentzat askatasuna eskatzen

ari ginen, haatik, ingurune demokratiko batetik. Plataforma sortzera bultzatu gintuena, eta azken gogoeta honetako idazkiaren ardatza hain zuzen, hau izan zen: hala deituriko demokraziaren mekanismoetatik, informazio-askatasunaren beraren oinarria erasotzen, manipulatzeko ari zela salatzea, alegia. Honegatik aldatu genuen binomioaren ordena eta beste hau eman «Informazioa eta Demokrazia».

Bizi ditugun bezalako aldaketa-aldiotan, ez naiz ni izango gure lanbidearen oinarri etiko eta deontologikoak argi daukela eta kazetaritzaren ihardunean eta komunikabideen gizarte-eginkizunean sortzen diren arazo guztiei erantzuten diela esango duena. Baina, irudi klasikoa emango badut ere, gorde litezkeela uste dut —eta hala behar— funtsezko zenbait oinarri nagusi; komunikabideen jokabideetatik, azken aldian gure inguruan arrisku larriak dauden oinarriak, alegia. Zehatzago, hauxe esango nuke: bilakaera bat ari dela gertatzen komunikabideen jokoaren, informazioak sistema demokratikoa indartzen duten elementu-multzoari ematen dion ekarpena arriskuan jartzen duten jarreretara.

INFORMAZIOAREN INSTRUMENTALIZAZIOA

Txarrerako bilakaera horren punturik funtsezkoena, nire iritziz, zera da: informazioaz egiten ari den instrumentalizazioa, alegia. Informazioa ez da ari helburutzat hartzen, besterik gabe, beste hainbat helburu lortzeko erabiltzen da baizik. Ez da ezer berria hori, informazioa bere hartan helburutzat hartzeak utopia izanez jarraituko duen bezala, baina egia da, era berean, inoiz baino nabarmenagoa dela gure artean informazioari egozten ari zaion edo zeinaren menpean jartzen ari den instrumentalizazio eta «zerbaitetarako erabiltze» horiek.

Idazkian esaten denez, ikuslea/irakurlea/entzulea baldintzatzeko eta maneiatzeko erabiltzen dira komunikabideak: manipulatzeko, azken batean, eta bahiketa baten aldeko edo aurkako manifestaldira joan behar duela esateko. Baina hori ez da egiten, normala litzatekeen bezala, komunikabide bako-

tzaren iritzia azaltzen duten editorialen bidez: berri-emate soil eta xeheentzat gordeak dauden orrietatik dator, baizik, orientabidea. Era berean, edozein arazo publikori buruz iritzi-jarrera berezi bat sortzeko elementuak —ez beti infomaziozkoak— ezustean bezala sartzeko ere erabili ohi dira komunikabideok. Baita —publikoak edo pribatuak izan, berdin da— komunikabide horien administrazio-kontseiluetako partaideei onura politikoa edo ekonomikoa ekarriko dion edozein erakunderen propaganda egiteko ere erabili ohi dira.

KOMUNIKABIDE PRIBATUAK

Argi dago komunikabide pribatuak beste edozein enpresa bezala direla eta etekin komertzialaren printzipioen arabera ibili ohi direla. Orain bezala, lehen ere. Zergatik, orduan, komunikabide pribatu horiek orain gehiago instrumentalizatzen dute informazioa beren interesetara lehen baino?

Lanbide honetan transiziotik gaur arteko garaia —hamabost edo hogeitau urte— ezagutzeko adina denbora daramanak badaki kazetariok diktadura frankistaren azken-aldera, askatasun gehiago genuela kazetari-enpresaren esparru barnean informazioa objektiboki emateko, gaur baino. Oraindik iraganera lotuta zeuden egunkari bat edo beste izan ezik, 74az edo 75az gero sortzen hasi ziren aldizkari eta egunkari berriak —Franco bizirik zegoen, oraindik— askatasunen aldeko borrokan sartuta zeuden eta, urte haietako muga estuen barnean ere, demokrazia lortzen lagun zezakeen informazio politiko eta sozial oro bultzatu ohi zuten. Argitalpen berriaren enpresa-etorkizuna bera estatu espainiarra demokratizatzearen baldintzapean zegoen eta, honegatik, ez bakarrik ez zuten oztoporik jartzen informazioa askatasunez emateko, horixe bultzatzen zuten baizik, argitalpenen administrazio-kontseiluetatik bertatik. Behin diktadorea hil eta gero, transizioa ez-traumatikoa izan zitekeela ikusten zenean, ohizko egunkariak eta irratiek ere demokraziaren aldeko apustua egin zuten eta lehen frankismoarekin bizitzera ematen ziren erredakzio haietan ere politi-

kaz eta alderdi politikoez idazten hasi zen; lan-taldeak ireki behar izan zizkioten, horretarako, ernetzen ari zen mundu politiko berriarekin ezagupidea eta harremanak zituen belau-naldi berriari.

Ingurune zabal hau gure herriari egokitzen badiogu, estatuko gainontzekoa baino politika-borbor biziagoan, erraz ulertuko da komunikabideen ikuspegia erabat aldatu izana 75-80 urteak bitartean. Euskadin, gainera, transizioak Autonomi Estatutua zekarren, gure burujabetza-instituzioak sortzea eta autonomi konpetentziak transferitzeko bide luze eta geldia. Gutxi-asko hiritarren gehiengo nahiko zabalak onartzen zituen helburuak ziren denak; komunikabideak, honegatik, behartuta zeuden prozesu honetan murgilduta jarraitzea, hau da, talde-interesak komunikabide bakoitzaren aurretik jartzten zituen informazio-mekanismoak eta informazioa ulertzeko era bultzatzea. Gehiengoaren politika- eta informazio-joerak, gainera, bat zetozen komunikabideon merkataritza-helburuekin, hau da, gehiago saltzen zuten transizio demokratiko horretaz gehiago eta hobekiago informatzen bazuten. Ondorioa: irabazten ateratzen zen informazioa, honen adiera hertsia eta garbienean. (Salbuespen bat egin beharra dago: informazio aske eta demokratikoa bultzatzen zuten haizeok ez zeuden berdin zabalduak gai-eremu guztietan: beti izan zen errazagoa informazio egiazkoa eta sakona eskaintzea politikaren eremuan ekonomiarekin baino. Negozioen mundua edota, komunikabideetako Ekonomi sailak, beti gertatu ziren politikakoak baino itxiagoak).

Esan dezadan, 75-85 bitartean jarri genezakeen urte-tarte horretako informazio-erabilpenaren berezitasun denak aipatzeko, falta den bat, gertakariak nola doazen ikusita, orain artekoak bezain garrantzizkoa gertatzen ari dena: profesionalen jarrera ona, alegia. Kazetari asko sartzen zen urte haietan lanbide honetan, lanaren alderdi sozial eta politikoagatik. Gutxi ziren, gainera, oraindik, eta komunikabide berriek behar zituzten erredakzioetako lan-taldeek, une hartako Kazetaritza-fakultate apurretatik ateratzen zirenia guztientzat eskaintzen zuten lana.

ZER DA ALDATU DENA?

Zer da lehen deskribatu dugun egoera hartatik hona aldatu dena? Hain erabatekoa izan da aldaketa, ezen errazago litza-tekeela zer ez den aldatu esatea.

Behin demokrazia eta autonomi erakundeak finkatu zirenean, informazio-mekanismoak eskatzen eta bultzatzen zituen helburu politikotetan bat etortze nagusi hura galdu egin zen eta, ondorioz, ahuldu egin zen informazioak zuen lehen mailako egitekoa. Egunkarien edo aldizkarien enpresa argitaratzaile bakoitzak erabakia zuen, jada, publizitate-opiletik zuen zatia. Komunikabide bakoitzak, handik aurrera, transizioaldia gidatu zuten amankomuneko helburuen lekuan, norberaren interes partikularrak ipini zituen: merkataritza-kuota, enpresa-errentagarritasuna eta bere ideologi ingurunea sendotzeari begira zeudenak, hain zuzen. Erakunde demokratikoak eta autonomia sendotu eta gero, komunikabide bakoitzak nahi zuena egin zezakeen, faxista edo antiabertzaleetat salatua izateko beldurrik gabe. Hori gainditua zegoen.

Gaur egun iritzi publikoak ere aldatu egin du bere balioen mailaketa. Lehen aipatu ditugun arrazoi horiexengatik, bakar-kako helburuek eta interesek, gaur egun, lehen baino pisu handiagoa dute taldekoen aldean. Honek talde-eskuhartzearen ahultzea ekarri du eta gaur ez da beharrezkoa egiten eguneroko gertakariekiko lotura, hau da, informazioarekikoa.

Koka dezagun ingurune honetan, azkenik, kazetarien belaunaldi berria. Milaka kazetari berrik, gehienbat, bere erraztasunagatik eta kazetari-lanaren kanpo-irudiagatik aukeratu dute karrera hau, eta ez aurreko belaunaldiaren arrazoi sozio-politikoagatik. Belaunaldi baten eta bera haziz doan gizarte-ingurunearen arteko harremana oso da estua eta, horregatik, 60-70eko hamarkadetako kazetarien belaunaldiak ez du zerikusirik 80-90ekoarekin. Ez lanbide honekiko pertsona-inplikazioan, ez lanpostuaren egonkortasunean. 70. hamarkadan komunikabideen erredakzioak ugaltu egin baziren, 90.ean murrizten ari dira eta, langabeziaz gain, lanpostuaren behin-behinekotasuna ageri da. Zer nahiago Berlusconi tankerako

komunikazio-enpresari apalagoak, bere lanbidearen gizarte-konpromisurik gabe, kosta ahala kosta lan bila dabilen kazetari-belaunaldi bat nahi bezala erabiltzea baino?

Guzti honen emaitzak begi-bistakoak dira. Baldintzak ipintzen zaizkie informatzaileei, informazio zuzendua, kontrolatua, instrumentalizatua eman dezaten, helburu batzuen arabera.

GOBERNU-KOMUNIKABIDEAK

Gizarte modernoetan agintaritza publikoari dagokio merkatu-legearen joko soilak sortarazten dituen desbideraketak zuzentzea. Gizartea autobabesteko lege hori informazioari ezarritz gero, komunikabide publikoak dauzkagu. Euskadik, bere autonomi agintaritzako erakundez hornituz dagoen neurrian, bere-bereak diren komunikabideak sortu zituen, hau da, irrati eta telebista publikoak. Baina transizioaren azkenaldiko ingurugiro politiko hartan, EITB ez zen jaio informazioaren gizarte-eginkizun soil eta, seguruenik, utopikoa bultzatzeko, komunikabide espainolen aurrez-aurreko kontrainformazio-indarraren euskal tresna nazionalista izateko baino. Horregatik eratu zen RTVE ren antz eta irudira; hau, berriz, aurreko erregimenaren tresna berezi eta propioa zen. Eta izakera honetan dirau oraindik ere; oraindik hilabete bakarrik dela, RTVE ren Zuzendari Nagusi den García Candauk honela zioen elkarrizketa batean (*El País*, 1994ko martxoaren 20an): «Irratitelebista publikoak Estatu-eginkizuna du eta bidezkoa da, honenbestez, Gobernu arekin zerikusia izatea». RTVE ren zuzendaritzan denbora gehien daraman Zuzendari Nagusia, honelakoa esatera iristen da: «Zenbaitetan, zoritxarrez, RTVEk Gobernu arekiko askatasun osoa du eta zoritxarrez diot, zeren eta menpetasunezko harmanenez ez bailirateke izango etxe horretan jasaten ditugun zenbait arazo».

Norantz goaz? Komunikabide espainiarren zuzendaria finantza-arazoez ari da, baina hauek diren bezain larriak izanda ere, ezin dira Gobernuaren esku horrela utzi. Baina haxe da

gertatzen dena. Bai Espainian, bai Euskadin. RTVEen eta EITBn. Bata zein bestea berdin-berdinak dira.

Zer da gertatu dena? Estatu espainiarrean ez dagoela komunikabide publikorik, besterik ez. Ez dira komunikabide publikoak: gobernu-komunikabideak dira eta, honenbestez, txandako gobernuaren zerbitzura daude, hau da, txandako alderdi politikoaren zerbitzura eta beren eginkizuna ez da iritzi publiko informatua berma lezaketen informazio-mekanismoak bultzatzea, zeharo beste ertzekoa baizik. Beren eginkizuna gobernuaren propaganda-tresna izatea da, gobernuaren ozengailu izatea, hiritarrek gobernuak nahi duena jakin dezaten eta nahi ez duenaren berririk, ez.

Komunikabide pribatuetan bizi izan den eboluzio bera bizi izan da transizioan zehar euskal komunikabide publikoetan ere. EITBren lehen urteetan anitzagoa zen informazioa, Gobernuak gutxiago zuzendua eta kontrolatua. Gaur, mapa politikoa finkatu denean, zoritxarreko dibertsioa gertatzen da ETBren eta TVEren arteko konparaketa. Tamainaz dira desberdinak; gaitzerekoa berdina da. Eta eskala berdinean begiratzen ditugunean, Teleberriak Telenorterekin konparatuz, etsitzeko moduko emaitzak jasotzen dira. Gertakari berak, herri berberatik begiratuta, desberdinak gertatzen dira, hala ere. Zergatik? Albistegi bat PSOEren giltzarri politikoetatik zuzendua dagoelako eta bestea EAJren giltzarrietatik. Non da gizartearen eta iritzi publikoaren zerbitzuko egiazko informazioa? Non dira eta zer egiten dute kazetariak?

GURE ERANTZUKIZUNA

Nik ez dut beste irtenbiderik ikusten. Ez dira izango ez enpresa pribatuak eta ez gobernua egoera hau aldatu nahi dutenak. Kazetarioi tokatzen zaigu lehen aurrerapausoak ematea egoera triste honi buelta ematen hasteko. Nola? Hor dago koxka.

Berriro diot aldaketa-garaia bizi dugula, eta ez da erraza gertatzen agintaritzaren eta informazioaren arteko harreman-

-mekanismoek hamar edo hogeit hamar urte barru nola funtzionatuko duten aurriraketa. Europar batasuna finkatuz doan heinean, ekonomi inguruneak gaur egun aldatzen ari diren era berean aldatuko dira gure ingurune politikoak ere; eta ondorioz, informazioaren ingurunea eta agintaritzak informazioaren gain dagien presio-esparruak ere aldatu egingo dira.

Komunikabide publikoak, ikusentzunezkoak gehienbat, kontrako haizea dute. Kostuen etengabeko igoerak mistoagoak izatera bultzatuko ditu telebista publikoak eta produkzio pribatuak gero eta eskuhartze handiagoa izango du publikoekin batera. (Hau hala gertatzen ari da jadanik ETBn). Produkzioa erabat pribatua izango da gero eta hedaketarako sarea bakarrik izango da publikoa; izan ere, gobernuak informazioaren eta komunikabideen mundua kontrolatzeko azken tresna horri helduko baitzaizkio. Eta azkenik, dena pribatua izango da, komunikazioetako enporio erraldoiek aginduko dute, publikitateari esker biziz telebista kanal irekietan eta kuotei esker, kablekoetan eta kodetuetan.

Kazetari-enpresa pribatuak ari dira jadanik prestatzen aldi berri hauetarako. Hitz giltzarria kontzentrazioa da. Urte gutxi barru ez da komunikabide pribaturik geratuko, Europa-mailako enpresa-talderen bati atxekitzeke. Prozesu hau ere ez dago urrun. Euskadin irakurtzen diren egunkarietako hiru laurdenak estatu-mailako enpresek argitaratuak dira eta laster Europa-mailakoak izango dira. Madrilen egunkari guztiak daude Europa-mailako taldeei atxekirik. Geratu ahal izango dira tokian tokiko komunikabide txikiak, baina informazio osagarria bakarrik eskainiko dute.

Ikuspegi honen aurrean —egungoa eta, zenbaitzuek uste dutena baino azkarrago, gainera datorkiguna— eta informazioaren munduan dauden interesak ezagutuz, zer egin dezakegu informazioak gizarte-eginkizun demokratikoa edukitzea nahi dugun kazetariok? Ez dut uste erantzuna edo soluziobidea —lehen une batean behintzat— gizartearen ustezko berrarmaketa moral edo etiko batetik etor litekeenik. Nire ustez lehen pausoa, geuri, kazetariok tokatzen zaigu ematea, gure lanaren gero eta profesionaltasun handiagoaz. Zenbat eta handiagoa izan

gure profesio-gaitasuna, zenbat eta hobekiago ezagutu gure inguruan gertatzen dena eta zenbat eta gehiago sakondu berri ematen dugun horretan, orduan eta gutxiago erabiliko gaituzte. Menderatzen ez ditugun gai eta albiste horietan, entzundakoaz besterik idazten ez dugun horietan eta entzuteko dioskuten horiei entzuten diegun horietan, hor erabiltzen gaituzte, hor iruzur egiten eta bestek erabilarazten eta besteri iruzur egina arazten. Baina arrazoi batengatik edo besteagatik egiaren alderdi biak ezagutzen ditugun gai haietan, ikertu ahal izan ditugun gai haietan, hor ez digute gure zuzendariek zer idatzi behar dugun esaten. Dakiguna adierazten diogu ikus-entzulegoari/irakurlegoari. Gertatzen dena zera da: oso gutxitan jakin ohi dugula ezer, idazten dugun hartaz.

Badakit gure lan-egoerak ez direla profesio-gaitasun hau areagotzeko aproposenak; badakit baita lanaren behin-behinekotasunak lehen mailan jartzen dituela kazetariaren bete-behar sozialen faktore «jasoak» baino zakarragoak eta materialistagoak direnak; baina arrazoi norberekoi eta materialista horiengatik bederen, geu gara lehen interesatuak eta lehen onuradunak, lanbidearen duintasunari eusteko. Oso erraza da aginteak nahi duena idaztea eta zabaltzea. Horretarako ez da kazetaririk behar. Ez dituzte behar izan inoiz. Eginkizun horretarako, ordezkariak erabili ohi ziren lehen; gero teknologia arduratuko da horretaz. Ez gara beharrezkoak, kazetariok, eginkizun horretarako.

Euskaratzailea:
ESTEBAN AGIRRE

KAZETARITZAKO ARAU TRADIZIONALEN DEFENTSAN

XABIER OLEAGA

Artikulu hau irakurlearen eskuetara iristen denerako iraganda egongo dira hilabete batzuk *Aniztasuna eta Adierazpen-Askatasunaren aldeko Plataforma*-k sinaturiko *Informazioa eta Demokrazia Euskadin* titulua zeukan iritzi-idazkia argitaratu zenetik. Iragan otsailaren 10ean hiru egunkaritako iritzi-orrialdeetan ezagutzera emandako testu hark izan zuen hedapena bera, edukinean azaldu nahi zen argudio nagusiaren islada bihurtu zen, hemen argitaratzen den prentsa guztira bidali arren *Euskaldunon Egunkaria*-n, *El*

Mundo del País Vasco-neta *Egin*-en bakarrik irten zela kontuan hartzen badugu.

Aste batzuk lehenago argazkirako eta esplizitoki *HB* bakarrik jipoitzeko ia berrehun kazetari bildu ziren prentsaurreko batean. Hiru egunkariotako «lumalaririk» ez zen han egon. Aipatutako artikulua berri zein mediotan eman zen eta prentsaurreko hartako protagonistak zein aldekoak ziren, ez zen kasualitatearen ondorena.

Argi dago kazetarion artean badagoela sentsibilitate desberdinik gero azalduko dudanari buruz, baina badaude tendentzia nagusiak ere eta horietaz ihardungo naiz.

Azaldu nahi dudan kezka zera da, alegia, profesio honek, bere azken tradizioaren aurka, agintaritzarekin, agintaritzaren joera antidemokratikoekin egin duen aliantzari buruzkoa.

Agintaritzaren eta gizartearen arteko harremanen arauzuzuzenean baliatzen diren gremioen artean aliatu inkondizionalenak bihurtu zaizkio kazetariak agintari, euskal gatazkari dagokionez. Erran nahi baita, abokatuak, juezak, fiskalak, aipatutako arauok —lege, dekretu eta gisa horretako p ronuntziamenduez ari natzaizu— bidegabetzat eta egokitasun demokratiko gabetzat jo dituztenean gogorki ageri izan direla publikoki elkarte progresistetatik. Lege bereziek eta «antiterrorista» deitu izan diren horiek salaketa gogorak jaso izan dituzte elkarteetatik. Abokatuen kolegioek aho batez defendatu dituzte bahiketetan tartekari izategatik epaipean jarri dituzten profesioekideak. Abokatuen eta beren bezeroen arteko sekretua errespetatu ez denean —gartzeletan egindako elkarriketen grabaketa ilegalen bidez, epailearen baimenik gabe— jurista eta abokatu progresisten elkarteak protestaren lehen ilaran egon dira.

Bai oinarri demokratikoak defendatu behar izan direnean, eta baita ofizioa garantiekin garatu ahal izateko behar diren baldintza tradizionalak agintarien aldetik erasotuak izan direnean ere, elkarteon protesta beti egon da publikoan.

Gatozen orain kazetarien eremura, berriro ere eta, azkene-tik hastearren, hau da, informazioak fidagarritasun garantiak bete ahal izateko baldintzez ari garenean, non egon da gure zelo profesionala? Non poliziak filtratu dituen dokumentuak kontrastatzerako orduan? Non dokumentuok oso-osoan ezagutu gabe, poliziak selekzionatutako atalak soil-soilik, bat ere kues-tionamendurik gabe, sumisoki, gure arteko askok atera ditue-nean?

Sekretu profesionala kazetarien tresna ukiezina izan da historikoki. Garantia biribil horrek erasorik iraingarriena jasan zuen Ertzaintzak *Egin*-eko ikerketa-arloan ari ziren kazetarien artxiboak eraman zituenen. Non entzun dugu kazetarien pro- testa korporatiboa?

Ezker Abertzaleko erakunde politiko legalek jasaten duten presio polizialak ez du prezedenterik. Errepideetan jarritako kon-troletan, telefonoen kontroletan, etxe eta egoitzen araketetan ehundaka, milaka dokumentu altxatu dituzte indar polizial desberdinek. Espioitza-operaziorik inpuneenak eta erraldoie-nak izan dira. Horien babes demokratikoa neurtzeko konpa-razioaren alorrera jotzen badugu, eta guzti horren biktima *Izquierda Unida (IU)* balitz, kasu batez, ze eskandalu gertatuko litzatekeen pentsa dezagun. Ez dago asmatu beharrik ere. *IU*-k eta *Partido Popular*-ek ere behin baino sarriago salatu izan baitute Parlamentuan halakorik, gertatu zaienean, komuni-kabideen eta kazetarien atentziorik biziena jasoz.

Ikuspegi demokratiko batetik hain onartezina den proze-dura hori ez da salatzen biktima *Herri Batasuna* denean eta, horrez gainera, batere eskrupulurik gabe aprobeztatzen du kazetarien arteko askok akoso horretan ateratako botina.

Kazetarien profesionaltasun-falta adierazten duten eredu konkretuz bete nezake espazio hau oso-osoan, baina derrigo-rrezkoa iruditzen zaidan presoei buruzko aipamenarekin amai-tuko dut espazio hau.

*ETA*ko presoez egunero espekulatzen da eta eurenak omen diren esku-izkribu eta dokumentuak argitaratzean kazetari-ek eurek onartzen dute presoak manipulatuak direla, dokumen-

tuok manipulatuak direla. Zergatik, orduan, ez da exigitzen presoekin zuzenean egoteko aukera? Presoen klabea hain garrantzitsua bada, eta horrela da zalantzarik gabe, gatazka-
ren egungo egoera benetakoa ezagutzeko, zergatik ez da borrokatzen presoen bertsioa zuzenki iritzi publikoari zerbitzeko, manipulatzaitzat jotzen diren mediatizatzaileak eta euren bertsioak baztertuz?

Norbaitek galdetu ahal dit ea zergatik jartzen dudan euskal gatazka azaldu nahi dudan fenomenoaren erdian, hau da, kazetariok agintearen joera antidemokratikoaren aurka dugun konpromisu-faltan.

«EUSKAL GATAZKA»

Gogoan dut artikulua honen hasieran aipatu dudan iritzi-idazkia lantzen ari ginenon artean norbait nola harritu zen euskal gatazkan hainbeste zentratzen ginelako. Han ginenon artean oso iritzi desberdinetako jendea ginen, aipatutako plataformaren konposizio anitza ikustea besterik ez dago, baina denok gentozen bat hemengo esparru komunikazionala, *prentsaren* kontzeptu zabalari dagokionez, hain zuzen ere gatazka horrek kondizionatzen duela onartzerakoan.

Komunikazio-mailan gure egoera, Hego Euskal Herrikoa, beste paraje batzuetatik bereizten duena, gatazka horren inguruan hartzen diren jarrerak dira hain zuzen ere. Gatazka horretatik kanpo geratzen diren konportamendu profesionaletan beste puntu batzuetako akats berberak egiten ditugu, edo antzerako arazoak ditugu (rutina produktiboen eragina, kontratazio egoera prekarioa, publizitatearekiko peaje informatiboak...) edo ez da salbuespenezko irizpiderik erabiltzen: Informazioak kontrastatu egiten ditugu, iturrietara jotzen da zuzenean, mediatizatzaileak onartu gabe...

Egoera komunikazional hau ulertzeko ardatza «euskal gatazka» izenaz ezagutzen den hori dela konstatatu bezain las-ter manikeismo polarizatzaileaz hitz egiten behar da, hala ere.

Egia da euskal gizartean badaudela «euskal gatazka» horretaz aparte beste batzuk ere, bai nagusi horretatik deribatuak, baita gure inguruko beste edozein gizartetan egon daitezkeenak ere. Baina indarrean dagoen dinamika politikoak alor guttiako gatazkak homologatzen ditu, manikeismo hutsez, bi poloetara. Gatazka linguistikoan *Egunkaria* edo *AEK*ren inguruko arazoak «demokrata» eta «biolentoen» arteko borrokaren klitxera eramaten dira. Intsumisioaren inguruan ere gertatzen da antzekorik. Krisi industrialaren inguruan sortzen diren mobilizazioetan ere demokrata eta biolentoen arteko eskematara jotzeko tendentzia egoten da, egoerak gaiztotuz/okerragotuz doazen neurrian.

Dinamika horretan medioek eta kazetariok segidismo hutsa besterik ez dute egiten edo, gehiago oraindik, polarizazio-joera sakontzen dute. Azal dezadan azken afirmazio hau.

AJURIA-ENEKO HITZARMENA

Geroago ere aipatu beharko dut Ajuria-Eneko Hitzarmena —Iruñekoa eta Madrilgoa tartean— testuinguru honen sorreran duen esangurarengatik, baina ekar dezadan orain harira beste hau azaltzeko. Alegia, Hitzarmen horrek alderdien artekoa izan arren ere, gizarte-mailan ezker abertzalearen aurka sortu duen erakundetzea eta mugimendu guzti horri eman dion babesa azpimarratzen da. Sinbiosi horretan, hala ere, estalpe horren pean aitortzen diren komunikabide eta kazetariak konfrontazio-orduetan kointziditzen dute bakarrik, orain arte behintzat. Hitzarmen horren magalpean sortutako gizarte-erakunde nagusiek Ajuria-Enetik Maroñorako bidea bete duten bitartean, komunikabideak lehenengo geltokitik urratsik eman duten notiziarik ez dago. Eszepzionalidadearen legeak, edo legerik ezak, hobeto esateko, aurrera jarraitzen du.

Eszepzionalidadea nioen eta ideia honi lotuko natzaio, giltzarria baita deskribatzen den egoeran. Legeak zerbait badira, garantia dira. Legerik eza, garantiarik eza. Eszepzionalidadearen legeak lege arrunta indargabetzen dutenak dira, hiritar-

goarñ eskubideen garantiak indargabetzen dituztenak. Espezializazio kontzeptu hau kazetarien eremura dakardanean gure arteko araudi etiko arruntak jasaten duen erasoa besterik ez dut aipatzen.

Duela urte batzuk, lauogeigarren hamarkadan, *ZEN* plan kontrainsurgentearekin (*Zona Especial Norte*) batera etorri ziren lege-aldaketek, adierazpen-askatasunari murrizketa nabarmenak jartzen zizkietenak, izan zuten erantzun gogorrik prentsa eremutik gehiago, hala ere, editoreen aldetik kazetarien aldetik baino. Hauek ez ziren asko mugitu Javier Sánchez Erauskin, orduan *Punto y Hora de Euskal Herria* astekariko zuzendaria, «terrorismoaren apologia» edo Erregeen aurkako irainak egitearen akusaziopean gartzelan sartu zutenean. Baina esan behar da arlo komunikazionalan izan zela kontestazio-maila bat.

Kontrainsurgentziatzako eskuliburu-kutsua zeukaten plan haietatik irentsi nahi izan ez zuten guztia, geroago, Ajuria-Eneko Hitzarmenaren bitartez barneratu zuten komunikabideek eta kazetariak. Alderdikeriek kazetari-munduan eragiten duten lotsa estetiko estaltzeko aukera ematen zuen euritako pluri-partidista horrek. Alderdikeriaz akusatua izan gabe gatazkan parte hartzeko, eskua sartzeko, eta ez gatazka horretaz buru hotzarekin informatzeko, aukera eskaintzen zitzaizkien kazetariak eta medioak. Horregatik da hain garrantzitsua hauentzat fisurarik gabeko Hitzarmena, ekimen komunikazional partidista egirik ere beren erantzukizuna kidegoan urtuta geratzeko.

Ajuria-Eneko Hitzarmena, bestalde, konfrontazio sozialerako sortua zen eta ez integrazioerako. Hitzarmenaren barruan bigarren honen aldeko ahotsak altxatu direnean, egurra besterik ez dute jaso komunikabideen aldetik, Gipuzkoa-Nafarroa autobidearen inguruko gatazka lekuko. Bakoitzak atera bitza bere kontsekuentziak jarrera honetatik, komunikabideak gure gizartearen jokatzeko ari diren rolari buruz.

Irakurlea konturatuko zen agian dagoeneko «komunikabideak» alde batetik eta «kazetariak» bestetik bereizten ditudala. Izan ere bereiztu egin beharra dago. Kazetariontzako begi-bis-

takoa eta jakin den zerbait esaten ari naiz, baina gizartetik eta politikaren mundutik kazetalgintzarako aipamenak egiten direnean ez da egiten hain beharrezkoa den bereizketa hori. Kazetariak dira gauza bat eta medioen jabeak, editoreak, beste bat. Kazetarion mundutik gure independentzia defendatu ordez soldata ematen digun medioaren jarrera editorialetara moldatzea da joera nagusia. Baina hori faktore askok eragindako fenomeno da eta ez agian hari honi dagokiona.

Bereziki jorratu nahi dut kazetarion alorra. Jarrera editorialena *Informazioa eta Demokrazia Euskadin* idazkiaren elaborazioan parte hartu genuenen arteko beste kide batzuen eskuetan utziko dut.

ESZEPZIO-EGOERA

Idazki horretan gatazken egoera eszepzionaletara egokitu-tako araudi deontologikoa egitea proposatzen da, azkenean, errealitatearen irakurketa egin ondoren. Eta nik ondo deritzot, baina argudio honi buelta emanaz. Hau da, araudi horrek ezin du eszepzionalidadean inspiratua egon, egoera arruntean baizik. Hain zuzen egoera demokratiko arrunt batean joko demokratikoa garantizatzeko kazetarien ofizioak baliabide ezinbestekotzat jotzen dituenak birbiztean egon daiteke errezeta. Kontua ez dago, hala ere, jarrera politikoen eremuan konpondu beharrik, ofizioari dagozkion gaiei buruz ari naiz soil-soilik.

Zirujano batengan profesionaltasuna besteen buruak bero-bero daudenean berak bisturia eta ofizioaren ezagutza buru hotzez erabiltzean badago, kazetariarentzat ere berdin izan behar du. Lapiko soziala zenbat eta goriago, lumadunaren profesionaltasuna informazioen kontrastea, iturri interesatuen bertsioetatik ihes egitea, faktore mediatizatzaileen gainetik parteeekin zuzenean hitz egiteko aukera eta antzerakoak zirujanoaren hoztasunarekin erabili, eta tresna horiek erabiltzeko aukerarik ez dagoenean forfoaren berotasunarekin errebindikatzean dago. Hori dela, uste dut, kazetarion erronka nagu-

sia gaur egun. Gure ofizioan tradizionalki sakratutzat genituen arau eta baloreak errekueratzea, egoera eszeptionalen tranpan edo tentaldian erori gabe.

Mario Onaindiak zera esaten du, alegia, demokrazia egunez egun akreditatu behar den zerbait dela, ez duela balio iraganean egindakoak edo etorkizunean egingo dela prometitzen denak. Kepa Aulestiak, bestalde, euskal gizartean eta politikan *ETA* egongo ez balitz bezala ihardutea proposatu zuen. Biak ere abiapuntu interesgarriak ditugu euskal gizartean gaur egungo konfrontazio-egoera gainditu eta integrazio-guneak bilatzen joateko, demokrazia integral eta integratzaile baten bila, eta hori ez da posible kazetariok gure ofizioari dagozkion arau tradizionallekiko leialtasunik gabe.

INFORMAZIOA KRISI-GARAIAN

RAMON ZALLO

1993 urtean goranzko jauzi kualitatibo bat eman zen euskal informazioaren polarizazioan. Horrek ondotxo justifikatzen zuen Adierazpen-Askatasunerako Plataformak informazioaren osasun-egoerari buruz egin zuen diagnostikoa: salbuespen-aldiko informazioa edo krisi-garaikoa bezala izendatu baitzuen.

Jazotako gertakizunek jauzi kualitatibo garrantzitsu bat suposatzen zuten, desiratu gabeko bi egoeratarara hurbiltzen gintuzten gertakizunak hain zuzen: **gizartearen sektarizazioa** batetik, eta horrek berekin dakarren egoeraren irakurketa

(lagunak vs. etsaiak), eta enfrentamendu zibila pizteko arriskua, edozein aitzakia dela medio; eta informazioaren zentzu-aldaketa bestetik, krisi-garaiko informazioa edo salbuespen-aldiko informazioa bilakatu den heinean; alegia, **informazioa ekintza politikorako tresna** bezala zuzenean erabiltzea, interes eta korrante politikoen menpean erabat.

Egoera biak bizi izan dira jadanik Ipar Irlandan edo, zentzu o rokorrago batean, Golkoko Gerra zela medio. Informazioaren instrumentalizazio sistematikoak larriki pitzatuko lituzke jokatibide demokratikoaren hiru printzipio: korrante politiko bakoitzean bere planteamendu propioen koherentziari eta legimitateari buruz egon behar duen barne-hausnarketa, pentsatzeko eta iharduteko beste modu batzuekiko konbibilitatea eta elkarrizketa, eta ideia eta iritzien zirkulazio librea, alegia «beste» onartu eta arrezagutzea, hitz gutxitan esateko.

Izan ere, arazo hauek jendaurrera agertzearekin bi eratako erreakzioak sortu ziren, elkarri kontrajarriak. Alde batetik, *El Correo*, *Deia* eta *Diario Vasco*-k ez zuten egokitzen jo artikulua argitaratzea ere, itxuraz «prentsa demokratikoa» ez zelako modu orekatuan tratatzen eta *Egin*-en mesederako izan zitekeela pentsatzen zutelako; eta, gainera, gauza jakina da denok onartzen dugula prentsa-askatasunaren muga bat hortxe dagoela, prentsaren beraren kritikan. Bestalde, ezker abertzalearen hainbat alderditatik, testuak zekarren erreflexio-ahalegina estimatuta ere, boterearen prentsa eta oposizio edo kontestazioaren prentsa maila berean jartzen genituela uste izan zen, ongia- ren eta gaizkiaren gainetik bageunde bezala.

Esan beharra dago, dena den, ez dagoela topagune-kulturarik batere. Testu amankomun hura —behin eta berriz landua, hainbat jende eta iritzi desberdinen arteko mintzaira eta edukin amankomunen esfortzu bat suposatzen zuena— guztiok identifikatuak sentitzeko moduko lorpena zen, gutariko bakoitza hainbat ñabardura bide-bazterrean albo batera utzi beharrean aurkitu bada ere.

Erreakzioak ikusirik zera ondorioztatu beharko da, informazioaren munduan bakoitza bere trintxera edo luebaki pro-

pioan aurkitzen dela gustoetik, elkarguneak sortzeari uko eginez eta norbera kokatzen deneko alderdiaren ikuspegia sendartzera datozen iritziak edo hausnarketak soilik direla baliagarri. Joera horiek salatzen zen huraxe baieztatzea etorri dira: informazioa, instrumentala edo tresneria izateaz gain, fronte politiko bat gehiago bihurtu da dagoeneko eta horrelaxe erabili ohi dute alderdi guztiek.

Baina agian erreakziorik nabarmenena eta deigarriena isiltasuna izan da. Zer gertatzen da euskal prentsan ia inor bere egiteko propioa eztabaidan jartzera ez ausartzeko? Kazetariak —horietaz eta berorien baloreetat ari ginen batipat— informazioaren legitimitate-krisian finkatu dira. Itxura batean, bete-betean murgilduta gauden krisi sozial nahiz politikoaren eta balore-krisiaren irteeran razionalizazio-bide boteretsua informazioan ikusten zuen bulkada hura ez da existitzen gaur egun.

Eta hala ere, zerbait mugitzen da. Artikulu hura agitaratu zenetik, eta zehazkiago esateko Goikoetxearen kontrako atentatuaren ondotik, zenbait gauza on gertatu dira. Horietako bat bakearen alde lanean diharduten kolektiboek Maroñon lortutako akordioa da eta, beste bat, *Elkarri*-khartu duen protagonismo soziala. Horrela, 94aren lehenengo hiruhilekoa distentsio sozialak ezaugarritutako aldia izan da, hauskorra bai —gatazkak bere hartan irauteko baldintza estruktural guztiak hortxe jarraitzen dutelako—, baina baita gizarte-sektore berriak norabide egokian abiatu daitezkeela susmatzeko aukera eskaintzen duena ere. Gizartean —partiduetan eta komunikabideetan baino areago— elkarrizketaren kultura¹ bat ari da bere bidea urratzen, nahiz eta boteretik, Elkarriren iniziatibak modu interesatuan erabiltzen saiatu aurkaria ahultzeko eta, *HB*ko zuzendaritzatik, kolektibo horrekiko tratuan asmatu ez, agian bere diskurtso eta ihardunbide sozial propioaz atera daitezkeen ondorioak onartzeko prest ez daudelako. Eta elkarrizketaren kultura ez da neutraltasunaren kultura bat, ibaiaren ertz banatatik zubiak eraikitzeko asmoa baizik, gatazka errealean oinarritutako proposamenen gainean eta ez nahi litzatekeen gatazkaren gainean².

Eszenarioa aldatzeko uneak, eta hauek horrelakoxeak dira, ideia berrien garaiak dira, balore berrienak, inizatiba edo ekimen arriskutsu eta ulerkaitzenak, garai bateko segurtasunak eta protagonista zaharrak garaitu eta zokoratuko dituzten agente sozial berriak agertzeko garaiak.

*Elkarri*ren bitartekaritza-asmoak faktore anitzen menpean daude³. Informazioaren alorrean mugimendu horrek komunikazio zalua sortu eta ezartzeko gai izan behar du. Ez da arazo tekniko bat. Barne-horizontaltasunetik —hau da, partizipaziotik eta eztabaidatik— sortuko den uste sendoa baizik, ondoren mintzaira berri batekin gizarterantz zabaltzen dena— barne-komunikazio argia, diskurtsoari buruzko ahalik eta arartekotasun eta interpretazio gutxienekin—. Mintzaira berri bat gainulertu eta abstrakzioen, interpretazio interesatuen edo erdi-egien justu-justu alderantzizkoa baita. Zera lortu nahi da, komunikabideek, nahiz eta bertsio interesatuak igorri, eztabaida edo gatazkarako beren hurbilpena beste modu batera aurkeztu behar izatea, horretara bultzatzen dituen presio sozial bat dagoelako.

Litekeena da ohizko komunikabideak deabrutzea, baina berriek sortarazten laguntzen duten iritzi publikoaren iritzi-egoe-rak badu eraginik komunikabide horiengan. Euskal Herriko egunkari kontserbadoreen (alegia *El Correo* edo *Diario Vasco*-ren) eboluzioak horixe frogatzen du. Hala ta guztiz ere, gizarteak komunikabidearengan duen eragin hori, gertatuz doazen aldaketa sozialen barneratze hori, gehiago da epe ertainera eguneroko gauza baino; eta hedapen-mailak mantendu edo gehitze-ko interesetik gertatzen da batipat. Ez baita ahantzi behar komunikabideen jabetzaren egiturak ez duela inola ere isladatzen herrialde baten egitura soziala ezta elektorala ere. Baina horrexegatik hain zuzen komunikabideak saiatzten dira bere publikoarekin egokitzen informazioaren ikuspegitik —eta modu motelagoan baita editorialaren ikuspegitik ere—, eta publiko horixe, bere aldetik eta epe laburrera, komunikabide jakin batekin lotzen da erosketa-azturen bitartez.

POSIBLE OTE DA INFORMAZIO-DISKURTSO BERRI BAT?

Galdera beste era batera egin beharko liekete beren buruei komunikabideek. Nola lagun dezakete komunikabideek, bere n jarraia eta posizioak baztertu gabe, gatazkan dagoen herrialde bateko diskurtsoak razionalizatzen, fronte bateko informazioaren barruan ezarri orde? Eta galdera hori are eta arrazoizkoagoa gertatzen da nazioa eraikitzea denean gure arazorik nagusia, eta datu guztiek egoera hondatzen ari dela erakusten digutenean alderdi guztietatik —politika bunkerizatuak, porro ekonomikoa ia, estankamendu edo geldialdi soziolinguistikoa, baloreen instrumentalizazioa, nazio-kultura konpartitu bat eraikitzeko zailtasunak—. Gure historiaren aro hori gainditzeko premia gorrian gaude. Eta zentzu pixka batekin, ezinbesteko negoziazio-prozesuaren ondorengo denboraldi hori ez litzateke beldurrez ikusi beharko ezkeraren ikuspuntutik. Denboraldi berri horretan kontrapisu instituzional eta sozial bezala arituko litzatekeen ezker abertzale zabalago batekin ekin ahal izango litzaioke. Baina horrek kultura politiko berri bat eskatzen du ezker horren aldetik, baloreetan, programetan, joeretan, elkarguneetan,...

Komunikabideek herriaren irudi kaotiko bat zabaltzen dute kanpora gaur egun. Ezin izan daiteke bestela. Irudiak ezin baitu inoiz makilajea izan. Atentatu batek, tortura batek, irudi-kanpaina oso bat desegin dezake. Gaur egun urduritasunaren, beldurraren eta sufrimendu kolektiboaren irudia esportatzen dugu. Oraindik ere gainditu gabe dagoen gatazka bati buruzko informaziorik ezin daiteke ez lurperatu ezta ezkutatu ere. Baina sistema informatiboak, erantzukizunagatik eta baita interesagatik ere, «gero» ere prestatu behar du, bere burua «geroa» horretarako prestatzen duen bitartean. Herri bezala behar-beharrezkoa dugu informazio-sare ahaltsu bat, anitza, zauriak itxiko dituen eta eraikitzeko bidean doan herri bat bezala proiektatuko gaituena. Katalanek egiten jakin izan dute, zentralismo ideologikoak edota inbidiak noiz edo noiz bere ordaina eskatzen duen arren.

EZTABAIDA BAT EZKER ABERTZALEAN

Ezker abertzaleak betidanik eduki du komunikabideei buruzko halako Konspirazio-idea bat, hiru puntuotan oinarrituta:

1. Estatuaren beso luzeak modu erabakiorrean parte hartuko luke komunikabideetan ezker abertzalearen kontra.
2. Ezker abertzalearen hauteskunde-mugak neurri handi batean komunikabideen etsaitasunari zor zaizkio.
3. Kazetari askok komunikabideetako zuzendaritzakoei jokoa egiten diete.

Lehenengo baieztapena egia baldin bada ere telebista publikoentzat, prentsa pribatuaren kasuan asko matizatu beharko litzateke. Oso bestelako zerbait da prentsa horren ideologian «Estatuaren arrazoia» barneratua egotea, gobernuei edota baita sistema judizialari egiten zaizkien kritikak barneratuak dauden bezalaxe, eragin zertxobait «desestabilizatzaileekin» baldin bada ere. Egia esan, Ajuria Eneako Mahaiaren aho-batasuna komunikabideen filosofian barneratua dago, eta horregatik komunikabideek ezin utz ditzakete beren kontraesanak aipatu gabe.

Bigarren baieztapenak, berriz, gainbaloratu egiten du komunikabideen eragina. Ondotxo dakigu hauteskunde-mapa ez datorrela bat komunikabide bakoitzaren hedapen edo zabal-kunde-indizearekin. Bestalde, ezin zaie egotzi komunikabideei gizarte zibilean bertan dagoen iritzi-errealitaterik, eta horrek beren diskurtsoa eta beren ihardun politikoa aldatu eta eguneratzera bultzatu behar lituzke korronte politikoak. Ez legoke zertan gogorarazirik ezen gizartearen baitan ihardun edo ekin-tza politikoaren formei eta mugei buruzko aldaketa esanguratsua dagoela, bai zenbait biolentzi moduri buruzkoa (eta arazo hauxe nabarmentzen dute komunikabideek), eta baita erakundeek ez hautesleriarekin ezta gizartearekin ere batere kontatu gabe erabakitzeko duten autonomiari buruzkoa ere, alegia defizit demokratikoa deitu izan zaiona (eta arazo hau ez dute komunikabideek inola ere nabarmentzen).

Hirugarren baieztapenak, bere aldetik, ez du kontuan hartzen gaur egungo komunikabideetako indar-korrelazioa. Sindikalizazio esanguratsurik gabeko baldintzetan, kazetarien informazio-eskubideak (kontzientzi klausula positiboa edo onarpen unibertsaleko kode deontologikoa adibidez) garanti-zatuko dituen mekanismorik gabe, batere mesedegarriak ez diren kontratuekin, inork ezin eska diezaieke heroismo indibidualik kazetariari, ezta, isilbidez bada ere, beren lanbide eta enplegurik utz dezatela iradoki. Beste gauza bat da, edozein lanbidetan bezalaxe, beren kasa deskalifikatu eta izen ona galtzen duten oportunistak egotea.

Edonola izanik ere, eta komunikabide konbentzionalen ihardunbidea kritikatzeko modukoa izan daitekeela albo batera utzita, bakoitzak bere ekintza politikoaren kostuak asumitu beharra dauka. *ETA*ren kasuan —beronen estrategia historikoa hein batean bederen beren ekintzen zabalkunde informatiboan oinarritua egonik— onartu beharra dauka ezen urteak baldin badira ekintza-errepresioa-ekintza espiralak ez duela funtzionatzen, iritzi publikoa erabat polarizatua dagoeneko egoera batean, ekintza-komunikazioa-kezka soziala-negaziazioa espiralak ere ez duela jadanik funtzionatzen. Neurri handi batean bere eraginkortasun politikoaren ekintza jakin batzuen eragin sozialean oinarritzen duen estrategia batek, —eta ekintza horiek informazio periodistikoak asko aipatu eta zabaltzen ditu, kezka soziala sortarazten duten ekintza nabarmenak baitira, atentatuak bezala— kontuan hartu behar du mekanismo maltzurra dela hori, lehenago edo beranduago, iturrietatik edota komunikabideetatik bertatik ihardespeneko informazio-estrategiak eragingo dituen. Eta dinamika horretan, baloririk kaltetuena informazio objektiboa da hain zuzen ere.

EZTABAIDARAKO KODE DEONTOLOGIKO BAT

Ondorengo arauak ez dute sakonetik konponduko informazioaren desoreka, baina informazioa argitzen lagundu dezakete, ordea, baldin eta komunikabide guztiek eztabaidatu eta zehaztuko balituzte:

- eztabaidatu ondoren, erredakzio guztietan kazetariaren arau informatiboak eta eskubideak lantzea eta prestatzea.
- informazioa eta publizitatea banantzea.
- iturriekiko profesionalki independentea izatea eta informazioa iturri desberdinetan erkatu eta egiaztatzea.
- iritziak eta iturri desberdinetako bertsioak modu orekatuan erregistratzea, eta ez bakarrik iturri ofizial, ofizioso edo erdi-instituzionaletakoak.
- Komunikabide guztiek informazio-iturri instituzionalizatuera irispide berdina eta publizitatearekiko arrazoizko irispidea edukitzeko eskubidea eskatzea.
- indar politiko jakin batzuen erreferentzia edo aipamenean kalifikatibo deskalifikatzaile sistematikoak baztertzea.
- informazioa eskura dauden datuetara egokitzea.
- berriak sistematikoki puzteari uko egitea.
- alderdi laban edo lizunetan jolasean aritzeari uko egitea.
- ikerketa-kazetaritzan sakontzea, «amarillismo» axolagabeen erori gabe horratio.

Euskaratzailea:
JABIER AGIRRE

1. Kolektibo honek Bilbon deitu zuen manifestazioaren multzorik nagusiena bake bidean abiatutako «gerrako veteranoek» osatzen zuten. Manifestariak ikusi besterik ez zegoen, hura belaunaldi baten manifestazioa zela konturatzeko, frankismoaren azken garaian eta trantsizioan borrokan aritutako belaunaldia hain zuzen, kartzelak eta erbesteria, torturak, klandestinitatea, erabateko dedikazioa, beldurrak, arriskua,... etab. ezagutu eta dastatu zituena, belaunaldi ondotoxoa zaildua, bihotzean min duena, gaur egun nahiko eszeptikoa, eta bai demokraziak eta baita borroka armatuak ere zer eman dezakeenari buruz bere ondorioak atera dituen. Manifestazio hura gizarte errearen eta saltzen zaizkigun diskurtso eta egia kartoiztatuen arteko desadostasunaren sintoma bat besterik ez zen izan, harro-harro guztiak posizioen borroka edo gerra honetan, guztiak baitira erasotzaile eta biktima aldi berean.

2. Hortxe dago *Elkarrri* eta *Gesto por la Paz*-en arteko desberdintasuna. *Gesto* magma baten antzekoa izan da, gizartearen sustrai sendorik gabekoa, gehiengo sozial nahasi eta nahiko kontserbadore bati zuzendu zaio, boterearen aurkako kontestazio gogorra biltzen duen sektorearen erabateko gaitzespena lortzen zuen bitartean, sektore hori funtsezkoa izanik auziaren irtenbidea bilatu nahi bada. *Gesto*-en diskurtsoa partidu handiek bereganatu dezakete inolako zailtasunik gabe. Bere nortasun-ezaugarriak *ETA*-ren aurkako mugimendu hutsean bukatu zitezkeen, jendea elkarriketarako batere prestatu gabe. Gaur egun, hala ere, inork ezin uka dezake gizartearen zati maioritario baten aurrean lortu duen legitimizazioa. «Nahikoa da» oihuaren sentimendua katalizatzen du, «armak utz ditzatela». Hala ere, zorionez bere diskurtsoa zabaltzeari ekin diote (torturei ez, presoak sakabanatzeari ez) eta Ajuria Eneako Itunarekiko egiazko autonomia bat bilatzeari, eta guzti horrek *Elkarrri*-ekin zubiak eraikitzen lagundu dezake. Bi mugimenduok ez ahal dira tematuko erakundeei, sendotzen direnean, ia ustekabean darien logika horretan: alegia, erakundea bera helburu bilakatzen da bere hartan, bere buruzagi edo gidarien espazioa eta lekua gorde nahi izaten da azken helburuen kaltetan bada ere. Eta berezko tentazio horixe da menperatu eta gainditu behar dena.

3. Lehenik eta behin bere diskurtso propioa sakontzearen menpean. Ez da aski sustraiak ezker abertzale eta erradikalean edukitzea, bitartekari bezala eskaintzea bere burua eta iharduteko autonomia erakustea, horietan baldin badira ere mugimendua abiaraztea eta legitimatzea lortu duten bertute nagusiak. Azertu handiak izan dira horiek, lehenengo jende-bilketa posible egin dutenak. Gaur egun, hain da konplexua egoera, hain daude finkatuak lehiakideen diskurtsoak, ezen borondate onarekin eta arazoari irteera bat eman nahiarekin ez baita nahikoa. Diskurtso politiko behar adinakoa eta koherentea edukitzea ezinbestekoa da, aldaketarekiko zailtasunak dauzkan ingurune konplexu batean ekintza gidatzeko gai dena eta beste joera politiko batzuk onartzeko modukoa izango dena. Bigarrenik, *Elkarrri*-k ezin du inola ere bera legitimatzen duten ingurune abertzalearekiko sustrairik hautsi —aparatu hutsean eratutako litzateke eta—, baina ezin daiteke beste aldetik bidaia-lagun bilakatu —horixe izanik ere historikoki errespetatu izan den status funtzional bakarra—. Geratzen zaion aukera bakarra bere gizarte-oinarri propioak zabaltzea besterik ez da, bere autonomia defenditzeko modu bakarra, era horretan frogatuz ez zatitu, batu baizik egiten duela eta, baita «biharmonerako» ere ezker abertzale berri bat hezur-mamitzeko gai izango den oinarri sozial bat sortzen ari dela.

G AIAK

TXEMA RAMIREZ
PRENTSA-BULEGOAK

PRENTSA-BULEGOAK

Ezkutuko errealitate baten
ageriko punta

TXEMA RAMIREZ

Aspaldion, Prentsa-Bulegoena ohizko gaia dugu kazetarion tertulietan. Egunero mezubideetako erredakzioetara hamarnaka prentsagiri, komunikatu, txosten edota prentsaurrekoen konbokatoria iristen da, maiz, aldez aurretik inolako abisurik eman gabe gainera. Berriemaileak kexu agertzen dira instituzio, alderdi edota sindikatuetatik egunero eta barra--barra iristen den informazio-uholde horren aurrean. Zer egin? Horixe da erredaktore-buruen eguneroko kezka.

Solasaldi horietan, Prentsa-Bulegoak hizpidez gainera, makina bat buruhausteren iturri ere bihurtu dira. Batzuen-tzat propaganda-aparailu hutsak direnak, ezinbesteko albiste-

iturria dira besteentzat. Denak bat datoz, ordea, beste honetan: P rentsa-Bulegoek mezubideen eguneroko lana baldintzatzeko daukaten ahalmenean.

Auzi honen garrantzia ez da edonolakoa, Informazio-Kabinete hauen kopurua urtez urte eta etengabe ugalduz joan baita, batez ere «transizio politikoa» deitutako garaia hasi zenetik hona. Hasiera batean instituzio ofizialen babespean sortu ziren. Baina alderdi politikoak ere azkar ohartu ziren garai berriek planteatzen zuten erronka informatiboaz. Mundu ekonomikoa ezin zen atzean gelditu eta hainbat enpresek gauza bera egin zuen, Komunikazio-Kabinetea sortu alegia. Ondoren, sektore guztietara zabaldu da. Egun esan daiteke, gaurko gizartean ez dagoela oihartzun zabala duen talderik Prentsa-Bulego sendorik gabe. Ezinbestekoak bihurtu dira mezubi-deetan «presentzia» izan nahi duten talde, erakunde edota elkarte guztientzat. Badirudi gainera, datozen urteotan prozesu hau moteldu baino gehiago areagotu egingo dela.

DEFINIZIOA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Aurrera segi aurretik, argitu dezagun lehenengo Prentsa-Bulegoak zer diren:

Prentsa-Bulegoak gizartearen aurrean eragina izan nahi duten kultur nahiz gizarte, ekonomia edo politikaren munduko erakundeen beharrian informatiboak lantzen dituzten informazio-iturri aktibo, antolatu eta eskuarki egonkorrak dira.

P rentsa-Bulegoek gizartean duten presentzia gero eta handiagoa izan arren, fenomeno hau ez dago batere ikertua, ezta berorrek sistema informatiboan dituen ageriko ondorioak ere. P rentsa-Bulegoek albistearen ekoizpen-prozesuaren muinean eragina dutela kontuan izanik, ikerpen-falta hau are eta ulergaitzagoa gertatzen da.

Landugabeko ikergaia izateaz gainera, Prentsa-Bulegoen fenomeno hau lanpostu berrien iturria ere bada. Gauden garaian ez da txantxetako gauza. Azkenengo urteotan ehundaka

izan dira Euskal Herrian eta Espainian ere komunikabideetatik Prentsa-Bulegoetara joan diren kazetariak, euren baldintza ekonomikoak hobetu asmoz ala beste arrazoiek bultzaturik.

Prensa-Bulegoen inguruan giza baliabideez gain, diru-egitasmo ikaragarriak ere mugitzen dira. Honetan ere, iparamerrikarrak aitzindari ditugu kanpo-harremanetarako esparruari dagokion ia guztiarekin gertatu ohi den legez. W. Lance Bennett-ek¹ azaltzen duenez (1983:41), Washington-go Etxe Zurian diharduen *staff* zabalaren %30etik %50era bitarteak badu zuzenean ala zeharka harreman zuzenik mezubideekin. Alberto Moncada soziologo eta idazle ezagunak ere behin baino gehiagotan aipatu du estatubatuarrek kanpo-harremanetarako duten «dohai» hau. «*El nuevo poder informativo en España*» liburuan² aipatzen duenez (1991:56), EEBBetako Gobernuak 13.000 lagun baino gehiago du lanean zeregin honetan. Haueetatik 3.000 Pentagonoan. Etxe Zuriak eta Pentagonoak pare bat prentsaurreko konbokatzen dute egunero. Lehendakaritzaren egoitzatik 15-20ren bat prentsagiri bideratzen dira egunero albiste-agentzi eta mezubide garrantzitsuenetara. Harrigarria dirudien arren, sektore honetan ere, militarren nagusitasuna nabaria da. Datu soil bat. Leek Martina eta Salomon Norman-en ustez (1990:104), 1980an, Aire-Indar Armatuek 600.000 albiste fabrikatu zuten³. Noam Chomsky eta E. Merman-ek antzeko zifrak ematen dituzte (1990:52)⁴. Defentsa-Departamenduak urtero zenbait bilioi dolar inbertitzen du kanpo-harremanetan. EEBBetako armadak berak badu Kanpo-Harremanetarako eskola bat horretarako espreski sortua (Lance Bennett, 1983:41). Fundescoren azken urtekarian agertzen denez⁵, 1991n munduan dauden Komunikazio-Aholkularitzek 3,5 bilioi pezeta fakturatu zuten. Azpimarratu egin behar da kopuru honen barruan Irudi Gabineteak eta Consultingak soilik sartzen direla, hots, erakunde informatibotik kanpo dauden Prentsa-Bulegoak. Ez dago jakiterik momentuz, erakunde informatiboen barruan dauden bestelako Prentsa-Bulegoek (instituzionalak, alderdi politikoenak, sindikatuenak, e.a.) urtero fakturatzen duten dirutza. Ikaragarria izan behar dela ez dago dudarik. 3,5 bilioi horiek baino askoz gehiago ere bai.

Atlantikoa zeharkatu gabe, Estatu espainolean bertan badira ere datu esanguratsuak. 1992an, adibidez, Madrilgo Gobernuak ia 2.000 milioi gastatu zuen (1.900 hain zuzen) Prentsa-Bulego erraldoia den ministeritza batean (*del Portavoz del Gobierno* izenekoan). Bertan diharduen langile-kopurua 300 ingurukoa da, Administrazioak berak emandako datuen arabera⁶. 1991ean, eta ASECOM (Asociación Española de Asesores de Comunicación) elkartearen ustez, Estatuan Prentsa-Bulegotan aritzen ziren kazetariak 4.000 ziren⁷.

Datuek hitzok baino hobeto adierazten dute fenomeno honek gaur egun duen garrantzi paregabea.

Guzti honetaz sakontzea izan da ikerlan honen helburu bakarra, hots Prentsa-Bulegoek gaur egungo sistema informatiboan, komunizazio-prozesuan eta mezuan bertan duten eragina ikertzea, ebaluatzea eta azaltzea. Hauxe izan da abiapuntua eta asmoa. Espekulazioak alde batera utzi eta datuen zehaztasuna aintzat harturik, hainbat ikerlari eta kazetariri interesgarria gerta dakioken ikerketa burutzea izan da, beraz, helburua.

Tesi honetan erabilitako metodologia azaltzera noakizue ondoren. Lehenik, aipatu behar da hemen darabilgun metodoa, funtsean deskriptibo analitikoa dela eta egindako ikerketetan ikuspuntu kuantitatiboa eta kualitatiboak uztartu ditugula. Guzti hau, ikusmira bat bera ere kanpoan gera ez zedin. Lan honen egituraketa hankamotz gera zatekeen Umberto Eco maisuaren aportazioagatik izan ez balitz. Berak emandako aholkuei jarraiki⁸, hezur-mamitu dugu gure lana. Italiarraren ustez, hauxe litzateke ikerlan batek eduki beharko lukeen aurkibidea (1989:140):

«(...) un índice-hipótesis habría de tener la siguiente estructura:

- 1.- Estado de la cuestión.
- 2.- Las investigaciones precedentes.
- 3.- Nuestra hipótesis.
- 4.- Los datos que podemos ofrecer.
- 5.- Análisis de los mismos.
- 6.- Demostración de las hipótesis.
- 7.- Conclusiones y orientaciones para el trabajo posterior».

Lan-hipotesi honi atxekitu gara ahal den gehien, baina behar den malgutasunez, noski. Hartara, bi parte nahiko ezberdin bereizi dugu: Prentsa-Bulegoen deskribapena lehen eta Prentsa-Bulegoen efektuak izenekoa, bigarrena. Lehenengo parteak helburu deskriptibo-dibulгатiboa du, batipat. Bertan Prentsa-Bulego baten eginbeharrak, funtzioak eta zereginak deskribatzen dira.

Artikulu honen helburua, ordea, bigarren partean agertzen diren hausnarketak, ikerketak eta ondorioak agertzea da.

«SEVILLANO KASUA»

José Manuel Sevillano Martín *GRAPO*-kidea zenaren heriotzaren inguruan sortutako nahasmenak ezerk baino hobeto erakusten digu egungo sistema informatiboa iturri burokrati-koen legitimazio itsuan noraino iritsi daitekeen. Kasu hau, ez bairik gabe, Prentsa-Bulegoek gaur egungo gizartean duten eraginaren paradigma bezala kontsidera daiteke.

José Manuel Sevillano *GRAPO*-kidea, 1990eko maiatzaren 25ean hil zen, Madrilgo Gregorio Marañón Ospitalean, gose-greban 177 egun egon ondoren. Kasu honen berezitasuna zera da, Justizia Ministeritzak —bere Prentsa-Bulegoak argitara emandako jakinarazpen ofizial baten bidez— preso hau hiltzat eman zuela bederatzi egun lehenago, maiatzaren 16an hain zuten. Nahasmenak iraun zuen hiru orduetan, irratiek heriotza honen berri eman zuten. Politikariek beren erreakzioak azaldu zituzten eta Barne-Ministeritzak segurtasun-sistema bereziak ezarri zituen balizko atentatuak ekiditeko. Sevillano oraindik bizirik zegoela argitu zenean, mezubideen erreakzioa gogorra izan zen, batipat irratien aldetik, beraiek izan baitziren heriotzaren berri «primiziaz» eman zutenak.

Garai hartan *Radio Euskadi* irratiko korrespontsala zen Iñaki Gómez kazetariak —egun, emisora bereko Informatiboe-tako burua— azaldu zion ikerlan honen egileari nahasmen hau nolatan gauzatu zen.

Preso honek, bere taldekideek egin zuten antzera, 1989ko azaroaren 30ean ekin zion gose-grebari gartzelako egoeraren kontra protesta egiteko. Presoaren gogoz kontra elikatua izan ondoren, Sevillano Martín 1990eko maiatzaren 15ean Madrilgo Gregorio Marañón Ospitalera eramana izan zen. Bere egoeraren larritasunaz oharturik, DGIP (Dirección General de Instituciones Penitenciarias) delakoak Barne eta Justizia ministeritzak jakinaren gainean jarri zituen, presoaren heriotza momentu batetik bestera gerta baitzitekeen.

Nahasmen informatiboa maiatzaren 16ko goizaldean gertatu zen. Gregorio Marañón Ospitaleko mediku batek GRAPO-kideen gose-greba jarraitzen zuen DGIPeko sendagileari, Sevillano «*está fiambre*» (sic) esan omen zion, Iñaki Gómez kazetariak konfirmatu zuenez. Justizia Ministeritzaren Prentsa-Bulegoak, DGIPeko bertsioa ontzat emanez, komunikatu bat kaleratu zuen goiz hartako 12:43etan, Sevillano presoaren heriotzaren berri emanez. «Iragarritako heriotza baten kronika» balitz bezala, jakinarazpenaren egileak hauxe idatzi zuen⁹:

«(..) esta mañana ha fallecido por paro cardíaco el recluso José Manuel Sevillano Martín».

Gezurrezko albiste hau Barne eta Atzerri Arazoetarako ministeritzetara ere igorri zen. Azkenengo honek, gainera, GRAPOkideen elkartasunez protestak egon ziren Europako herrietako Enbaxada eta Kontsulatu guztietara bidali zuen.

Orduetik aurrera —albistea bertan behera geratu arte— irratiek era guztietako erreakzioak bildu zituzten. Egun hartan, gainera, alderdien arteko bilera garrantzitsua zegoen Diputatuen Kongresuan. Informazio hau jarraitzen zuten informadoreek egoera hau aprobe txatu zuten politikarien adierazpenak biltzeko. Hiru ordu horietan —15:36ak arte¹⁰— José Manuel Sevillano Martín «ofizialki» hilda egon zen mundu guztiarentzat.

José Luis Corcuera Barne ministroak, adibidez, zera esan zuen, bitarte horretan¹¹:

«Se han dado instrucciones a las fuerzas de seguridad para que extremen preventivamente toda la vigilancia en el supuesto de que alguien pueda pensar que el *GRAPO* actúe como consecuencia de lo que ha ocurrido esta mañana.

El Gobierno ha hecho todo lo que está en su mano para evitar la muerte de quienes se pusieron en huelga de hambre. No puedo sino mostrar mi extrañeza ante el extremo a que puede llegar el sectarismo y el dogmatismo de alguna gente».

Argi zegoen, beraz, ministroak berak ere Sevillano hiltzat ematen zuela. Gauza bera gertatu zitzairen kazetariak beren iritzia galdetu zieten pertsona guztiei: José Esteban, *GRAPO*-kideen abokatua, Torturaren Aurkako Elkartearen presidentea zen Fernando Salas, Abokatuen Elkarte Libreko bozerra-maila zen José Luis Galani eta beste hainbat politikariri.

Haatik, Francisca Villalba, Sevillanoren abokatua harrিতuta gelditu zen bere iritzia jakin nahi zuten kazetarien aurrean, emakume honek egun berean —goizeko 8etan— bizirik ikusi baitzuen preso hau. Harridurak harridura, kazetariak Gregorio Marañón Ospitalera deika hasi ziren eta orduan argitu zen mordoiloa.

Sevillano preso oso larri zegoen, baina ez hilda, adierazi zuen aipatu ospitaleko Osasun-Atentziorako zuzendaria den José Manuel Ollerok¹², bapatean eratu zen prentsaurreko batean. Gertakari hau eguerdiko 13:30etan izan zen¹³. Balizko heriotza honen gezurtapena ez zen iritsi 15:36ak arte. Ordu horretan, Justizia Ministeritzak beste ohar bat kaleratu zuen aurrekoaren edukina deuseztatuz. Bertan, hauxe aipatzen zen¹⁴:

«En la actualidad [José Manuel Sevillano] presenta pulso débil, electroencefalograma con trastornos corticosubcorticales sin ser plano en el momento actual».

Mataza hau behin-betikoz argitu zenean, mezubideek gogor gaitzetsi zuten Justizia Ministeritzak erakutsi zuen urdurikeria. Irratien kasuan kritika hauek bortitzagoak izan ziren, beraientzat ere, nahasteak iraun zuen bitartean, Sevillano

«hilda» egon baitzen eta halaxe zabaldu zuten orduero ematen diren albistegi laburretan.

Kasu honen eragileak ondorengo bi hauek izan zirela esan dezakegu: sendagileen arteko gaizki-ulertzea —«*está fiambre*» delako esaerarena— batetik, eta Justizia Ministeritzaren urdurikeria, bestetik (halako gertaera baten aurrean, «dena prest» zegoela erakutsi nahia).

Aitzitik, «Sevillano kasuaren» ondorioak eta planteatzen dituen hausnarbideak askoz sakonagoak dira, gure ustez. Alde batetik, argi geratu zen kazetariak iturri burokratikoak atxekitzen dieten sinesgarritasuna oso handia dela, hasiera batean behintzat inor gutxik kuestionatu baitzuen Justizia Ministeritzatik zetorren jakinarazpena. Baina, balizko heriotzaren iturria pre-soaren ingurukoak izan balira (sendia, abokatuak, e.a.) sinesgarritasun-maila berbera emango al zioketen?, ala aireratu aurretik alderatuko zuketzen iturri burokratiko batekin, hots, Justizia Ministeritzarekin?

Iturri burokratikoaren nagusitasunak eragin dezakeen distortsioa sutsuki azpimarratu dute zenbait adituk. Hauxe da, ezbairik gabe, adibiderik garbiena. Mezubideek iturri ofizialekiko duten konfidantza bizirik zegoen gizonezko baten heriotza iragartzera ailegatu zen.

Informazio-iturri ofizialekiko antzematen den atxekimendua ez da, ordea, Prentsa-Bulegoek sortarazten duten efektu bakarra. Ikerlan honetan informazio-iturri ez ofizialen bazterketa argi ro erakusten duten datuak ere azaltzen dira. Baita ere erakusten da Prentsa-Bulegoek mezubideen agenda zenbateraino baldintzatzen duten eta, guzti horren ondorioz, kazetarien ohikeriak nola gehitzen diren.

LANDURIKO HIPOTESIA ETA EGINDAKO IKERKETAK

Guzti honek bide ematen digu ondorengo hipotesia plaza-ratzeko: Prentsa-Bulegoek komunikazio-prozesuan esku hartzen duten elementuen jokaera aldatzen dute. Prentsa-Bulegoek

egun lortu duten garrantzia ikusirik, albisteen hautaketa-prozesua baldintzatzeko daukaten ahalmena beste edozein erakunde informatibok duen adinakoa dela argi demostraturik gelditzen da ikerlan osoan zehar. Era horretan, Prentsa-Bulegoen bidez datozen notiziek hautatuak izateko aukera askoz gehiago daukate. Arrazoa oso sinplea da: bigarren kasuan, iturriak «profesionalizatu» egin direlako eta erakunde informatibo bakoitzaren ohitura eta ezaugarrietara hobeto egokitu direlako.

Ikerketak lantzerakoan eta abiapuntu gisa, ontzat eman ditugu Van Dijk-ek¹⁵ berak gurea bezalako ikerketa bat lantzerakoan luzatzen zituen galderak (1990:142):

«¿Cuál es la naturaleza de los diferentes textos input o textos fuente? ¿Cómo los escuchan y leen los periodistas y cómo se entienden y representan cognitivamente? ¿Qué información procedente de estos textos fuente se enfoca, selecciona, resume o procesa de otra manera para su posible uso en los procesos de producción de un texto periodístico? ¿Cómo ocurre esto? ¿Quiénes están implicados en los muchos tipos de interacción verbal a través de los cuales estos textos fuente llegan a ser asequibles: las entrevistas, las llamadas telefónicas, las conferencias de prensa o hechos similares en los que los periodistas salen al encuentro de posibles fuentes informativas y personajes de la noticia? ¿Cuáles son las diferentes reglas y limitaciones de este tipo de encuentros y en qué situaciones tienen lugar?»

Hauexek izan dira ere, neurri handi batean, geuk geure buruari egin dizkiogun galderak. Jakin nahi genuen, baita ere, kazetariak Prentsa-Bulego ezberdinei buruz daukaten iritzia, zeintzuk diren beraientzat sinesgarritasun gehien eta gutxien daukatenak, horren arrazoiak eta abar luze bat. Metodologi kontuetan, oso baliagarria gertatu zaigu bere garaietan Leon V. Sigal-ek *New York Times* eta *The Washington Post* egunkarietan iturriari buruz egindako ikerketa. Lagungarria, batez ere, iturriak sailkatzerakoan eta muestrak hautatzerako orduan.

Galdegai guzti hauek argitzeko lau ikerketa burutu ditugu. Hauexek dira bere izenburuak eta definizio laburra:

- *Madrilgo Gobernuaren informazioarekin egindako ikerketa.* Prentsa-Bulegoek kazetari-produkzioarekiko burutzen duten bitartekaritza-lana argitzea helburu bezala izan duen ikerketa, zenbait testu *input* eta *output*-ekin izandako aldaketak analizatuz. Zehazki ikerketa honetan bi testu-mota alderatu ditugu. Batetik, Bozeramailearen Ministeritzatik ateratako prentsa-oharrak (*input*) eta bestetik «Efe» eta «Europa Press» albiste-agentziek, prentsa-agiri horietan oinarriturik komunikabide guztietara igorri zituzten informazioak (*output*).
- *Inforpress Consulting-ak egindako inkesta.* Europako zazpi herritan, Prentsa-Bulegoen onespenera buruz Aholkularitza honek egindako milatik gorako inkesten laburpena.
- *Prentsa-Bulegoen presentzia prentsan (ikerketa konparatiboa 1978-1992).* Prentsa-Bulegoek izandako ugalketaren islada efektiboa neurtu nahi izan duen ikerketa. Hometarako, «El Pais», «Abc», «El Correo», «Egin» eta «Deia» egunkarietako politika-orrialdeetan azaldutako albisteen ikerketa burutu da.
- *Kazetariak Prentsa-Bulegoei buruz duten iritzia.* Espainia zein Euskal Herriko mezubideetako 70 zuzendari eta erre-daktore-buruen artean egindako inkesta zabala (hogeita bost galderetako itaunketa).

ONDORIO NAGUSIAK

Aipatu ikerketak burutu ondoren hauexek izan dira atera ditugun ondoriorik garrantzitsuenak:

PRENTSA-BULEGOAK BEHARREZKOAK DIRA

I.- Egungo sistema informatiboan, Prentsa-Bulegoek betetzen duten funtzioa beharrezkoa, positiboa eta sozialki onartua da. Hala uste du medioetan diharduen kazetarien gehien-goak eta hala dakusate ere enpresa periodistikoek.

Kabinete hauek ez balira, asmatu egin beharko genituzke. Egun, dagoen medioen zerrenda oso zabala da. Mezubide guztien eskakizunak behar bezala atenditzea eta erantzutea ez da lan makala garai honetan. Betekizun hori zailagoa da oraindik jendarteko iritziarengan eragina izan nahi duen edozein albiste-iturrirentzat. Horretan datza Prentsa-Bulegoen beharra eta izana, beharrian informatibo horien garapenean alegia.

Errepikaezinak dira transizio politikoaren hasieran, kazetari eta politikarien artean inolako bitartekaririk gabe suertatzen zirenen harreman zintzo eta «fresko» haiek. Alde batetik, medioak —eta, beraiekin batera, beren lehentasun informatiboak— etengabe biderkatu direlako azken hemezortzi urteotan. Eta bestetik, politika egiteko erak aldatzen ari direlako. Garai hartako politikari trebatu gabeko haiek, edozein momentutan telefonoa hartzeko prest zeuden berberak, orain idazkariz eta prentsa-arduradunen babesaz inguraturik daude. Edozein elkarrizketa edota argibide-eskakizunek «bitartekari» honen eskutatik pasa behar du.

Prentsa-Bulegoak beharrezkoak izateak ez du esan nahi, ordea, kutsatu gabe daudenik. Kazetari gehienen aburuz, Prentsa-Bulegoak albiste-iturri beharrezkoa baino «interesatua» ere badira. Horrezaz gain, bada Prentsa-Bulegoen botere eta ugalketaz oso kritikoa azaltzen den sektore garrantzitsua (heren baten inguruan gutxi gorabehera). Hauen iritziak, erakunde hauen lana «kaltegarria» da. Ez dira beraien informazioez fido eta medioetan daukaten islada «gehiegizkoa» dela pentsatzen dute.

II.- Prentsa-Bulegoa sektore guztietan erabat ezarrita dagoen fenomeno da. Kazetari eta politikarien arteko harremanen normalizazioa eta Prentsa-Bulegoen ugalketa parez pareko fenomeno dira.

Egun ez da gizartearen aurrean bere mezua era egonkorreran zabaldu nahi duen Prentsa-Bulegorik gabeko elkarterik. Baliabide gutxiago ala gehixeagorekin, baina medioak atenditzeko nolabaiteko azpiegitura beti izango dute.

Bestalde, argi ikusi da ere Prentsa-Bulegoek zerikusia izan dutela bizitza politikoaren normalizazioan. Adibidez, Prentsa-Bulegoen lana zenbat eta landuagoa izan, politikari eta kazetarien arteko harremanak hainbat eta hobeto abiatu dira normaltasunaren bidetik. Normaltze horretan beste faktore batzuk ere esku hartu dute, hala transizio politikoaren garapenak, nola egituraketa instituzionalaren bilakaerak, e.a.

Informazioaren munduarekiko erakarmen berezia erakusten du ekonomia eta negozioen munduko sektoreak. Berau izan da praktikan ere Prentsa-Bulegoen funtzioak eta beharriak ondoen zehaztu dituenak. Baina azkenengo urteotan izan den Prentsa-Bulegoen hazkundeak kazetarien albisteen selektibitate-maila zorrotz egin du. Hala adierazten du ondorengo datu honek: igorritako informazio ekonomiko guztietatik, kazetariak %21ak soilik laguntzen die artikulu bat egiten. Beraz, sekzio honetako kazetari batek egunero hamar prentsagiri jasotzen baditu, zortzik paperontzian amaitzen dute. Hainbeste presio eta interes korapilatzen diren sektore honetan, selektibitate-maila hau kazetarien profesionaltasunaren aldeko adierazle garbia da.

Sektore honekin jarraituz, esan baita ere, Estatu espainoleko enpresek atzerrira igortzen duten informazio-kopurua Europako baxuenetarikoa dela. Datu hau are eta ulergaitzagoa egiten da, atzerritik datozen prentsagirik herri guztietan daukaten argitaratze-maila oso altua dela kontuan hartzen bada (%65a).

SISTEMA INFORMATIBOAREN MORAL BIKOITZA

III.- Prentsa-Bulego guztiek ez dute tratu bera jasotzen mezuribideen aldetik, batzuen eta besteen artean dauden aldeak oso garrantzitsuak bait dira. Kazetarien ustez, «Prentsa-Bulego bakoitza desberdina da, mundu bat da». Ezberdintasun hauek nabaro ikusten dira «isladatze maila», sinesgarritasuna eta eraginkortasunaren baloreak alderatzerakoan.

Eraginkortasunari dagokionez, Prentsa-Bulego instituzionalak dira balore altuenak dituzten Kabineteak, nahiz eta

sinesgarritasun-maila nahiko baxua izan. Ondoren, alderdi politiko/sindikatuaren Prentsa-Bulegoak kokatzen dira eta Ekonomia eta negozioen munduko Kabineteak. Hiru Prentsa-Bulego mota hauek portaera nahiko koherentea erakusten dute (salbuespen bat edo beste izan ezik) guk egindako ikerketetan. Hau da, daukaten presentzia, sinesgarritasuna eta eraginkortasuna nahiko bateratsu doaz.

Ez da gauza bera gertatzen, ordea, Herri-Mugimendu eta Erakunde Ez Gubernamentalaren Prentsa-Bulegoekin. Kabinete hauek sinesgarritasun handiena izan arren, beraien presentzia eta eraginkortasuna oso baxua da. Portaera honek agerian uzten du sistema informatiboak darabilen moral bikoitza. Prentsa-Bulego batzuk —instituzionalen kasua lekuko— sinesgarritasun-maila nahiko moderatua izan arren, daukaten eraginkortasuna oso altua da (handiena, kasu honetan). Beste batzuk berriz (Herri-Mugimendu/Erakunde Ez Gubernamentalak) sistema beraren marjinazioa eta ahanztura nozitu behar dute, nahiz eta sinesgarritasun-maila oso altua izan. Fenomeno honen arrazoiketan beste faktore batzuek —albigarritasun-maila, aurkezpena, e.a.— esku hartuko dute ziuraski, baina ez dira gai izango tamaina honetako bidegabekeria hau justifikatzeko. Kontraesan honek garbiro azaltzen du ere, gaur egun badela albiste-iturri «onak» eta ez «hain onak» bereizten dituen sistema, zeinaren irizpideak ez diren oinarri objektibotatik finkatzen, botere politiko eta ekonomikoarekiko duten kokapenaren arabera baizik.

Bestalde, ikerlan honetan argi geratu da ere, Komunikazio-Aholkularitzak dela sailkapen guztietan kontsiderazio baxuenak aurkezten dituen Prentsa-Bulego mota. Halaxe suertatu da presentzia, nahiz sinesgarritasun edota eraginkortasunari buruz lortu ditugun emaitzetan. Esan bide daiteke, beraz, bere papera ez dagoela onarturik gaurko sistema informatiboan. Fenomeno honen arrazoiak zehatz-mehatz azaltzeak beste ikerketa bat mereziko luke. Aurrera dezagun, halere, arrazoi posibleenatariko bat: kazetariak Kanpoko consulting-ekiko duten mesfidantza. Berriemaileek egun Prentsa-Bulego gehienekiko erreparo handiak badituzte, errezelu hauek handitu egiten

dira iturri batek erakunde hauetako baten zerbitzuak «alokatzeten» dituenen. Jasotako datuen arabera argi dago, beraz, consulting-ek kazetarien artean ez dutela oraindik irudiaren froga gainditu, nahiz eta batzuk *irudi-aholkulari* gisa funtzionatu.

IV.- Egonkorrak, instituzionalak eta eskura-errazak diren albiste-iturriek lehentasun nabaria dute medio guztietan. Baldintza hauek betetzen ez dituzten iturriak sistematikoki zokoratuak gelditzen dira. Guzti honek mezuaren uniformizazioa eta errealitatearen distortsioa ekar dezake.

Albiste-iturri ofizialen nagusitasuna frogatzen duten datu ugari aportatzen dira ikerlan osoan zehar. Guztietan, botere politikoak nahiz ekonomikoak medioen dinamika baldintzatzeko daukan ahalmen sendoa argiro frogaturik geratu da. Botere ezberdinek zeregin hauetan inbertitzen duten dirutza ikaragarrien berri ere eman dugu. Hainbat adituk ere azpimarratu du botereak duen gaitasun hori. M. Wolf-en lekukotasuna dugu orain aipagai¹⁶ (1987:256):

«La capacidad de suministrar informaciones fiables es mayor para las instituciones, entes o aparatos que puedan programar sus actividades satisfaciendo la continua necesidad de los media de tener que cubrir acontecimientos programados con anterioridad (para poder organizar racionalmente la distribución de los medios y los recursos disponibles).

‘Esta ventaja todavía es mayor para aquellos organismos que pueden disponer de un portavoz cuyas declaraciones sean noticiables o bien de fuentes que se pongan a disposición de los periodistas con un breve preaviso, suministrándoles a tiempo las informaciones que necesitan, sin que ello cueste nada a los mismos periodistas’ (Gans, 1979:122). Las fuentes que responden a dichos requisitos organizativos de los media son obviamente las vinculadas a las instituciones, órganos oficiales, grupos de poder, etc.».

Baina, albiste-iturri ofizialen nagusitasun honek beste iturri askoren marjinazioa dakar sarriri. Zokoraketa horren adierazle nabaria da ikusi berri dugun Herri-Mugimendu/Erakunde Ez Gubernamentalen Prentsa-Bulegoekin gertatzen den bazterketa. Transnazionalak nagusi diren sistema informa-

tibo honetan, komunikazioaren handikiak (Berlusconi, Murdoch, Berstelman, e.a.) jainko berrien antzera goraiatuak diren garaion, informazioa ikuskizuna bihurtzeko zorian gauden honetan, presio-taldeek marraztu duten eszenatoki ilun honetan, baliabide gutxi duten albiste-iturriek oso zaila dute medioek ezartzen dituzten pasabideak eta oztopoak gainditu eta hartzailearengana modu duin batez helaraztea.

Haatik, oso zaila izan arren, tesian zehar komunikazio alternatiboaren eremuan aitzindari izan diren zenbait esperientzia aztertu dira (*Lurraldea*-ren kasua). Berau, ordea, ez da bakarra. Horregatik, esan dugu, egoera txarrean egonda ere, eta mezubide gehienak bere kontra izan arren, edozein albiste-iturri bere esku dituen baliabide apurrak irudimenez eta modu berritzailez erabiltzen baditu, bere mezua herritarrengana helaraztea lor dezakeela. Makilatxo miresgarririk egon ez arren, —are gutxiago komunikazioaren munduan— zenbait formula posible eskaini dugu (kazetarien ohikerien ezagutza eta atarramendu irudikorra, albigarritasun-balore propioen promozioa, e.a.).

Egun nozitzen dugun medioen kontzentrazioaren ondorioz eta albiste-iturri ofizialek duten nagusitasun horren erruz, mezuaren uniformizazioa gero eta handiagoa egiten ari da.

Guzti horren ondorioz, hartzaileok mezubideen bitartez errealitateaz jasotzen dugun somaketa guztiz desitxuratua izan daitekeela esan dugu. Martina Leek eta Norma Salomon adituek EEBBetako mezubideekin egindako ikerketa batean argi frogatu zuten azkenengo hau. Datu bat. 1989an, adibidez, TB kateek Bush familiaren zakurrari, «Millie»ri, hain zuzen, kobertura gehiago eman zioten, presidentearen zenbait gobernakideri baino. Atlantikoa zeharkatu gabe ere, hemen, gure artean, gogora ekarri dugu «Sevillano» kasua.

Primitivo Carbajo¹⁷ kazetari galizarra bat dator iritzi hauekin. Bere ustez, egun mezubideek «kontraboterearen izaera» galdu dute. Horren aurrean, «boterearen agindupeko kazetaritza» sortzen eta hedatzen ari da (1993:17):

«(...) un periodismo de servizo indiscriminado ao poder, como en ocasións abondo evidencia a relación dos meios cos gabinetes de prensa, é un periodismo de renúncia no fundamental e merce dunha sociedade democrática a factura de descrédito que tamén se está producindo en moitos casos».

V.- Prentsa-Bulegoek, batzuetan, indar faktikoen antzera funtzionatzen dute. Horrek ez du estaltzen, ordea, prentsa-arduradun gehienek eginbide zuzena.

Tesian zehar ikusi da ere Prentsa-Bulegoek indarrean jar dezaketen presioen sorta (informazio-ukapena, publizitatearen txantajea, filtrazioak, desinformazioak, e.a.). Inkestutako kazetarien gehiengo zabal batek —%70ak— Prentsa-Bulegoetatik noizbait presioak jasan dituela aitortzen du. Bestalde, beste sektore garrantzitsu batek —%28,8k— sobornoa onartu duen kazetariren bat ezagutzen duela ere agertzen du.

Datu hauek ezin dute estali, ordea, egunero euren zeregin profesionalak duintasunez betetzen dituen hainbat prentsa-arduradunen eginbidea. Zaila, edo —hobe esanda— ezinezkoa litzateke, prentsa-arduradun «on» eta «txarren» artean halako sailkapen artifizialik gauzatea. Manikeismo antzua litzateke, bestalde.

LAN SORTZAILEAREN MURRIZKETA

VI.- Kazetarien ohikeriez baliatzen direnez, Prentsa-Bulegoek kazetarien produkzioa bera ere baldintzatzen dute, ohikeriaren bidetik gero eta gehiago sakonduz eta kazetariaren lan sortzailea murriztuz.

Gai honen inguruan egindako ikerketan argiro azaldu da hau. Prentsa-Bulegoak zenbat eta gehiago ugaltu kazetaritza-produkzioa bera ere gehiago «nagitu» da. Nabaro frogaturik geratu da hau Prentsa-Bulegoen presentziari buruz egindako ikerketa konparatiboan (1978/1992). Hamalau urteko aldea nahikoa izan da Kabinete hauen eragina argi eta garbi ikusteko. Egun, Prentsa-Bulegoen bidez datozen albisteak %52 diren bitartean, 1978an %30 besterik ez ziren. Portzentaia berbe-

rean murriztu da kazetariaren lan sortzailea. 1978tik 1992ra bitartean kazetariak landutako albisteak %44tik %22ra pasa dira.

Datu hauek hobeki interpretatu ahal izateko, kontuan izan behar dugu kazetariak oso lanpeturik daudela, normalean. Sarritan gertatzen da albisteentzat uzten den tokia gehitu egiten dela medioetan, nahiz eta notizia horiek egiteko denbora eta erreportarien kopurua berdinak izan. Egoera horretan, kazetariak —logikoa denez— lan gutxien sortarazten dieten gerta-kizunetara joko dute, hots, aurrez iragarririk dauden jazoereta, edota «*erdieginak*» datozen agiri eta oharretara. Egoera horretaz jabeturik, Prentsa-Bulegoek testuinguru honi etekin nabariak ateratzen dizkiote. Horretan datza bere eraginkortasunaren gakoetariko bat. Egoera honetan, etekin gehien ateratzen dituzten Prentsa-Bulegoak profesionalki ondoen horniturik daudenak dira. Eta jakina, botere arren ingurukoak dira.

Beraz, alde horretatik ikusita, garbi dago ohikerian oinarritzen diren albiste guzti horiek indarrean dagoen *status quo*-aren alde jokatzeko dutela. Mark Fishman nabaro mintzo zen auzi honi buruz¹⁸ (1980:178):

«El periodismo de rutina transmite una concepción ideológica del mundo. En definitiva lo informado por los hombres de prensa no es lo que realmente acontece, ni lo que realmente experimentan los participantes en los sucesos noticiables o sus observadores. En lugar de ello, el periodista termina por urdir una historia en torno a los 'datos rigurosos', definición que remite a las categorías burocráticas y a los sucesos burocráticamente definidos que los funcionarios oficiales quieren y necesitan que acontezcan».

VII.- *Eztabaida politikoaren eraginpean dauden gaiak ukitzen direnean, Prentsa-Bulegoen eragina nabarmenki murrizten da, mezubide bakoitzak duen orientabide ideologikoa agerian utziz.*

Kabinete hauek duten egiazko eraginkortasuna termino zehatzetan mugatu ahal izateko, puntu honek berebiziko garrantzia duela azpimarratu behar da. Egindako ikerketetan

garbi geratzen denez, medio bakoitzak libreki jorratzen ditu Gobernuko bozeramailearen prentsaurrean (Rosa Conde, kasu honetan) azaldutako gaiak. Hots, Prentsa-Bulegoen bitartez mezubideetara bideratzen den informazioa ez da —eskuarki— lehen orrialdeak edo albistegiak «irekitzen» dituen horietakoa. Medio bakoitzak lehentasuna ematen die —gero eta gehiago gainera— berak jorratutako gaiak, edota polemika sortarazten duten auziei. Eta horietan, norberak bere ikuspuntu propioa erakutsi behar du.

Beraz, Prentsa-Bulegoen eraginkortasuna «administrati-boak» deitu ditugun gaietan (polemika pizten ez dutenetan) nabarmentzen da gehiago. Portaera berbera somatzen da Prentsa-Bulegoen presentziari buruzko ikerketa konparatiboan (1978/1992). Bertan, argi geratzen da ere Prentsa-Bulego haue-tatik bideratzen diren notiziak bigarren mailakoak direla nor-malean.

PRENTSA-BULEGOAK ETA KOMUNIKAZIO-PROZESUA

VIII.- Albiste-iturriak gero eta paper aktiboagoa jokatzen ari dira, orain arte atxekitu zaien pasibotasuna gaindituz. Alde horretatik, Prentsa-Bulegoek igorleak duen papera jokatzen dute —neurri batean behintzat— komunikazioaren eskeman bete-betean sartuz. Albisteen hautaketa-prozesua ez da jadanik era-kunde informatiboaren barruan bakarrik gauzatzen den meka-nismoa. Prentsa-Bulegoek prozesu hori baldintzatzeko duten ahalmena beste edozein erakunde informatibok duen adina-koa da. Guzti honen ondorioz, Prentsa-Bulegoek komunikazio-prozesuan parte hartzen duten elementuen jokaera aldatzen dutela esan daiteke.

Ondorio hau behar bezala ulertzeko egungo sistema infor-matiboan albiste-iturriek jokatzen duten papera ulertu behar da lehenengo. Emilio Pradok¹⁹ dioen legez (Cesareo, 86:II):

«La preponderancia de las fuentes tiene consecuencias de relieve. En primer lugar se produce un desplazamiento del control que antes se radicaba esencialmente en la propiedad y ahora se ha ubicado, en buena parte, en la red de fuentes. La propiedad de los medios es importante, pero no es el único

elemento estructural y, por lo tanto, el control no depende sólo de ella».

Obra berean, Cesareok argi uzten du albisteen hautaketa ez dela jadanik mezubideen barruan bakarrik gauzatzen den prozesua (*gatekeeping*), sistema informatiboak zilegitzen dituen albiste-iturriek ere parte-hartze erabakiorra bait dute jarduera honetan. Emilio Pradok, Cesareo ren obraren hitzaurrean, argi uzten du (Cesareo, 1986:II):

«La selección de lo que es noticia que antes se hacía esencialmente en los medios se ha desplazado a las «fuentes legitimadas» hasta el punto de que generalmente sólo es noticia aquello que se produce dentro de esta estructura, en gran parte porque la 'rutina' constituye una relación de confianza entre los periodistas y las fuentes»

Argi dago, beraz, iturriek, egunez egun, gero eta paper aktiboagoa jokatzeko dutela gure sistema informatiboan eta baita komunikazio-prozesuan bertan ere.

Costa i Badia irakasle katalandarrak «igorle berriak» deitzen die albiste-iturri hauei, hots, medioen iragazkortasunaz baliatu eta jendarteko iritziarengan eragina izaten saiatzen diren iturriak.

Albisteen hautaketa-prozesuaren garapena hobeki ulertzeko —*gatekeeping* delakoaz ari natzaizue— interesgarria oso deritzogu Pamela J. Shoemaker ikertzaile iparramerikarrak gai honen inguruan argitaratu berri duen azkenengo obrari²⁰. Prozesu honek berebiziko garrantzia du gure bizitzetan, zeri-kusi zuzena baitauka mezubideen bidez jasotzen dugun errealitatearen somaketarekin. Obra honi esker, prozesu honetan esku hartzen duten faktore guztiak eta beraien motibazioak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu. Shoemaker-ek egindako ekarpenei jarraiki, Prentsa-Bulegoek prozesu honetan duten eragin zuzena zehatz-mehatz aztertzei aukera izan dugu.


Beraz, hau guztiau aztertu eta ikusi ondoren, zera aldarrikatu dugu: Prentsa-Bulegoek komunikazio-prozesuaren baitan dutela eragina, bertan esku hartzen duten elementuen jokaera —modu batera zein bestera— aldarazten baitute. Aldaketa

horiek elementuz elementu zertan dautzan aztertzen da. Igorlearen kasuan, esaterako, bere funtzioak arinduz eta zalutuz, kodifikazioaren papera erraztuz, kanalaren sendotasuna areagotuz e.a. Horren ondorioz, Prentsa-Bulegoen eraginez hain zuzen, mezua bera ere nabarmenki eraldatuta gera daitekeela aldarrikatu dugu.


Beraz, faktore guzti hauek aintzat harturik, Prentsa-Bulegoek «fabrikatutako» produktu bat —albiste bat, alegia— kanaleraino zuzen-zuzenean iristea, bestelako «esku-sartze» edo bitartekotza-lanik gabe, posible dela frogatzen da. Prozesu hau era horretan gauzatu dadin, albiste-iturriek ezinbestez bete behar dituzten baldintzak zeintzuk diren aipatu ditugu: profesionalizazio-maila altua eduki eta sistema informatiboaren «konfidantzazkoa» izatea.

Komunikazio-prozesuan esku hartzen duten gainerako elementuen funtzioak Prentsa-Bulegoen eraginez, zergatik ez diren aldatzen aztertu eta azaltzen da ere.

KOMUNIKAZIO-PROZESUAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK (Schramm, 1949)



GURE HIPOTESIA (Txema RAMIREZ, 1993)



Hauek lirateke aldaketa eta eragin guzti hauek grafikoki azalduta. Ondorengo irudian Schramm-ek bere garaian landu zuen eskema, guk proposatzen dugunarekin alderatu dugu. Hauxe da emaitza.

IX.- Prentsa-Bulegoek burutzen duten jarduerak bi onura - dun garrantzitsu ditu: mezubideak eta zerbitzatzen dituzten erakundeak. Prentsa-Bulegoak porrot egiten badu, kaltetuena era - kunea bera da.

Egindako ikerketek argiki frogatu dute azkenengo hau. Prentsa-Bulegoen produkzioa oso ongi datorkie enpresa infor- matiboei, normalean lan izugarria aurrezten dielako. *Infor- press* Kabineteak egindako ikerketan ikusten da, adibidez, nola Prentsa-Bulegoek pertsonalgoaren gastuak %25ean murriz ditzaketen. Fenomeno hau oso argi azaltzen da ekonomi alo- rreko aldizkarietan. Baina esparru guztietan somatzen dela esan daiteke. Kazetariari iristen zaizkien prentsagiri, ohar eta gutunak erdi-elaboratuak daudenez, berriemaile batek albiste gehiago «egin» dezake. Bere produktibitatea gehitu egiten da na- barmenki. Albiste berbera «zerotik» burutu beharko balu —hau da, bere kabuz jorratuko balu— denbora gehiago inbertituko luke, bere enpresaren produktibitatea era horretan kaltetuz.

KAZETARIAREN ESPIRITU KRITIKOA

X.- Prentsa-Bulegoek mezubideetako agendak baldintzatzen dituzte, «sorpresa-faktorea» murriztuz eta albisteen iragarritasun- maila narbarmenki gehituz.

Kazetarien artean egindako inkestak halaxe erakusten du. Estatu eta Euskal Herriko kazetarien gehiengo batek —%56ak— euren mezubideen agendak mugatzerakoan, Prentsa-Bulegoak «garrantzitsuak» edo «oso erabakiorrak» direla uste du. Era- gin hori «ia ezertan» ez dela nabaritzen uste dutenen kopurua berriz, %11,9koa da. Gainerako %32,1ak eragin hori «kasuen arabera» aztertu behar dela pentsatzen du.

1985ean egindako ikerketetan, Villafañe, Bustamante eta Prado irakasleak antzeko ondorioetara iritsi ziren. Kasu horre-

tan aztertutako medioetan emititu ziren albisteen %83 aldeztu iragarrikerik zegoen. Aurrez iragarrikerik ez zeudenen kopurua %17 besterik ez zen.

Datu hauen arabera, historikoki hain periodistikoa izan den «sorpresa-faktorea» mugatzen hasten dela esan daiteke, kazetaria ez baitoa notiziaren bila, albistea bere bila baizik.

Iragarritasun-maila honek zerikusitu zuzena du, baita ere kazetariaren ohikerien gehitzearekin. Hau da, Prentsa-Bulegoen bidez zenbat eta albiste gehiago etorri, kazetariaren lan sortzailea orduan eta gehiago murriztuko da.

XI.- Aurrerapen teknologikoen albiste-iturri ahaltsuenen alde jokatzeko dute, aldatuta horien demokratizatu artean, bederen.

Mass-media-en alorrean izan diren aurrerapenek aldatuta oso nabarmenak ekarri dituzte albiste-iturrien panoramara. Egun, historiara pasa dira instituzioetako agiriak eta oharrak ekartzen zituzten *ujier* haien bisitaldiak. «Fax»-ak dena bete du. Laister batean bestelako aurrerapenak etorriko zaizkigu (bideo-albisteak, mezularitza elektronikoa, informazio-iturritik errealakziko ordenagailuekin zuzeneko konexioak, e.a.). Aldatuta hauen onuradun garrantzitsuenak albiste-iturri ahaltsuenak izango dira, beraiek baitira, hasiera batean behintzat, aurrerapen horien etekinak atera diezaizketen bakarrak. Aurrerapen horien demokratizatzen direnean —hots sektore guztietara ailegatzen direnean («fax»aren kasua, esaterako)— guztien mesederako izango da.

Aldatuta hauek kazetariaren lanbidean dauden ohikeriak indartzen dituzte, hainbat adituk azpimarratu eta erakutsi duenez (G. Cesario).

XII.- Kazetariaren lanbideak historikoki izan duen sen kritikoa arriskutan dago. Igorlearen nagusitasuna nabarmen agertzen den garai honetan, ohikeriaren bidea inoiz baino erakargarria -goa egiten zaigularik, sistema informatibo osoak —bere independentzia bermatu nahi badu— hausnarketa sakon baten beharra du.

60 eta 70eko hamarkadetan zehar, mundu osoko kazetarien artean kontrakultura eta marjinalitatea bezalako baloreak hedatu baziren ere, azken urteotan, bestelako fenomenoak nagusitzen ari zaizkigu: medioen kontzentrazioa, informazioa ikuskizun bihurtzeko ahaleginak, audientzia eta merkatua bezalako jainko berrienganako gurtzapena,... Bidenabar, kontuan izan behar dugu ere, botereak (politikoak zein ekonomikoak) informazioa kontrolatzeko betidanik izan duen joera. Eta informazioa kontrolatzeko, iturrietara jotzea bezalakorik ez dagoela kontuan izanik, botereak Prentsa-Bulegoen apustuari gogo biziz eutsi zion. Erronka honek besteak beste, zera suposatzen zuen: teoriak publikoa zen informazioa pribatizatzea, albistearen funtsezko elementuen kontrola (Nork, zer, noiz, nola, non eta zergatik) beraien agindupean baitzegoen. Beraz, kontzentrazioa ez da medioen artean soilik ematen den fenomeno. Informazioa ere, *Prentsa-Bulegoei esker, gero eta gehiago kontzentratzen ari da.*

Aipatutako fenomenoez gain, botereak beste faktore batzuk izan zituen bere alde: igorleak komunikazio-prozesuan duen aparteko tokia, mezubideetan bizi den dinamika produktibo eroa eta kazetarien ohikeriek ezartzen duten menperakuntza. Faktore guzti hauek elkar loturik, testuinguru ezin egokiagoa marraztu zuten botere publikoen eginpide informatiboa emankorra izan zedin.

Horregatik diogu, kazetari-sena arriskuan dagoela. Eta arazo honi aurre egiteko —hau da, sistema informatiboaren independentzia bermatzeko— behar diren formula posibleak ere aipatzen dira: kazetariaren kontzientzia profesionala, zorrotasuna, albisteen alderaketa (notiziak normalean oso gutxitan kontrastatzen dira), ohikeriaren inertiari amorerik ez ematea, baliabide gutxiko albiste-iturriak begirunez tratatzea eta medio bakoitzak bere agenda propioa lantzea.

Hartara, oso garrantzitsua litzateke ere, Prentsa-Bulegoak persuasioan itsu-itsuan oinarritu ordez, frogaren bidezko kontentzimenduaz baliatuko balira. Horiexek dira inertzia ero hau geldiarazteko okurritzen zaizkigun formula posibleak.

XIII.- Botere politiko eta ekonomikoaren inguruko Prentsa-Bulegoek egungo sistema informatiboaren bidegabekeriak sakontzen dituzten momentutik, albiste-iturri ahaltzu eta ahu-len arteko amildegia aregotzen dute ere. Horregatik, ezinbestekoa da sistema beraren demokratizazioa helburutzat duten taldeak indartzea eta bultzatzea. Ekimen hau, are eta premiazkoagoa da gaur egungo panorama informatiboan nagusitzen ari diren joerak kontuan hartuz gero.

Prentsa-Bulegoak, kultur nahiz gizarte, ekonomia edo politikaren munduko hainbat erakunderentzat tresna baliagarria eta oso egokia diren bezala, tesi honetan azpimarratu nahi izan dugu, baita ere, botere publikoek lanabes hauekin burutzen dituzten bidegabekeriak eta beraiei darizkien ondorioak sistema informatiboan. Gehiegikeria hauen kontra nondik jo behar dugun jakiteko, Miquel de Moragas-en aipu bat²¹ ekarri nahi izan dugu gogora (1981:94):

«El camino de salida no parece fácil de encontrar. Las bases de una teoría crítica de la comunicación de masas no pueden encontrarse en otra revolución particular y descontextualizada: la de los medios de comunicación baratos o participativos. No serán los medios, TV por cable, aparatos grabadores, cámaras de video, minimprentas, etc., los que puedan subvertir o neutralizar, la fuerza comunicativa del sistema, sino la existencia de aquellos grupos que encontrarán en los nuevos medios de comunicación, de hecho fruto del contradictorio desarrollo industrial que ha posibilitado su existencia, un arma de defensa para su libertad».

Gure ustez, guzti honek egungo sistema informatiboaren erabateko demokratizazioa suposatzen du, informazioa hiritar guztioi dagokigun funtsezko eskubidea baita, eta ez gutxi batzuek gertaerak nahi duten eran aurkezteko daukaten pribilegioa.

AURRERA BEGIRA

Honaino gure aldetik ikertutako guztia. Ikerlan hau bote-rearen inguruko Prentsa-Bulegoetan zentratzen da gehienbat. Honen zergatia, gure irudiko Prentsa-Bulego hauexek gaurko sistema informatiboan eragin gehien daukatenak direlako izan da.

Edozein kasutan, ikerketa honekin Prentsa-Bulegoen gaia ez da inolaz ere agorturik geratzen. Badira egon, fenomeno honen inguruan azterketa sakona merezi duten hainbat lan-saio.

Oso interesgarria irizten diogu, esaterako, informazio ekonomikoa gailentzen ari zaigun garai honetan, alor horretako komunikazioa nola egituratzen den ikertzeari, zeintzuk diren bere bitartez transmititzen diren balore nagusiak miatzeari, enpresa barruko Marketing eta Komunikazio Sailen arteko harremanak nolakoak (osagarriak?, menpekotasunezkoak?) izan behar duten arakatzeari, e. a.

Gai berberarekin jarraituz, bereziki aholkugarria deritzogu krisi garaiko komunikazioa nola egituratzen den aztertzeari, hots, larrialdi-uneak direla eta (ezbeharrak, hondamendiak, istripuak, ezusteak, e.a.) erakunde publiko nahiz enpresa batek zer egin behar duen, bere komunikazioa nola gizarteratu behar duen, zer mekanismo erabili eta zeintzuk baztertu behar dituen eta zergatik. Larrialdi-egoera hauetan inprobisazioa nagusitzea ohituta gauden honetan, oso interesgarri irizten diogu gai honen sakonketari; ikustea, adibidez, emergentzia egoeretan zer jarrera hartu duten beste herrietako Gobernuak, enpresek, e.a. eta horren ildotik behar diren ondorioak ateratzea.

Tesi honetan ikertu dugu baita ere Komunikazio-Aholkularitzen fenomenoak. Adierazgarria oso izan da guretzat, kazetariak consulting hauekiko duten konfidantza-eza. Badirudi erre-zelo hauek ez datozela bat European dagoen errealitatearekin. Guzti hori zergatik gertatzen den, herri guztietan fenomeno honen inguruan jarrera beretsuak ote dauden, e.a. beste ikerketa baten abiapuntua izan zitekeen.

Ikerlan osoan zehar ere, Prentsa-Bulegoen ugalketaz mintzatu gara. Baina ugalketa hori ez dugu kuantifikatu, ordea, gure helburua ez baitzen hori jakitea, horren eragina deskribitzea baizik. Edozein kasutan, oso garrantzitsua deritzogu uneon Euskal Herrian zenbat Prentsa-Bulego dauden zehatz-mehatz jakiteari, baita ere zenbat kazetarik lan egiten duen bertan eta zein den bere kualifikazio profesionala ikertzeari. Era horretan, hobeto ezagutuko genituzke fenomeno honen ezau-garriak eta etorkizunera begira dituen aukerak. Alde horretatik, nahitaezkoa iruditzen zaigu Informazio-Zientzietako Fakultateetatik ere fenomeno honi begira ikasleak prestatzea, kontuan izanik gauden krisi-garai honek bestelako irtenbideen premia izugarria duela.

Prentsa-Bulegoen eragina tesiaren ardatz nagusia izan arren, Kabinete hauen funtzioak eta helburuak zeintzuk diren ere luze eta zabal azaltzen dira, ikuspuntu dibulgatibo batetik (nahiz eta laburpen honetan —espazio urria dela eta— ezer gutxi aipatu). Ikusmolde beretik, ondo legoke ere «informazio administratiboa» deitu dugun hori, hau da, herri-administratioetan burutzen den lana gizartean nola plazaratzen den, zertan edo nola egituratzen den ikertzea. Alde horretatik ere, toki horietan —instituzio publikoak, enpresa handiak, e.a.— barne-komunikazioak betetzen duen papera oso garrantzitsua da, ezbairik gabe. Azkenaldi honetan, gainera, barne-buletinak, aldizkariak e.a. pertsonalgoaren faktore motibatzaile legez erabiliak izan dira. Guzti hori, eta Barne-Komunikazioak oro har, eskaintzen dituen posibilitateak aztertzea eta arakatzea beste ikerlan baten helburua izan zitekeen.

Ikerbide posible hauen zerrenda ezin dugu amaitu beste gai bat aipatu gabe. Eta berau komunikazio alternatiboaren etorkizuna da. Euskal Herria esperientzia alternatibo askoren sorleku izan da beti. Hainbat izan dira, azkenengo hamarkada hauetan sortutako mugimendu, plataforma hiritar eta bestelako elkarteak. Erakunde hauek oso aktiboak izan arren, medioetan izan duten islada nahiko moderatua izan da. Zenbait kasutan, sistemaren kontrako mugimenduak izatea nahiko arrazoi da, unibertso informatibotik at gelditzeko. Bestetan,

medioen funtzionamendua guztiz ezezaguna da erakunde hauentzat, gaindiezinezko muga suertatuz. Harrigarria badirudi ere, Herri-Mugimendu eta Erakunde Ez Gubernamentalen Prentsa-Bulegoak, sinesgarritasun-maila handiena daukatenak dira kazetarien aurrean, baina fidagarritasun hori —tesian ikusi dugun legez— ez da gero medioetan isladatzen. Datu hauen arabera, argi dago, komunikazio alternatiboak berrikuntza behar duela, mugimendu hauek berez duten sinesgarritasun horri ahal den etekin handiena ateratzeko. Gure ustez, erakunde hauek eredu zaharkituak alde batera utzi eta formula berriak landu behar dituzte, irudimenez josiriko metodoak, hain zuzen.

Argi dago, beraz, Prentsa-Bulegoen gaia ez dela ikerketa honekin agorturik geratzen. Geroari begira, ikerbide posibleak hauexek lirateke:

- Informazio ekonomikoaren Prentsa-Bulegoak: Komunikazio-Aholkularitzen etorkizuna.
- Informazioa krisi-garaietan: Ezbehar baten aurrean, zein da estrategiarik egokiena?
- Informazio administratiboa: komunikazio instituzionala, Barne-Komunikazioaren beharra.
- Prentsa-Bulegoen Errolda: zenbat Prentsa-Bulego daude une honetan Euskal Herrian eta zein dan bere katalogazio profesionala?
- Komunikazio alternatiboaren zeregina eta geroa: Formula berrien bila.

1. Lance Benett, W., *News: the politics of illusion*. Longman.USA.1983.
2. Moncada Alberto, *El nuevo poder informativo en España. Multimedia, multinacionales y multinegocios*.Libertarias/Prodhufi. Madril. 1991.
3. Leek eta Salomonek zera argitzen dute «*Unreliable sources*» liburuan: Kongresuko legebiltzarkide bakoitzak baduela bere prentsa-ekipo propioa.
4. Aipatu egileen ustez, Aire-Indar Armatuek 140 egunkari zuten euren eskuetan 1979 eta 1980 urteetan. 1968an —duela 25 urte, beraz— zeregin hauetarako eta arduraldi osoz lan egiten zuten pertsonak 1.305 ziren.
5. Zubiete, Angel Pedro, *Deia* 1993-XI-8.
6. Datua Gobernu-Bozeramalearen Ministeritzako Informazio-Harremanetarako zuzendaria den Ramón María Iribarrenek, 1992ko maiatzean iker-lan honen egileari aitortutakoa da.
7. ASECOMeko lehendakaria José Gonzalez da. Datu hau iker-lan honen egileak berarekin izandako elkarrizketan emana da.
8. Eco, Umberto. *Cómo se hace una tesis. Técnicas y procesos de investigación, estudio y escritura*. Gedisa (11. edizioa). Barcelona. 1989.
9. *El País* egunkaria. 1990-V-17. (15. orr.).
10. *Ibidem*.
11. *Ibidem*.
12. *El Mundo del siglo XXI* egunkaria. 1990-V-17 (10. orr.)
13. *Egin* egunkaria, 1990-V-17(3. orr.).
14. *El País*. 1990-V-17- (15. orr.).
15. Van Dijk, Teun A., *La noticia como discurso*. Paidós. 1990. Barcelona.
16. Wolf Mauroto, *La investigación en la comunicación de masas*. Paidós. Barcelona. 1987.
17. Carbajo Primitivo, «Gabinetes de prensa: o éxito da propaganda na precariedade do periodismo». *Cuadernos A Nosa Terra de pensamento e cultura*. 14-15. zenbakia. 1993ko otsaila.
18. Fishman Mark *La fabricación de la noticia*. Ediciones Tres Tiempos. Buenos Aires. 1983.
19. Cesareo Giovanni, *Es noticia*. Mitre Barcelona. 1986.
20. Shoemaker, Pamela J., *Communications concepts 3: Gatekeeping*. newbury Park, CA. Sage. 1991.
21. Moragas Spà, Miquel de. *Teorías de la comunicación. Investigaciones sobre medios en América y Europa*. Gustavo Gili. Barcelona. 1981.

HAINBAT ABURU

XABIER CILLERO
APOCALIPSIAREN LILURA

APOCALIPSIAREN LILURA

XABIER CILLERO

Joan zen udaberrian haize apokaliptiko batek astindu gintuen Ameriketatik. Waco, Texaseko herri baten ondoan, Dave Koresh Branch Davidians talde erlijiosoaren buruzagia berebiziko apokalipsia prestatzen zebilen, bere buruari Jesukristo iritzita. Koreshek sinestarazita zeuzkan taldekideak munduaren azkena gain-gainean zutela. Azkenean, Waco herriaren ondoan dagoen eraikuntzei su eman eta errautsi ondoren, ondo baino hobeto lortu zuen bere helburua.

Horrela zioen bertsio ofizialak. Hala ere, denak ez datoz bat iritzi honekin. Areago, istiluaren hautsak baretu ostean, bada

egin beharreko zenbait ohar guzti honen gainean. Izan ere, Wacoko airea errautsez garbiago azaltzen bada ere, bestelakoa gertatzen da EEBBetako askatasunaren eta oinarritzko eskubideen kasuan. Wacon elementu gatazkatsu batzuk izan dira jokoan: erlijioa, estatuen segurtasun-agenteak eta komunikabideak. Ikus ditzagun, banan bana, zertan datzan istiluaren funtsa.

Lehenik eta behin, erlijioa dugu aipagai Wacon. Erlijioa EEBBetako gizartearen oinarrietariko bat da. Gallupen inkesta baten arabera, EEBBetan jendearen %58ak erlijioa oso garrantzitsutzat jotzen du bere bizitzan; %29ak, ez du uste oso garrantzitsua denik, eta %12ak ez dio batere garrantzirik ematen erlijioari. Bada, zenbakiak gora doaz. Egun 1.500-2.500 talde erlijioso bizi dira EEBBetan. Haietako %10 bakartasunean bizi dira, apenas harremanik ez dutela kanpoko munduarekin.

Hori dela eta, mesfidantza eta ezinegona nabari dira jende «arruntaren» artean. Talde erlijioso horien ikertzaile batzuek diotenez, fanatikoak, muturkariak, bizimodu aldrebesa eta likitsa darabilten basa jendeak dira halako zoroak.

Hala ere, bestelako iritziak badira. Gutxiengo erlijiosoen %99 baketsuak dira eta beren burutik bizi nahi dute. Hori diote Unibertsitateko aditu batzuek¹. Hauek nahiago dute erlijio bitxiak edo exotikoak izendapena erabiltzea kasu hauetan. Ikertzaile hauen arabera, taldekideak beren gogoz sartu-irriten dira taldeotan, inork behartu barik. Gainera, adituok ohar-tarazten digutenez, gutxiengo erlijiosoen aurkako iritziak ez dira fidagarriak, jarraitzaile zapuztuengandik datozen aldetik.

Talde erlijioso horien bizitza ez da berez arriskutsua, ez mehatxugarria. Hala izan zen Wacon hasieran, 1930eko hamarraldian 7. eguneko adbentista batzuek taldea eraiki zutenean. Antza denez, arazoak talde bakar batzuen barruan sortzen dira, eta hori berez ez da nahikoa talde guztien gainean halako damnazioa jaurtitzeko.

Beraz, gutxiengo erlijiosoen mundua itxuraz oso arriskutsua ez bada, zergatik hainbeste zarata eta espantu Wacon? Bate-tik, Koreshen taldearen eboluzioa dela kausa. Bestetik, FBik

egindako kanpaina dela medio. Ustekabea, sekta hitzarekin topo egin dugu eta handik hartako eraginez hondamendia suertatu da.

Chris Hatcher San Franciscoko Unibertsitateko psikologoak aipatzen duenez², talde erlijioso batetik sekta baterako eboluzioa honako hauxe da: lehenik eta behin, kideek buruzagi xarmangarri baten mendean jartzen dute beren burua. Izan ere, halako taldeetan sartzen den jendea bakartia da eta lur jota dago, eta gidari bat behar du. Berehala, taldearen ideologiak borroka armatua goraipatzen du, honek taldearen lokarriak sendotzen dituelako.

Horrez gainera, taldeak etengabe behar du ekintza eta kitzikapena. Kultoaren une larria, erabakiorra, momentu honetan gertatzen da: buruzagiak —edo taldekideek— erabakitzen duenean taldeak bere burua defendatu *behar* duela kanpokoan mehatxuaren aurrean. Koreshen jokaera halakoxea izan da: melodrama prestatzea taldekideentzat, indarkeria ezinbesteko bihurtzeraino.

Baina sektaren kontua ez da nahikoa Wacoko indarkeria azaltzeko. Horretarako, gertutik aztertu behar da erakunde ofizialen jokaera. Polizia federala entrenatzeko eskuliburuetan «sekta» hitza buruzagi baten azpian dagoen jendeari lotuta agertzen da. Brainwashinga, taldekideen nortasun-galtzea aipatzen da sekten ezaugarri gisa. Ondorioa ezin argiagoa da: sektak gizartearentzako kaltegarriak direla diote polizi entrenatzaileek.

Robert Hicksek diotenaren arabera³, gutxiengo erlijioso bat sektatzat jotzen denean taldea komunismoaren sindromearen pean jausten da eta kideak kriminalak bailiran agertzen dira. Gaur egun, gaiaren ikertzaile askok susmatzen dutenez, «sekta» hitza gehiegi erabilita dago, eta kasu jakin batzuetan bakaerriki da egokia. Sekta hitza erlijio arrunta daukagunok besteez bereizteko marka da, distantzia babesgarri bat sortzen duena. Honenbestez, Wacoko kasuan sekta hitza erabiliz, taldea kriminalizatuta zegoen lehen-lehendik. Ondoren egindako lana justifikazioa izan da.

Wacoko istiluan sartuta zegoen buruzagiordearen abokatuak salaketa gogorak egin dizkio FBIri. Gizon honen arabera, FBIren aitzakiak eragingailu emozionalak ziren: umeen tratu txarrak aipatzen ziren, taldekideen planak beren burua hiltzeko FBIk erasoari ekin baino lehen... Ordea, bizirik irten diren ukatu egin dute inolako planik zegoenik beren buruaz beste egiteko. Bestalde, inork ez du frogatu umeek bortxaketa sexualik jasaten zutenik, ezta taldekideak bahituta zeudenik ere. Kontuak kontu, FBIk Estatu Batuetako fiskal nagusia konbentzitzeko erabili dituen aitzakiak oso argalak izan dira.

Honi adituen kritikak gaineratu zaizkio: negoziazioa behar ez den moduan egin dela... Wacon ez da inolako negoziazorik egon. FBIren ustez, talde-buruak Jaungoikoa zela uste zuelako. Horrela, FBIk erabilitako taktikak frustrazioaren adibide baino ez dira izan: zarata zoli eta burrunbatsuetatik hasi eta eraso mingoraino helduta. Arrazoiak era askotakoak ditugu. Estatuak egunero milioi bat dolarreko gastua egiten zuen Wacon. Estatuko abokatuak kasu legal sendorik bilatu ezinik zebiltzan. Koreshek 200.000 dolar gastatuak zituen armatan. Poliziaren posizioak babesgabeak ziren... kontu guzti hauek FBIren eroapena higatu dute eta azken eraso erraztu.

Wacon gertaturikoa beste kasu batzuei lotuta azaldu da: setioaldi tragikoei eta indarkeriazko kultoei, hain zuzen ere. Komunikabideek Charles Manson, Wounded Knee, Jim Jones abadea, etab. nahasi dituzte zerrenda tragiko batean Wacoko istiluarekin batera. Zerrenda ilun horretan erakunde ofizialek goiak eta beheak nahasi dituzte beren hutsak zurrizteko. Politika, erlijioa eta paranoia loturik azaltzen dira sarraskiaren izendapenean. Zer dela eta, bestela, masakre indiarrak (Wounded Knee) eta zoroen istorioak (Manson familia) saltsa berean paratzea?

Honek alarma jo beharko luke jendearen gogoan. Izan ere, indarkeria-kontuak aipatzen direnean, elkarrekin pilatu ohi dira komunikabideetan. Jadanik kontua ez da zer-nolako arrazoiak egon daitezkeen gertakizun bortitzen atzetik, baizik eta zer-nolako efektuak sortzen dituzten jendaurrean. Gogoetak sin-

plifikatu egiten dira ikuskizunaren mesedetan, dena zaku berean sartuz.

Ikusi besterik ez dago zer gertatzen den nazioarteko terrorismoaren kontzeptuarekin EEBBetan. Hori dateke azken urteotan gehien erabilitako kontzeptu bat mass-median. Terrorismo hitzak itzal handia dauka komunikabideetan, hainbestearaino non komunismo hitza estaltzea lortu duen. Halaber, terrorismoa dugu hitz gakoa gobernuak kontrataturiko adituen ahotan. Aski da musulmandarrei buruzko aipamen xume bat halako taldeen mehatxu fanatikoa jendearen burmuineraino sartzeko⁴.

Argi zegoen Wacokoa ez zela terrorismoa. Beraz, beste ana-tema bat eman behar zitzaion egoerari, horrela deabru guztiak Koreshen gainean ezartzeko. Adituek *cult* (sekta) hitza aurkitu zutenean, bazekiten zer aurkitu zuten talde erlijioso hura izendatzeko eta kondenatzeko. Hitzaren ahalmen magikoa dugu jokoan berriro: terrorismoa ez bada ere, sekta. Izendapenak erabaki du prozesu osoaren bilakaera bortitza FBIren ekintzei bidea emanaz.

Koreshen apokalipsia ez da berea bakarrik izan. Egundoko apokalipsi hori prestatzeko laguntza ederra jaso du komunikabideetatik eta kanpoan setioa egiten ari zirenengandik. Badi-rudi denak zeudela apokalipsiaren liluraren mende. Apokalipsiaren ideiarekin jolasean ibili eta azkenean benetako apokalipsia gertatu behar. Zeren eta hitza ekintza bihurtzen denean, inork ez du tragedia geldiarazterik.

APOKALIPSIAREN MEZUA ETA KOMUNIKABIDEEN JOKAERA: APOKALIPSIA NEGOZIATZEN.

Apokalipsiaren lilura aipatu dugu. Izan ere, lilura hori ez da izan Dave Koresh talde-buruzagiaren erokeria soila; aitzitik, prentsak, telebistak eta jende arruntak ere parte hartu dute gatazkan. Wacoko apokalipsia eszenario fabrikatu bat izan da, ondo baino hobeto eraikia, Koreshen taldea isolatu eta aukerarik nemiñoenean haren kontra ozartzeko. FBIren ekintza

baino egun batzuk lehenagoko aldizkari-egunkarietako titularrak ikusita argi eta garbi dago zer gertatu behar zen: «*Cult of death*» «*The end is near?*» (*Time*). Zertaz harritu, bada, suak eta garrak dena deboilatu badute?

Koresh eta FBI bi hizkuntza ezberdinez mintzatzen ari zirela aipatu da. Federalek pertsona bahituak eta indarkeria aipatzen zituzten; Koreshek, Biblia eta apokalipsia. Wacoko jendea sekta apokaliptiko bat zela esan orduko, FBIk eta komunikabideek lan ederra egin dute ideia hori sendotzeko. Sekta hitza erabakiorra izan bada ezinbesteko izendapen bat emateko, apokalipsiaren irudia ezin hobea izan da sektaren patua erabakitzeko. Apokalipsi hitza ezin erakargarriagoa da USAko komunikabideetan, zinean eta literaturan maiz azaltzen delarik. Wacoko kasuan, berriz, aipamen huts batez aski izan da prozesu bortitzari jaregiteko.

Ikus dezagun, bada, nola kontatu dizkiguten Wacoko gertakizunak amerikar komunikabideek. *Time* aldizkariak amaiera apokaliptikoaren aldeko apustua egin du hasieratik. Besteak beste, «*Further delays in ending siege*» (Atzerapenak setioaldia amaitzeko), eta «*Waco Messiah*» bezalako titularrak joera apokaliptiko horren erakusgarri dira. Badirudi aldizkariak Koresh atezinez atakan ipini nahi zuela hasieratik: «*Koresh and his followers fervently believe he is Christ, and till death do them part*» (Koresh eta bere jarraitzaileek bera Kristo dela sinesten dute harik eta heriotzak bereizten dituen arte) (Martxoak 15).

Time-ren mezua gai honen inguruan ibili da etengabe. «*Biblia benetakoa bada, orduan ni Jesukristo naiz*» (Koreshen hitzak) berehala sailkatzen dira tradizio apokaliptiko honetan. *Time*-ren ustez, Koreshek jendea erakarri zuen Texaseko herrira munduaren amaierari itzaroteko, beren lekua *Ranch Apocalypse* izenaz birbataiatuz. Mezu honi jarraikiz, Koresh martiri izango zen, eta sinesgaitzen aurkako gatazkan hil eta gero zeruan elkartzekoa zen jarraitzaileekin, hauek beren bizitza buruzagiaren alde eman behar baitzuten (*Time*).

Wacoko sekta teologia apokaliptiko baten ondorio okerra dela adierazten zuenean, *Time*k apokalipsiaren inguruko erre-

torika zerabilen. Posibilitateak gero eta sinesgarriagoak ziren: «*Koresh may be ready to die as well*» (Koresh hiltzeko prest egon liteke). Hasieran gerta litekeena, azkenean gertatu beharrekoa zen.

Apaingarri gisa edo, *Time*-ko idazleak prest zeuden azken momentuen kontaketa aipu biblikoaz zipristintzeko: «*Eguzkia ez zen ilundu, ezta ilargia gorritu, baina mundua amaitu egin zen, beren profetak esan bezala AMAIERA atariraino hurbildu zitzaizen tanke, gas, eta profezia betegarrietan*».

Ondorengo aipuak (Leizarragaren itzulpenaz) hitzez hitz aterata daude *Time*-ren erreportajetik, FBIren ekintza deskribatzeko: «*Eta baldin nehorc haey gaizquiric equin nahi badraue, sua ilkiten duc hayen ahotic, eta iresten citic hayen etsayac*» eta «*...guerla equinen dic hayen cotra, eta garaiithuren citic eta hilen*». Sua eta sugarrak etengabe aipatzen dira erreportajearen: «*Eta har cecan Airgueruac encensera, eta bethe cecan hura aldareco sutic, eta egotz cecan lurrera..*».

Sarraskiaren ostean Koresh-Messiagandik Koresh-Deabruagana igaro gara: «*Eta hec seducitze cituen deabrua, iraitz cedin suzco eta suphezco stagnera, non baitirade bestia eta propheta falsa: eta tormentaturen baitirade egun eta gau secula seculacotz*».

Koreshen kartak, Koreshen ekintzen eta esanen deskribapenak (beti ere zeharka aipatuak), azken egunetako bizitzaren inguruko gogoetak, baita sarraskiaren deskripzioa ere, denak izan dira apokalipsiaren inguruko gaiak eta irudiak aldizkari honentzat. *Time*-rentzat Koresh profeta faltsua izan da, besterik gabe.

Time aldizkariaren Bibliazaletasuneraino iritsi gabe, *Newsweek* aldizkariak «*Day of Judgment*» (Judizioaren eguna) eta «*Children of the Apocalypse*» (Apokalipsiaren haurrak) bezalako titularrak erabili ditu sarraskiaren ondorengo egunetan. *Newsweek*-entzat, benetako apokalipsia gertatu da jende horrentzat. Apokalipsia haien bizitzak normaltzeko bidea izan da. Koresh gaiztoa hil zen, baina hondamenditik salbatutako umeak errugabeak dira, eta zorionez gizartean txertatuko dira.

Era berean, komunikabide gehienek ezin eutsi izan diote joera apokaliptiko honi eta apokalipsiaren irudiak erabili dituzte egoera deskribatzeko. Sektaren aurkako milaka erreportaje erasokor alde batera utzita, honako hauek aipa daitezke:

«*Negotiating an Apocalypse*» izenburua ematen dio artikulu bati *Christian Century* aldizkariko idazleak. Honek ere *Time*-ren urratsei jarraikiz: «*Nor da digne irequi decan liburua, eta lacha ditzan haren ciguluac?*» ekarri digu gogora Koreshen hasierako eromena aipatzeko. Geroago, «*Nic egarri denari emanen drau - cat vicitzeco ithur uretic, dohainic*» tankeen sarre r a rekin batera. Bestalde, jarraitzaileen itsukeria salatzen haxe erabili du, alegia, haiek sinesten zutela Koreshen «*ceru berribat eta lur berribat*» eman ziela.

The New York Times egunkariak zabalduko ideiak beste-lakoak izan dira. Funtsean sektaren indarkeria eta talde politiko marjinalak batu ditu. *Cult* hitza erruz erabili du, ordea, eta horrez gainera, «*Apocalypse in Waco, ...the End of the World for cult members...*» titular errazen tentazioan limurtu da.

Aldizkariak eszenarioa apaindu badute, telebistako irudiek ekintzaren irrealtasuna azpimarratu dute. Izan ere, telebistako irudiek beharrezko zuten tragedia. Telebistako drama guztiak bezala, zer edo zer irrealak izan da Wacokoa ikuslearentzat. Protagonista nagusi bat, Koresh, izan da arotagunea eta horrek eta egoeraren kinka larriak eman dio baliagarritasuna istilu guztiari, ikuskizunaren aldetik. Bestalde, sugarrak klimax ezin hobea suertatu dira ikuslearentzat, *show-bussines*-eko apoteosi gisa.

Orain dela urte batzuk Jim Jones abadeak bere taldearekin batera bere buruaz beste egin zuenean Guyanan, telebistako erreportariak urrun zeuden hilketa-lekutik. Orobat gertatu zen 70-80 hamarkadetakoa gertakizun odoltsuetan: Wounded Knee, Simbiotic Liberation Army, etab. Orain 90eko hamarkadan sartu gara eta ekintzak, gertakizunak, telebistaren dramatizazioan sartu dira ikuslearen gogoan betetzearren.

Izan ere, ikusleak ez ditu aski zinema-pantailan ikusten dituen gerla-ekintzak. Vietnameko irudiak —Apocalypse Now, Rambo, Platoon— ditugu honen adibide argia. Koreshek berak halako bazka ematen zien jarraitzaileei azken ordurako pres-tatzearren: *Full Metal Jacket*, *Platoon*... Errealitatea eta fikzioa nahastuta. Piztia, deabru asko izan dira azken urteotan tele-bistan eta zineman: hasi Jomeinigandik eta Saddam-Satan Husseinenganaino.

Hala eta guztiz ere, irudizko bazka hori ez zen nahikoa in-darkeriari eragiteko. Horretarako, armen presentzia errealak fik-zioa benetako bihurtu behar zuen. Hein handi batean, Koreshen taldeak armak metaturik edukitzeak setioaldiaren eboluzio bortitza erraztu du. Batez ere, aurrez aurreko etsaia ere armaturik zegoelako, erasotzeko prest.

Hori ere ez da harrigarria Koreshek erabilitako armak eta taktikak amerikar gizartean sustraituta daude. Idazle batek i roniaz eta zinismoz esaten zuenez, NRA —*National Rifle Associa-tion*— elkarteak pozik egon beharko luke Dave Koreshen jokae-raz, armak kontrolik gabe pilotzearen politikaren bultzatzailerik sendoena suertatu delako. Wacoko lagunek era guztietako armak jasotzen zituzten postaz: tankeen aurkako armak eta esku-granadak ateraino eraman dizkiote Koreshi.

Wacoko kasua minbizia izan da arma-kontrolaren aldetik. Gehiegi hazitako munstroa, poliziari eskuetatik ihes egin diona. Bestalde, komunikabideek «interpretazio» apokaliptiko hori eman diotenetik, FBIren ekintza aise joan da. Koreshek eta FBIk antzera jokatu dute, Koresh galtzaile izatea.

Nolanahi ere, ikusleak eta amerikar gizartearen zati handi batek joera apokaliptiko hori etengabe onartzen/eskatzen dute. Joera horrek klabe batzuk biltzen ditu bere baitan. Joera horien azpian apokalipsiaren lilura datza. Ikusitakoak ikusita, puritanismotik sortua den gizarte amerikar honetan inon baino indartsuago ageri da Joanesen apokalipsiaren itzala. Eta honek bere gisako erretorika dauka.

APOKALIPSIAREN ERRETORIKA EEBBETAN

Wacoko kasuak apokalipsiaren erretorika Estatu Batuetako gizartean noraino sartuta dagoen adierazten du. Barry Brummett idazle amerikarrak bere azken liburuan dioenez⁵, Ameriketako gizarteak muin-muineraino bereganatu ditu apokalipsiaren erretorika-erritualak. Brummetten liburuari jarraikiz saiaturako gara azaltzen nondik nora doazen joera horiek eta zer-nolako eragina duten USAko bizimoduan.

Lehenik eta behin, Brummettek sistematizatu egin ditu apokalipsiaren ezaugarriak:

1. Erabateko aldaketa gertatu behar da joera apokaliptikoak ager daitezen. Erakunde sozialak goitik behera iraultzen dituen aldaketa, hain zuzen ere. Egun, gora eta behera ari da amerikar jendea nazioaren zorra, langabezia eta krimena dela eta. Aldaketa hauek gizartearen sus-traiak erauzteko zorian daude. Los Angeleseko gertakizunak hortxe kokatu behar dira.
2. Aldaketa ustegabekoa da, eta nola ez, negatiboa. Zapalkuntza, tortura eta heriotzari lotua azaltzen da sarritan. Ameriketako jendea hau sinesteko prest dago. Oraindik orain, predikari apokaliptiko batek hiru milioi ale saldu ditu munduaren amaiera iragartzen duen liburu bat idatzita gero. Zenbat pistola ez ote dira saltzen minuturo EEBBetan?
3. Aldaketa hau ezin azalduzko aldaketa da, eta honenbestez, interpretariak behar ditu, gidariak. Beti behar da apokalipsiaren *revelationea* egiten duen profetaren bat, gizagaixoak bide onera gidatuko dituen. Hortik datorke eliza tradizionalari muzin eginik, profeta berrien eskuetan jausteko tentazioa. *New Age*, psikologia berriak... joera horren adibide dira.
4. Aldaketarekin batera giza ordenuaren porrota dator, betiko balioen hondamendia. Orain arte balio zuenak ez du jadanik ezertarako balio. Handik suertatzen dira giza larritasuna, giza etsipena. Hala nola, orain urte gutxi

New Yorkeko burtsaren porrota izan zenean. Lan egitea eta dirua aurreztea badirudi atzeraka doazela giza balioetan.

5. Anomia da ezinbestean apokalipsiaren eragile bat. Egitura gabeko gizartean bizi den gizakiak beldur ikaragarria dio etorkizunari; ezeri eusteko gauza ez dela, okerrera gain-gainean duela sinesteko prest dago. Estatu Batuetako gizartea sustraibakoa da gehienbat, komunitate-lokarri gutxiarekikoa, eta lurrik onena da halako anomia gartzeko. Kontuan hartu behar da amerikarrek batezbeste hogei aldiz aldatzen direla etxez eta herriz bizialdian zehar.

Brummetten arabera, apokalipsia egoera psikologikoa da, norbere buruan dago eta ezin da objetiboki neurtu. Apokaliptikoa bere ikuslegoari zuzentzen zaio hauxe esanez: «*Hara! Zeu ere konturatu zara eta larri zabilta, ezta?*» Izan ere, ezezkorra beti konturatzen da gauzak txarto dabiltzala.

Bi apokalipsi-joera daukagu jokoan, milurtekoaren aurrekoa eta milurtekoaren ostekoa. Lehena indibiduala da, eta erabateko aldaketa eskatzen du. Honen arabera, mundua oso gaizki dago eta konpondu beharrekoa da. Horretarako, apokalipsiaren indarrak munduaren ajeak suntsitu behar ditu, etorkizun hobea ekartzeko.

Milurtekoaren osteko apokalipsia komunala eta progresista da. Era berean, baikorra. Zientzia-tekniken bidez, mundua aurrera doa, historiaren azken helbururaino zuzen. Ondorengo urteak aberastasunez eta hazkunderaz beteak izango dira. Apokalipsia historiaren azken ekintza handitsua izango da.

Munduaren desordenua agertzen du apokalipsiak. Baina kontraesana badirudi ere, apokalipsia mundua berriz ordenatzeko mekanismoa da, denbora eta historiaren egituren bidez. Apokaliptikoentzat, historia lineala da, helburu bati begira zuzendua eta berez perfektua. Dena dago erabakita (Jainkoak erabakita, jakina). Hori ulertuz gero, denak zoriontsu.

Historiaren helmuga betea dela esan digu Francis Fukuyamak, komunismoaren porrota ren laudorioa ginez. Postmi-

lenarista honek historiaren amaiera iragarri zuenean, liberalismo (kapitalista)ren izenean mintzo da. Dirudienez, gizakia liberalismoari atxiki beharko zaio, munduan aurrera egingo badu. Komunismoaren porrotaren ostean historiak bere amaiera aurkitua omen du, perfekziora heldua da, eta aspalditik hasitako zikloa amaituta dagoke. Jakina, horretarako liberalismoaren printzipio sakrosainduak geureganatu egin behar, Fukuyama jaunaren arabera.

Joera apokaliptiko horiek Ameriketako gizartean isladatzen dira. Hori dela eta, era guztietako apokalipsiak ditugu, bakoitzak bere profetak dituelarik:

American Dream-en apokalipsia. Ameriketako ideia apokaliptikorik bortitzenak Californian daude. Jadanik ez dago muga konkistatzeorik eta lurra ustiatuta dago. Joan den mendean Estatu Batuetako Mendebaldeko lurrak paradisuarrak baziren ere, gizaldi honen amaieran hango hiriak eta herriak errautsita daude, akiturik, eta haien biztanleak kutsaduraz, estresez eta bortizkeriaz hiltzeko zorian.

Gerlako apokalipsia Vietnam-eko gerla, *napalm*-a... tradiziozko apokalipsiak izan dira amerikar belaunaldi oso baten zat. Komunistekin batera. *Gorbatxev! Has the Real Antichrist Come?* (Benetako Antikristoa etorri ote da?) Sobiet Batasuneko gertakari latzen garaian oso ikur nabarmena suertatu zen apokaliptikoentzat. Lehenago, Khomeini ayatola bezala. Era berean, Golkoko gerran joera militaristaren zaleek Saddam Hussein Antikristoa zela zioten.

Apokalipsi ekonomikoa. *Bankruptcy 1995, The Crash of 89, The Crash of 79...* ekonomia beti larri dabil, nahiz eta Reagan-Bushen urteetan denak pozik ibili... dirua alferrik xahutzen. Errekurtsoen urritasuna eta japoniar-alemandarren konkurrantzia dela eta, amerikarren buruan ondo sartuta dago etorkizun ilunaren irudia. *Junk-bond* edo zabor-akzioak izan dira azken urteotako ekonomia ustelduaren hondakinak, gizarte-krisiaren erakusgarri.

Ekoapokalipsia Badirudi lurrak lehertu egin behar duela konponbidea bilatu ezean. Eta honek politikariak ere ukitu

ditu! Gaur egun, Gore lehendakariordeak liburu bat idatzi du gai honetaz, eta joera apokaliptiko horretan sartzen da bete-betean: «*Aurre egin behar diogu nolabaiteko guda zibil orokor bati. Honetan bi alde daude: zibilizazioaren aurrerapenaren ondorioak kontuan hartu nahi ez dituztenak eta suntsipenaren partaide isilak izan nahi ez dutenak*»⁶.

Apokalipsi nuklearra. Gogora dezagun «The Day After» telebideoak sortutako ikara Estatu Batuetan. Reaganen hitz batzuk ekarri behar ditugu aipura Californiako gobernaria zela:

«... Ez da luzaro itxoin beharko. Ezekielek dio sua eta sufrea Jainkoaren herriaren etsaien gainean eroriko direla Horrek esan nahi du arma nuklearrez suntsituko direla. [...] Ezekielek diosku Gog, Israelen aurka ilunbeko indarrak gidatuko dituen nazioa, iparraldetik etorriko dela. Bibliako ikertzaileek behin eta berriro esan dute Gog Errusia izan behar dela. [...] Zentzugabea zirudien, Errusiako Iraultzaren aurretik, Errusia herri kristaua baitzen. Baina orain zentzuzkoa da, zeren Errusia komunista eta atea da, eta Jainkoaren aurka ozartu da. Orain Gogen deskripzioa bete-betean dagokio»⁷.

Aurrekoa irakurrita, zertan bereiztu Reagan eta Koresh bezalako zoro apokaliptikoak? Egoera apokaliptiko hauek bere predikariak behar dituzte. Los Angeles inguruan dituzte beren elizak predikari askok. Halaber, ideologia berri bat: *New Age*. Erabateko ulermena eta batasun izpiritualaren aroa heltzear dagoela diosku honek. Akuarioren garaia. Iluminazioa. Nork bere burua zaintzea. Musika xarmangarriak eta buruiritzia ren onespina. Indibidualismoa modan dago berriro.

Ez da indibidualismoa bakarrik. Predikariek etorkizuna ekonomiaren besoetan jartzen dute. Diru-ondasunak inoiz baino maiteago suertatzen dira. Protestantismoaren oinarrietan sendotzen dira ideologia berriok, eta kapitalismoaren abantailak nahiz kontserbadurismoaren iraultza aldarrikatzen dituzte. Sufritu eta itxaron, Jainkoak dena menperatzen duelako, edota ikasi eta historiaren erritmoari heldu, honen abantailak profitatzeko.

Apokaliptikoentzat arazo guztiak azalduta gelditzen dira, badute zergatia, eta era berean konponbidea. HIESa, hiribar-neko auzoen arazo larriak, bortizkeria, Jainkoaren asmoetan sartuta daude. Batzuentzat, arazoek desastrea eta gizarte berria ekarriko dituzte; besteentzat, jendearen ulermena eta batasuna milurteko zoriontsuaren hasieran.

Konponbide hauek fantastikoak dira, sinestezinak: liberalismoaren printzipioak onartu, ekonomiaren legeak errautsi eta beste gizarte bat (eskuindarra) eraikitzea. Emakumeak, homosexualak bigarren mailako gizakiak, gizaki «okerrak» baitira, haien ustez.

Nolanahiko apokalipsiak ditugu USAn. Dave Koreshek oso apokalipsi arriskutsua aukeratu zuen. Honenbestez, bereak egin du. Baina hortxe daude beste hainbat joera apokaliptiko Estatu Batuetan, azalez laikoak, barrutik erlijiorik zurrune-naren ajeak dituztenak. Profeta faltsuak non-nahi ageri dira, eta jarraitzaile asko dituzte, batez ere, jendea prest dagoelako entzun nahi duena esaten dion bati sinesteko. 2000. urteare n atarian, gero eta aukera handiagoak ditugu apokalipsi berriak ikusteko.

1. Goldman, Ari: «A loaded word?» The New York Times. Apirilak 24, 8. or.
2. «Experts says hostage approach led to bloodshed». The New York Times. Apirilak 21, 11. or.
3. Hicks, Robert: «Cult label made Waco violence inevitable». Pacific News Service. Martxoak 8, 6. or.
4. Zulaika, Joseba
5. Brummett, Barry: *Contemporary Apocalypse Rethoric*. Praeger. New York. 1991.
6. Krauthammer, Charles: «Apocalypse, With and Without God». Time. Martxoak 22, 1993, 82. or.
7. Halsell, G.: *Prophecy and politics: Militant evangelists on the road to nuclear war*. CT: Lawrence Hill & Company. 1986.

GUNEN GURPILEAN

JOXEAN MUÑOZ

UNTITLED
URRUTI
BILDUMAK
ZENBAKIAK

INAKI IRAZABALBEITIA

EEBBen ZIENTZI AURREKONTUA
INFORMAZIO-AUTOPISTAK
OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA
EUSKALDUNOK HIZPIDE

HASIER ETXEBERRIA

ATAUTS. TOLOSAKOEN AHALEGINA
MIGUEL ANGEL IZAN ZEN LEHENA
TXIMINOEN LEHENGUSUA

ELIXABETE GARMENDIA

ZINEAN HUNKIGARRIAGO
EZ GARA HAIN ABERATSAK

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

UMEKERIAK UTZITA
ELKARRIZKETA-LIBURUAK
ELIZAZ KONTU GEHIAGO
NOBEDADEEN ZAIN

BEGOÑA DEL TESO

SCHINDLER'S BELLE EPOQUE
GORA ESPAINIA ERREPUBLIKANOA
MAITE, MAITE, MAITIA...
GAZTEAK ETA TELEBISIOA: ADISKIDETASUN SANOA
TEATROA BUELTATUKO GARA INOIZ?

KIKE AMONARRIZ

HIZKUNTZEN HIERARKIA ETA TOUBON LEGEA
HITZARMEN BATEN INGURUAN
EUSKARA ETA EKONOMIA
MUSIKAREN ERAGINA

ARTEA
ZIENTZIA
KULTURA
GIZARTEA
LITERATURA
IKUSKIZUNAK
SOZIOLINGUISTIKA

ARTEA

JOXEAN MUÑOZ

UNTITLED

Gero eta normalago zaizkigu ingelesezko izenburuak. «Everything is perfect» Bilbon da, aurtengo apirilean, jarriko den erakusketa baten izena. Ez dago zertan harriturik. Ingelesezko esperantoan bataiatu izan dira, baita ere, gure inguruko bideo-eroduktorarik gehienak edota musikaren munduan, «Triki Not Dead» esate baterako, Egin Irratian. O.K.

Euskararen egoera ere gero eta normalagoa da artelanak izendatzeari dagokionean: eskasa. Euskaldunak titulatu ohi du euskaraz, eta ez beti, bere adierazpenaren mintzoa hori gura izan duelako. Gutxi dira; euskaldunak beti gara gutxi. Baina ulertu egiten dituzte, tajuz, artelanari ipintzen dizkioten izenak. Euskara ez zaie exotikoa.

Horretan aurrera egin dugu. Euskara hain kuttuna genuen garaiak ez dira lehen-minez begiratzekoak. Ez du merezi. Iragina da jadanik, Basterretxea-Larrukerten Ama Lurreko azken irudiak gogoratuz, Zuhaitzarena bataia genezakeen aroa. «Gaur», «Hemen», «Orain», «Denok», aldarrikatu zuten artisten sasoia zen, *sustrai bila eta lur berri bila* aldi berean ihardun behar izan zutenena. *Zugar galanta*. Lurrean sustraitzen da zuhaitza, lurra bihurtzen da harri, lurrean ernea da burdina. Lurraren amatasunari zor zaizkio euskal eskulturaren material jator omen direnak. Filmearen azken irudiek, euskaldunarentzat «Artea» zuhaitz bat dela esanaz, etengabeko jira egiten diote «encina» bati. Erderaz egindako aurkikuntza da noski, telebistatik «sagarra-mantzana, ikatza-carbón» kantatzen ohitutako gazteei xelebrea irudi lekieteen. Bitxikeriak, aspaldiko kontu urrunak. □

URRUTI

Euskarak bazuen balio sinboliko bat, batzuek erabili, — mintzatu— eta besteek adoratu egiten zutena. Jakina, misterio sakratua ulertezin izateak egiten du erakargarriagoa eta eramaten errazagoa. Aho batez eskertzen genion Txillidari bere eskulturak mundu zabalean «Ilarik» edo «Abesti Gogorra» izenez erabiltzea, «Ilarik» «ilarriak» ote zen galdetzera ausartzen ez baginen ere. Ordezkatuak sentitzen ginen. Era berean, gureago, testuinguru kultural bat osatzeko ahaleginean sustraituago ikusten genituen Basterretxearen alabastroak Orixere n «Euskaldunak»etik hartutako pasarteez bataiatuak. «Zer esan nahi zuten» kontuan hartu gabe aukeratuak omen zeuden ordea, «belarriari erreparatu». Urrutitik, alegia. Sistiagak bere filme esperimentalari «Ere erera baleiku icik subua aruaren» deitu zion, euskaraz edo, euskara urruti dagoen zerbait dela adieraziz, sentitu bai baina ulertu ez daitekeen kakofonia. «Gero eta urrunago, gero eta jatorrago» diotela dirudi. Horrela, Tolosan ipini berri duten «Atauts» hori, euskaraz *sentitu* ondoren, erdarazko itzulpenean ulertuko dugu: «Puerta del vacío», eta orduan eta izen euskaldunagoa irudituko zaigu gainera, deskuidatuz gero

Laboaren *Lekeitio*-ak ere marinelen barkurik barkuko hizketa urrundik entzuteak sortu omen zituen. Tarteek kutsatutako hizketa da, urruntasunak ezabatutako esangura, oihartzuna berarekin dakarren mintzaira. Baina hizkuntzaren muallan dago Laboa. Orain, tangoaren kadentzia darabil ezpainetan, Rimbaud Lizardiz galdezka azaldu zitzaigunekoa kontatzeko. Urrundik zetorren eta guk Lizardi galdua genuela erantzun behar izan genion. «Emak Bakia» aldarrikatu zuen orduan Atxagak, eta arrotzak ez zion ulertu, harik eta Man Ray-k filme labur dadá baten titulurako hitzak zirela adierazi zion arte. Ulertezina zen heinean uler zezakeen euskara. Bizkarrak harrotuz, irrifar batez, urruntasun guzti horiekin leku bat jaso zuen Atxagaren kuadrilak, esaldi dadá bat egoitza bihurtuz: «Emak bakia Baita». Atea zabaldu, eta Rimbaud konbidatu zuen barrura, salda bat hartu eta hizketan egitera. Euskaraz, frantsesez edo ingelesez.□

BILDUMAK

Arte-bildumak, funtsean, tesoroak dira, gerora begirako kapital artistiko finkoak, ondasun ez bakarrik izpiritualak. Aldi berean, bilduma kriterio egokiz, gusto zorrotzez sortua bada, garai, leku eta abiapuntu desberdineko obrak jartzen ditu harremanetan. Solasean. Elkarrikketa sortu nahi duenak, Olinpoa eraiki behar duenaren oso bestelako estrategia erabiliko du, mugikorragoa, aldakorragoa, biziagoa.

Solaserako bildumaren eredu edo, Bordeleko CAPC eta Akitaniako FRAC erakundeen bildumaren zati bat aurkeztu digu Donostiako KM-k. Hainbat kezka eta mintzagairen inguruan antolaturik datoz artistak eta obrak –industria, denbora, kitscha, feminismoa, etab.en inguruan–, nazioz eta joera artistikoz gaindiko harremanean. Solaskide ederrik ez da falta, gaiak emankorrek gertatu dira behin eta birritan, baina sotoetan liburutegiari dagokion isiltasuna nagusitu dela iruditzen zait. Ez daudela eroso.

Beste isiltasun batek ere harritu nau. Bilduma bertakotasunean eta babesa eman beharrean oinarritzen duen erakundeak Akitaniako bilduma bat dakarkigu, inondik ere akitanoa ez dena. Ez du herri baten artearen erakusleihu izan nahi CAP-Ceko bildumak. Nazioz gairik artegune emankor –eta esankor– bat dute Bordelen, bizia, biziki ederra. Balegoke zer galdeturik, zer astindurik, zer birplanteaturik, gure kultur giro bertanzalegian. Baina ez dugu hizketa egiten. Ez dugu topo egiten erakustokietan. □

ZENBAKIAK

Hitzak ez bezala, numeroak internazionalak dira, esangura zehatzekoak, hotzak eta arrazionalak. Behin kodigoa ikasiz gero hizkuntza ulergarria da, transparentea, baina ametsare nertzak jo ditzake konplexutasunaren poderioz. Arau finkoek erabili beharrekoak dira, eta ez diote sentimenduari tarterik uzten. Frogatu egiten dira, kritika zientifiko baten bidez. Numeroak dira munduaren oinarritzko esperantoa, zientzia eta arrazoia haren salbabideak. Ez naiz gaurko garaiaz ari, argi dago. Sinesmen horiek, artista-talde batek bere burua «Equipo 57» izendatzeak esangura garbia zuenekoak dira.

Bilbon dago ikusgai, Rekalde aretoan, Madriletik ekarri berria. Aukera paregabea da, orain artean bakarra, taldearen lana osotasunez ikusteko. Artea, ikerketa bezala, sistemati-koa da, arautua, arrazionala eta nahi bada hotza, sentimenduetatik urrundua. Sustraiak ez zituzten lurtean, baizik eta zientziarik fedean, denok berdinean eta denok libre egiten gaituen adimenean. Abentura plastiko eta ideologiko bat, Euskal Herriarekin zerikusirik berezia izan zuena. Ibarrola daukat buruan, noski. Eta Basterretxea, garai labur batez amets estetikoan haurride, baina ez burkide, eta Oteiza, gidari teoriko eta akui-lari.

Baina ez nau numeroen nazionalitateak kezkatzen. Matematika bat eta bakarra da, gero hainbat hizkuntza desberdinetan adierazi eta diskutatuko bada ere. Erabiltzeko daude

numeroak, eragiteko. Non, hori beste kontu bat da. Eta ez dio axolarik nongoa den artistak baizik eta non bereganatzen duten haren lana, zein giza taldek, zein kulturak egiten dituen, bere artearen, eragiketak. «Eragiketa» hitzaren zentzu guztietan. □

ZIENTZIA

INAKI IRAZABALBEITIA (ZETIAZ-ELHUYAR)

EEBBEN ZIENTZI AURREKONTUA

Joan den otsailean Bill Clinton-ek, EEBBetako lehendakariak, urrian hasiko den 1995eko urte fiskalerako zientzi aurrekontua aurkeztu zuen. Oro har, diru-kopuruaren igoerak aurrikusitako inflazioari aurre egiteko baino ez da izango. Beraz, Clintonek berak behin baino gehiagotan aldarrikatutako diru-inbertsio handiagoak ahuntzaren gauerdiko ezul bihurtu dira. Clintonen proposamenak kongresu eta senatuaren oniritzia behar du hala ere.

Aurrekontuek ikerketa aplikatua saritu egiten dute oinarriko ikerketaren kaltetan. Inbertsio-igoerarik handienak teknologia zibil berriaren harian egingo dira, informazio-auto-pista izenekoan esaterako (ikus beherago).

Bestetik, ikerketa militarra zibilari gailentzen zaio oraindik, lehenak guztiaren % 53 hartuko baitu. Adibidez, defentsa-ikerketak izango duen igoera osasun-ikerketak izango duenaren neurri berekoa izango da. Hau Clintonek aurretik iragarritakoaren aurka doa eta ondorioz, gerra hotza bukatuta eta EEBBetako lehendakari ustez liberal bat egonik estatubatuarren ikerketa militarrekiko jokabidea aldatuko zela uste zuten inozoak kexu dira.

NASA eta Energi Saila izan dira diru-murrizketan kalte-tuenak. NASAREN kasuan esaterako proiektu guztiak bideratu

ahal izango dituen oso gaitza ikusten da, nahiz eta horietako batzuentzat atzerriko laguntza bildu ahal izango duen. Bestetik oso azpimarragarria da energia nuklearrari buruzko ikerketarako dirua % 25 murriztu egingo dela eta aldi berean berehalako merkatal irabazpiderik ez duten bi erreaktoreri buruzko ikerketak, metal likidozko erreaktore aurreratua eta gasez hoztutako tenperatura altuko erreaktore modularra izenekoei buruzkoak alegia, bertan behera utziko direla. Bestetik, energi eraginkortasuna areagotzeko programak bultzatuko dira. Bide honetatik, Ingurugiroa Babesteko Agentziak inoiz izan duen aurrekonturik handiena izango du eta ekosistemei buruzko ikerketa sakonduko da batez ere.

Osasun-alorrean gaixotasunen prebentzioan jarriko da indarra eta HIES, emakumezkoen bular-minbizi eta tuberkulosiari buruzko ikerketak bultzatuko dira bereziki.

Aurrekontu honen atzean datzan filosofia nabarmena da. Izan ere, EEBBetako administrazioak barne-ekonomia bizkortu eta lanpostuak sortuko dituen ikerketa nahi du; senadore batek esan bezala «teknologia berriek lanpostuak sortu behar dituzte, manufakturan bereziki». Politika honek desadostasunak piztu ditu administrazioaren eta ikertzaileen artean, azken hauek oinarritzko ikerketa kaltetuta gertatuko dela uste baitute. Gainera, administrazioak erabilitako argudioaren oinarriak aski ahulak dira, teknologia berria eta lanpostuak zein ikerketak sortuko dituen alde zaureratsua esatea oso zaila baita.

Azken hamarkadetan gertatukoari begiratzea baino ez dago, zenbat helburu konkretu eta berehalako proiektu erdibidean gelditu diren ohartzeko, galaxien gerra ospetsua esaterako. Beraz, ikerketak errealitateari begiratzea eta horrekin lotura estuak izatea guztiz beharrezkoa izan arren, berehalako erabilpen praktikorik ez ei duen oinarritzko ikerketa ezin da bazter utzi, besteak beste, ikerketa ustez baliogabeko horrek uste gabeko fruitu ederrak ematen dituelako maiz, tenperatura altuko supereroaleak lekuko.

Silvio Rodriguezen kantu bat dator kit burura eztabaida honen harian, mundua ezagutzera abiatzen diren hiru anaiena

hain justu. Kasu honetan betokertzen denaren ereduari jarraitu behar zaiola iruditzen zait. Urrutira baino begiratzen ez duenak errealitatearen harriarekin estropezu egiteko arriskua du eta aldiz, estropezu ez egiteko gertura begiratzen duenak egoeraren ikuspegi osoa galduko du. Beraz begi bat horizontean (ezagutza hutsean) eta bestea lurrean (aplikazio teknologiko hutsean) jarri behar dira. □

INFORMAZIO-AUTOPISTAK

Historian zehar informazioa transmititzeko bideak desberdinak eta ugariak izan dira. Pergaminotik hasi eta paperetik igaroz, informatikaraino ailegatu gara. Bide bakoitzak, unean-unean, informazioa pilatzeko eta atzitzeko balio izan badu ere, informazio-beharren aldaketak informazio-euskarriak eboluzionarazi ditu.

Telematika, telefonía eta informatika elkartzen dituen teknika alegia, informazioa azkar eta urrutira garraiatzeko biderik aipatzen da. Dena den sare telematikoetan informazioaren azkartasuna informazio-kantitatearekin zuzenki erlazionaturik izan da, telefono-lineek muga fisikoak zituzten eta.

Baina hamarkada honetan, zuntz optikozko sareak eraikitzen hasi dira eta bide hauek eskaintzen dituzten aukerak ia mugarik gabeak direla baieztatu daiteke, argia bera baita sare hauetan zehar informazioa garraiatzen duena. Hortaz, informazioa azkar eta kantitate aldetik mugarik gabe zirkulatu daitekeenez, «informazio-autopistak» deituriko kontzeptua sortu da. □

OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA

Montrealgo Protokoloa ozono-geruza babesteko nazioarteko hitzarmena izan zen, antza. Horrela saldu ziguten behintzat. Alabaina, hitzarmena egiatan merkataritza arautzeko baino ez da.

Hitzarmena egin zenean, industria kimikoak ozono-geruza hondatzen uztea oso gogoko zuela esan zuen, baina zera azpimarratu zuen, inongo industriak ez zuela abantailarik hartu behar eta produktu kimiko zaharrak debekatzeko legeak toki guztietan aldi berean jarri behar zirela indarrean. Beraz, hitzarmena industria kimikoari planetaren oinarrizko baliabide bat ez hondatzea errentagarria gerta ziezaion joko-arauak ezartzeko egin zen.

Zinismo hutsa da, ezta? Hala ere, merkatu librearen garai honetan beste aukerarik ez zegoen. Ozono-geruza hondatzen duten produktu kimikoak baztertzeko datak ez ziren jarri ozono-geruzarentzat onena zein zen kontuan harturik, baizik eta industriak aldaketa kalte ekonomikorik jasan gabe egin zezan ziurtatuz.

Azken-data oso gertu dago eta horrekin batera maula egiteko tentazioa ere agertu da. Industriari batzuek klorofluorohidrokarburoen (CFC) merkatu beltza oso begi onez ikusten dute, beren teknologia egokitu ezin izan duten horiek hain zuzen ere. Ikus ditzagun bi adibide.

Europako Elkartean su-itzalgailuetan erabiltzen diren haloiak 1995eko urtarriletik aurrera ezingo dira baliatu eta CFCen kontsumoak 1986koaren % 15 izan beharko du. Baina, joan den otsailean Europako Elkartean 1995ean 2.000 tona haloia eta 26.000 tona CFC inportatzen utziko duela iragarri du. Produktu horiek birziklatzeko eta lehengai moduan usatzeko inportatuko omen dira. Horrek 1995eko CFC-kantitatea 1986koaren % 24 izatea ahalbidetuko du.

Elkartean Montrealgo Protokoloak ekoizpena ez, baizik eta erabilpena mugatzen duela dio. CFC eta haloien ordezkoak sortzen inbertsio handiak egin dituzten konpainiak kezu dira, inportatuko diren produktuak benetan zertarako erabiliko diren kontrolatzerik ez dagoelako beren ustez eta CFC eta haloien merkatu beltzak beraien interes ekonomikoak kalte ditzakeelako. Esaten denez, hozkailu-fabrikatzaile asko ez omen dira CFCren ordezkoak oraindik erabiltzen hasi eta merkatu beltzaren tentaldian egon litezke.

Japoniak bestetik, Montrealgo Protokoloko zenbait punturen aplikazioa atzeratzea eskatu du, bere industria pobreegia «omen» delako ozonoa babesten duten produktuak erabiltzen hasteko. Gainera osasun-aplikazioak eta ikerketa ere aipatzen dituzte aitzakitzat.

Azken finean, hainbat sektore ren epe motzeko interes ekonomikoitsuak baino ez dira zaindu gura.□

EUSKALDUNOK HIZPIDE

Duela gutxi Xabier Arzalluzek hemengoez eta kanpokoez esandakoak Euskal Herriko eta Espainiako politikaren hautsokogor harrotu ditu. Ez naiz ni polemika horren harian sartuko, antzua eta zentzugabea iruditzen zaidalako. Alabaina, Arzalluzek arrazoi-puntua badu, antropologiaren ikuspegitik bederen, hemengoak eta kanpokoak bereizten dituenean.

Bartzelonako unibertsitateko Francesc Calafell eta Jaume Bertranpetit irakasleek *American Journal of Physical Anthropology* eta *Current Anthropology* aldizkarietan argitaratutakoaren arabera, euskaldunok populazio berezia gara gutxienez duela 18.000 urtetik hona. Ezaguna zen euskaldunok munduko Rh negatiboaren proportziorik handiena daukagula eta gainera, ABO sistemaren arabera odol-motak sailkatzean B motakoen maiztasuna oso txikia dela.

Calafell eta Bertranpetitek euskaldunon ADNaren analisi estatistikoa egin dute eta gene-maiztasun berezia daukagula aurkitu dute. Gainera, Euskal Herriaren barnean gene desberdinen maiztasunaren patroia oso nekez aldatzen da. Horrek zera esan nahiko luke, euskaldunok ez garela Pirinioen magaletik inoiz urrundu eta isolatuta egon garela.

Bi antropologo horien arabera euskaldunak azken izotzaldian isolatuta gelditutako populazioaren ondorengoak gara eta genetikoki zein linguistikoki «kutsatu» gabe iraun dugu. Alabaina, isolamenduak bakarrik ezin ditu ezaugarri genetiko horiek azaldu eta ikertzaile katalanen arabera, kultur meka-

nismoek, hizkuntzak barne, azalduko lukete identitate genetikoa gorde izana.

Beraz, zientziaren arabera euskaldunok inguratzen gaituzten Europako beste herrietatik bereizten gara. Alabaina, beste kontu bat da egite zientifiko horren aitzakian eraiki daitezkeen teoria eta praxis politikoak eta horien zilegitasun eta zuzentasuna. Ez gaitezen bada lotsa desberdinak garela aldarrikatzean. Ez besteak baino hobeak ezta gaiztoagoak ere. □

KULTURA

HASIER ETXEBERRIA

ATAUTS. TOLOSAKOEN AHALEGINA

Apirila gogoangarria gertatu zen. Jorge Oteizaren eskultura-lan bat ezarri zuten Tolosako Triangeluaren Plazan. Eskultura erraldoi eta bikain bat, Oteizaren fase esperimentalaren adierazle aparta eta geroago etorriko ziren Kaxa Metafisikoen aitzindaria. Gaztelaniaz *Puerta en el Vacío* eta euskaraz *Atauts* izenez bataiatutakoa.

Azkenengo *Jakin*-en Joxean Muñozek ederki agertzen zuen bezala, lekua erakutsi egiten digu eskultura honek: inguruko etxe eta eraikuntzak begi berriez ikus ditzakegu orain, eskultura berarekin gozatu ederra hartzeaz aparte.

Izan ere eskultura ez da nolana hikoia. Berez txikiagoa bazen ere, Ricardo Ugarte pasaitarrak eduki du Oiartzungo burdin-degi batean handitzeko ardura. Guztira 12 tonako pisua eta 4 bider 5 metrotako luze-zabalera.

Zirkuito zabalago baten lehendabiziko artelana izan da hau. Gero etorriko dira beste hainbat euskal eskultore ren lanak: Ugarte, Basterretxea, Larrea, Anda... eta gainera hiritar zenbaiten bultzadaz. Hala hasi zen Tolosako Abesbatzen Nazio-

arteko Jaialdia eta prest daude eskultura eta euskal artearen kontuarekin gauza berbera egiteko: *Erotzat hartu gintuzten Abesbatzena hasi genuenean eta orain ere halakotzat hartuko gaituzte eskultura hau dela eta, baina guri axolarik ez. Guk gauzak egin egiten ditugu eta ulertzen ez bagaituzte, beraien kal-tetan.*

Finantzabideari buruz ere irizpide miresgarriak erakutsi dituzte: *Edonondik datorren dirua onartzen dugu, baina insti-tuzioetakoak ere, baina horregatik ez gara politikarien menpe jarriko. Berez nahiago ditugu norbanakoen diru-laguntzak, baina horretarako serigrafiak edo erreprodukzioak egin behar baditugu ere.*

Centro de Iniciativas Turisticas, C.I.T.en inguruan bildutako notable tolosarrak dira hala hitzegiten dutenak, eta ez lau txoro-moro. Badakite zerbait bai, oraingoz behintzat, bere herrian kokatzera oso gutxi ausartuko litzakeen moduko eskultura bat dute, herriaren erdi-erdian.

Lan hau ez da, hala ere, Oteizak egindako haren anaia guztiz bixkia. Badu aldaketa bat: altzairuzko plano bat luzatu egin behar izan zaio eskultura erraldoiari, bestela ez baitzen zutik eroso egongo. Ugartek eraman du, esan bezala, handitzearen eta itxuraldatzearen ardura, betiere Oteizaren oneritziak. Aukera ederra eskaintzen du gertaera honek Artearen erreprodukzioari eta plagioari buruz gogoetak egiteko. □

MIGUEL ANGEL IZAN ZEN LEHENA

Kopiatzea, plagiatazea, erreproduzitzea... kezka izan ohi dira bai sortzaile beraiengan eta baita arte-kontuak mass-meditan erakutsi ohi ditugunontzat. Artelan bat erabiltzerakoan, zent-bateraino da norbera manipulatazaile? Non bukatzen da artistaren sorkuntza-jabegoa? Non hasten besteona...?

Tolosan ere kezka berbera piztu zaigu. Pieza hau bete-betean Oteizarena denik esan ote liteke nahiz eta Ugartek parte

hartu?. Halako gertaeretatik ez da Artearen Historian inortxo ere libratu.

Gai honi buruzko oroitzapen bat datorkit gogora: ezagutzen den lehenengo faltsifikatzailea, Miguel Angel Buonarotti izan zen. Hain modan zeuden Cupidoren imajina greko-erromatar haietako batzuk egin zituen berak, indusketetan agertzen ziren estatua-zatietan oinarriturik, eta bere esku bikainez, modeloak baino ederragoak sortu zituen imitaziozkoak.

Nahiko al da ordea, modelo gisa hartutakoa baino ederragoa egitea, artelana norbere rena bihurtzeko? Aski al da iturria aipatzea/aitortzea? Noiz da erreziklajea eta noiz sorkuntza? Zerk erabakitzen du bata ala beste den...?

Galderak baizik ez dira hauek, eta beude horrexetan.□

TXIMINOEN LEHENGUSUA

Eskultura jarri zuten egunean bertan, pozaren erdian, kezka bat ere agertu zen Triangeluaren plazan: baietz egun batzuk barru, eskulturaren burdinak pintadaz josita agertu. Batzuk baietz eta besteek ezetz, Artearekiko errespetua, ondare publikoarekiko begirunea eta abar aipatu ziren han.

Baina gertatu egin da. Spray beltza erabiliz, bere osotasunean eta interferentziarik gabe gozatua izan dadin, derrigorrez bilutsik behar duen eskultura, zikin ageri da. Propio bilatutako galtzairuaren uher gorritzaren gainean, Mierda, KK, Zipaio Cabrón idatzi dute.

Erabateko sintesia. Pintadaren egileari bost axola *zaio Oteiza, C.I.T., plagioa eta Artea bera*. Zipaio Cabrón, KK, Mierda dira proposamenak. Gora geu.

Apustu egingo nuke, zuk zeuk irakurle, nik neuk bezalaxe, erraza daukazula oso, egilearen erretratu robota egitea. Eta halaxe gabilitza, ustez aurrera joateko indarririk gehien egiten dutenen erruz, atzeraka. Berriro ere arbolara igotzeko zorian.□

GIZARTEA

ELIXABETE GARMENDIA

Hurrengo mendean, baldin eta eskoletan oraindik bertako historia irakasten bada, Gasteizko gaztetxoek «Cuerda-aroa» izango dute ikasgai. «Izan zen alkate bat, hiria aide atzera-koietatik urrundu eta modernitatearen bidean jarri zuena, berdegunez zipriztindu eta garaiko gizarte politika aurrera-koien aitzindari egin zuena...». Dagoeneko halako aipamenei jabe egin da José Angel Cuerda, eta azkeneko kolpeak, ezkondu gabeko —eta legez ezkondu ezinezko— bikoteen erregistroa zabaltzeak, inbidiaz utzi gaitu ustez toki kosmopolitagoetan bizi garenok. Cuerdoak, den alderdikoa eta ingurukoa izanik, ez dakit noraino tira egin ahal izango dion sokari, baina orain arte behintzat ez duela aukerarik galtzen erakutsi du. Gainera, berea ez da kolpe efektistez soilik egindako politika, koherentziaz osatzen den puzzlea baizik.

Lehen nioen bezala, inbidiaz gaude bada beste batzuk, Mesetatik baino Frantziatik gertuago egon, alkate sozialista izan eta eztabaidarik sutsuenetarikoak —alkateordearen ekimenez gainera— zezen-plaza bat eraikitzearen inguruan izanez behin eta berriro. Luzera begira, dena den, zirrikituren bat zabaldu liteke Kantaurialde honetan. Izan ere, zoriak laguntzen badu, emakumez osaturiko hautagaitza baten ordezkariarik izango da hurrengo agintaldian Donostiako Udalean. Dagoeneko, hiriaren gobernuak eskatzen dituen gai txiki eta handi guztiei erantzuteko programa lantzen ari dira «Plazandreok», ez baitira joango hauteskundeetara errosario feminista aletzera bakarrik, hiriaren behar guzti eta bakoitzari emakumeen ikuspegitik heltzekotan baizik.

Erronka ez da txantxetakoa. Politikagintzan emakumeen alderdi edo talde gisa aritzeko aukera planteatu den orotan, eztabaida ugari piztu izan du auziak feministen artean, gauza bat baita feminista izatea eta beste bat res publica-ra ardatz

horretatik abiatzea, gizartearen atal guztiei ikuspegi horretatik begiratzea.

Urrats hori ematera ausarturik, emakumeen hautagaitzak pasa beharreko lehen ataka aurriritziak haustearena izango da. Zera gertatzen baita, feminismoaren zenbait aldarrikapen noranahi zabaldu bada ere —eta horren adierazgarri Martxoaren 8a, duela urte batzuk feministek bakarrik ospatzen zutena, irratico diska-eskaintzetaraino iritsi izana—, oraindik errezeloz begiratzen zaiola feminista etiketa daramanari.

Onenera jota, Udaletxean ordezkariarik izatea lortzen badu emakumeen taldeak, testimonialismoaren tentazioarekin topo egingo du ezkerrean, eguneroko txikikeriatan galtzeko arriskuarekin beste muturrean. Ziur, hori bai, «pepito grillo»arena egitea suertatuko zaiela ia beti, eta alderdi horretatik ez dira udalkide erosoak izango, nola eta ez dioten denak Cuedaren bideari ekiten.□

ZINEAN HUNKIGARRIAGO

Begoña del Tesoren baimenarekin, zinearen arloan jarri nahi nuke oina, baina abiapuntu gisa bakarrik, «In the name of the father» filmea aitzaki. Bertan Jim Sheridanek, egungo zinemagintzaren baliabiderik indartsuenak erabiliz, «Guildfordeko Lau»en kasua kontatu digu. Ikuslego oso zabalera iritsi delarik pelikula, seguraski gehienek ez zuten lehendik Britainia Haundiko polizia eta epaileen errakuntza honen berri izango. Era berean, ez dute ezagutuko «Birminghameko Sei»en kasua ere. Istorioa benetakoa ala fikziozkoa den jakin gabe, erraietaraino hunkituta sentituko zen bat baino gehiago, eta filmearen bukaeran Guildfordeko presoetako bat Kennedytar batekin ezkondata dagoela jakiteak emango zion zenbaiti kasua errealitatearekin lotzeko aukera.

Irlandarrokin zeharo errukituta genbiltzan egun beretsuetan, Nafarroako Gazteen Kontseiluko presidentea era negargarrian azaldu zen komisariatik bueltan. Gertakari honen eta Guildfordekoaren artean dauden aldeak ahaztu gabe, Sheri-

danen obrak zirrara egin zien guzti horietatik, zenbatek erreparatu ote dio beste istorio polizial honi? Zenbatek hartu ote du aintzat? Hedabideei leporatu geniezaieke errua, baina ez litzateke egia, ez osoa behintzat, irakurri, entzun eta ikusteko moduan azaldu baita Iribarreni gertatua. Zerk eragiten du hortaz urrutikoa hain bizi eta sentikor eta bertakoa hain lausoturik jasotze hau?

Pista bat haxe litzateke: gogorkeriarekin elkarbizitzearen fakturetako bat ari garela ordaintzen. Gogorkeriak, ohizko bihurturik, kamustu egiten du sentiberatasuna; orain eta hemen, ETA ren nahiz poliziaren biktimekiko sentiberatasuna. Norberaren jarrera eta iritziek badute noski zerikusirik sentiberatasun hori izatearekin edo ez izatearekin, baina horrezaz gain gertatzen da galera, guztiongan, tantaka, ezarian. Gainerantzean, zinearen sugestio-ahalmenari egotzi behar ote diogu bada bikoiztasun hori: bihozpera Guildfordeko Lauekiko, sor eta gor hemengoekiko. □

EZ GARA HAIN ABERATSAK

Geroz eta jatetxe gehiagok iragartzen dituzte egunkarietan, asteburu eta festa egunetarako, bizpahiru aukeratako menuak salneurri jakinetara: hainbeste gehi BEZ. Ez dira eguneko menuak, «lujuzkoak» baizik, jatetxe batera kapritxoz joan ohi zarenerako. Horrekin batera, enpresariekin lan egiten duten jatetxeek ere menu itxiak, batez ere prezioa eraldetik, eskaintzen hasiak dira.

Iparraldean aspaldi finkatua zegoena iritsi zaigu Hegoaldera, krisiak ekarrita, zalantzarik ez, baina mesedetarako.

Izan ere, garai bateko koadroak zail izango duzu orain ikustea: ahobeteko purua, zerbitzariak ekarrirako kontuaren azken lerroari doi-doi begiratu, to, bilete handiak kobraketarako. Kartako prezioei gehiegi begiratzea, azken batuketari garrantzia ematea, edukazio txar edo zekenkeriatzat jo zitekeen. Hori leporaino bete eta gero, behin jatetxe batera joanez gero ezin baitzitekeen plater bat edo bi bakarrik eskatuta gelditu ostala-

ria ren zeharbegirada jasan gabe. Sablazoak, afaria mikazte-rainokoak izan arren, disimuloz hartu behar ziren.

Gauzak aldatzen ari dira, zorionez. Hasteko, askoz mal-guagoak dira orain maitre lanak egiten dituztenak: plater bat biren artean banatzea eskainiko dizute, postrerik ez nahi iza-tea ulertu edo okel-arraia derrigorrean jan beharrean, entsa-ladaren ondoren arroza hartzea oniritzi. Dietarekiko kezkek badu zerikusirik aldaketan, baita gustoen aniztasuna onar-tzeak ere. Eta diruari begiratu egiten zaiola aitortzea ez dago gaizki ikusita.

Italiar, txinar, etabarren eskutik etorritako jatetxe merkeen arrakastak jo du turuta. Toki goxoak izan ohi dira gainera, bikote batek afari intimoa egiteko modukoak, horrek ematen baitu jatetxe baten kera neurri handian. Alegia, prezio onak iza-teagatik ez daukala tokiak zertan kutrea izan, eta alderantziz, salmoi koloreko mantelek eta garizuma baino izen luzeagoko kartek ez dutela salneurriak zeroz gizentzea justifikatzen.

Krisiak arrazionalizazio bidean jarri gaituela dirudi, ohar-taraziz ez garela uste bezain aberatsak, txanponak ez dauz-kagula harrika botatzeko. Eta hala ere, jatetxe batera joatea gizarte-ekintza ere baden neurrian, ez daukagula zertan plazer horri uko egin.

Gero, hor, goiko apalan, egongo da beti —ahal duenak ahal duenean joateko— sinadura eta guztiko sukaldaritza, sortzai-leena, orain esaten zaion bezala. Horko platerak kotizatu litezke jatorrizko obra modura. Arazoa, serigrafiari jatorrizko obra-ren prezioa jartzen zaionean dator. □

LITERATURA

XABIER MENDIGUREN

UMEKERIAK UTZITA

Haur-literatura ezerezetik gailurretara iritsi da urte gutxitan gure artean. Besterik litzateke, tontor horiek sendo eta irmoak diren ala, oinarri ustel samarra izanik, miseriaren gailurrak izan ote litezkeen, harako hark zioen legez. Dena dela, zenbakiak hor daude: 1976an ez ziren hamarrera iristen urtean haurrentzat ateratako liburuak (euskal liburuak guztira 100en bat); gaur egun, berriz, hirutik bat, guztira 300, gutxi gorabehera.

Azterketa sakonagoak beste baterako utzita, argi ikus liteke haur-literaturara oso kontu serioa dela, haurrek ondo pasatzeko egina izan arren, edozein ikuspegi erabilia ere: industrialia, pedagogikoa, literarioa... Eta egin ere gero eta sarriago ari dira egiten analisi, ikerketa eta azterketak. Garai batean Andu Lertxundik eta orain urte batzuk Xabier Monasterio/Seve Calleja bikoteak egindako lanak ezkeroztik, aspaldi honetan haur literaturaren gaineko hainbat argitalpen aurkitu ditugu eta horien berri eman nahi genizuke, interesik baldin baduzu nora jo jakin dezazun.

Iaz, Labayru Ikastegiak bere Gauontza sailean *Haur literatura* izeneko liburua kaleratu zuen, aurreko urtean egindako ihardunaldietako hitzaldiak jasota. Aurten ere, halako biltzar eta hitzaldi-sortetako emaitzak biltzen dituzten beste bi publikazio kaleratu dira: batetik UEUK Iruñeko ikastaroetako fruituak eskaini ditu, eta *Hegats* aldizkariak bere 9. alean iazko urrian Gasteizen egindako ihardunaldietan esandakoak papearreratu dizkigu. Artikulu askoren bilduma osatzen dute denen artean, batzuk interesgarriagoak beste batzuk baino, eta egile berak ere behin baino gehiagotan topatuko dituzu, batean eta bestean. Hauen artean bat bereizi nahiko nuke: Juan Kruz Igerabide. Hainbat artikuluz gain, liburu oso bat ere eskaini dio gaiari: *Bularretik mintzora*. Eta hori baino inportanteago: ez da hausnarketa teorikoan geratu; aitzitik, azken aldiko haur-literaturako emaitzarik polit eta interesgarrienetakoak berari zor dizkiogu. Berandu hasi zen adunar hau haurrentzat idazten, aurretik poesiaren barrutian barrena baitzebilen —utzi ere utzi ez duen barrutia—, baina azken boladan haurren-

tzako bost sorkuntza-lan plazaratu ditu, bi poema-sorta eta beste hirurak narratibazkoak. Bejondeiola!□

ELKARRIZKETA-LIBURUAK

Ez da ohizkoa orri hauetan baina erdal liburu bat komentatu nahi dut, euskal argitaletxe batek kaleratua. Liburudendetan omen da dagoeneko, lerrook idaztean nik oraindik eskuratu ez badut ere, Eugenio Ibarzabalek Jose Maria Setien gotzainarekin egindako elkarrizketa mamitsua. Bere esanei egin nahi diegun edo ez diegun kasua alde batera utzita, Setienek kategoria intelektual handia du nire ustez, kritikatu ohi dutenek baino askoz handiagoa, eta bere adierazpenek beti izaten dute interesa. Oraingo honetan gehiago, seguru asko, ez baitzaio alferrik egokitu aurrean Ibarzabal bezalako kazetari txorrotxa.

Gogoan izango du beharbada irakurleak, Ibarzabalek berak orain dela urte dezente (17? 18?) Koldo Mitxelenarekin egindako elkarrizketa-liburu eder hura. Niri beti gustatu izan zaizkit era honetako liburuak: historiazkoetan jasotzerik ez dagoen hainbat alderdi eta mila xehetasun jasotzen dira; ahoz ahoko kultur transmisioak pott egiten duen gure herrian irakurgai polita ezezik tresna baliagarria dira genero honetako lanak oroimen historikoari eusteko, inor gutxik baitu aukera ordutan ihar-duteko Mitxelenarekin edo Setienekin. Edo Atxagarekin, Txillardegirekin, Joxe Azurmendirekin, Xabier Arzalluzekin...

Ibarzabalek eta Martin Ugaldek egin dituzte horrelakoak gure artean. Erdaraz. Euskaraz, tamalez, bat ere ez. Ni neu, editore naizen aldetik, behin baino gehiagotan saiatu izan naiz halako hitzaspertuetan oinarritutako liburuak prestatzen, baina, bata dela bestea dela, bertan behera utzi behar izan ditut beti. Izango ahal du inork zorte hobea! Eta besterik ezean, segi dezatela Ibarzabal eta Ugaldek urte askoan.□

ELIZAZ KONTU GEHIAGO

Eliza dut berriz ere mintzagai, euskal kulturaren aspaldi ez bezala. Noizbait ere aitortu beharko diegu kulturagile gazteek gu reapaiz, abade, fraile eta bestelako eliztarrei (ez guztiei hala ere) urtetan hizkuntzari nola edo hala eutsi izana, beste gauza asko salatu eta aurpegiatu izan diegun bezala. Ni prest naute aitorpenerako, sinesgabe izan arren —edo agian sinesgabe *izateagatik*, seminariokume asko ez bezala— ez bainaiz antiklerikala. Hizkuntzari bakarrik ez: herriaren erresistentziari ere eutsi zion zenbaitek, oraindik orain Serafin Esnaolak argitara emandako *Clero vasco en la clandestinidad* liburuan ikus daitekeenez.

Markatik fuerakoa behar du Esnaolak, nik ezagutzen ez badut ere. Errezilen jaio, frankismoak zigortutako familia batean, Ormaiztegin hazi eta Trintxerpen jarri zuten apaiz: Pasaian dagoen Galiziako bosgarren probintzian. Han era guztietako lanak egin zituen, bai parrokian, bai euskal apaizen erresistentziamantolaketan. Ezkutuko lan honengatik agintariak herritik bidali zutenean, pentsa nolako harremanak lortu zituen bertakoekin, ordezeko iritsitako apaiz gizajoa putzura bota nahi izan zuten eliztar galizianoek.

Nemesio Etxaniz zena ekarri dit niri gogora. Hura ere borrokalari nekaezina, erregimenari handik edo hemendik zirika beti. Denbora asko ez dela, Etxanizen lan argitaragabe bi plazaratu ziren Iñaki Seguro laren edizio bikainean: batetik nobela autobiografiko antzekoa, bizi zelarik ateratzen ausartu ez zena, eta bestetik gobernadore zibilari idazten zizkion gutun suharrak. Liburuak ez zuen merezi adinako oihartzunik izan. Hobe izan dezala Serafin Esnaolarenak. □

NOBEDADEEN ZAIN

Literaturazko emaitza berrien zain gaudenok umezurtz segitzen dugu oraindik ere, urteko lehenengo hilabeteetan lehortea izaten baitugu urtero, Durangoko jasaren ajea baretzeko edo. Hala ere, irakurleak hau jasotzen duenerako kalean izango

dira Liburuaren Eguna dela eta agindu zaizkigun nobedadeak (bide batez esanda, ospatu behar al genuke Cervantesen urteurrenarekin Espainian eta Hego Euskal Herrian antolatzen den liburu-egun hau? Ezinbestekoa bada, eta baldin eta hau ez bada Espainia, katalanen Sant Jordi ren edo egun berekoa den Shakespeare ren ohoretan ospatzea hobea). Eskura izango ditugu, besteak beste, Pako Aristiren ipuin-bilduma, Harkaitz Canoren lehen poema-liburua, Patxi Ezkiagarena, Anjel Lertxundiren eleberri irrikatua... Hurrengoan izango dugu zer komentatua. □

IKUSKIZUNAK

BEGOÑA DEL TESO

SCHINDLER'S BELLE EPOQUE

Martxoan izaten dira beti. Martxoan banatzen dira Oskarrak. Denok kontu hori ezer gutxi interesatzen zaigula diogun arren, ia denok ibiltzen gara apustu, dema eta kinieletan. Egia esan, iaz gertatutakoa kontuan izanik, nork ez lioke instant batez itxaropenari, ametsari helduko? 1993an denetan arriskutsuena zen «El silencio de los corderos»ek bost sari nagusiak eskuratu zituen zinezko lehian. Halere, gauza jakina da hura bezalako ezusteak ez direla maiz errepikatzen.

Esperantzak esperantza, soso xamar ekin zioten aurten Oskarretako finalistek norgehiagokari. Hasiera-hasieratik bage nekien Spielbergen garaia iritsia zela. Justu haurtzaro eta gaztaroaren atrebentziak galdu zituelarik egin beharko dio txalo Hollywoodek. Errefus, muzin eta burlaz erabili izan dute Akademikideek ETren lagun mina eta Indiana Jonesen kidea zen bitartean. Egun, bizarra urdina duela, zine tristea goibel dabilen horretan, jainko eta « in primus pare »tzat hartu dute.

Ez , ez zegoen zertan kili-kili ibili aurten. «La lista de Schindler» nola edo hala irabazle aterako zela inork ez zuen dudatan jartzen. Aipatzea merezi zuen kontu bakarra «El Piano»k zenbat garaikur kenduko liokeen asmatzea zen. Galtzaileak kontsolatzea ere ez zen eginkizun makala. «En el nombre del padre» filmeak beldurtu omen du gero eta zaharragoa, gero eta zimelduagoa den Hollywoodeko jendilaje dotorea. Iraganeko sarraskiak bide ditu gogokoago egungo bidegabekeriak baino. Esku hutsik itzuli zen Irlandara lan mardul eta heldu hori Martin Scorseseren konpainia tristatuan. Hiru arlo txikitan bakarrik izendatu zuten konpetidore ederretan prestuena den berak sinaturiko «La edad de la inocencia». Aldamenean, galbide oho-retsu horretan, Robert Altman eta «Short Cuts» pozoinenez beterikoa.

«Schindler's list»ek 7 Oskar bereganatu zituela esan beharrekoa ez den kontua da. Zergatik jaso zituen azaltzea erraza bezain ezinezkoa gerta dakiguke. Spielbergen azkena ez da filme onegia. Ausardi piskatxo batez, kasik ona ere ez dela esaten ausartuko nintzateke. *Holocausto* delakoa hobeki, krundelkiago eta zeluloide hobeagoaz erakutsi izan digutenak izan badira. Eta izango dira. Itxoin ezazue «Shoah» izeneko saio eder eta garbia noiz estreinatuko. Mintzatuko gara gero luze eta patxaroso.

Stevenen irudizko puska handitzar hori ñabardura gutxiko ahalegina dugu. Tonu eta doinu bakarrekoa. Pertsona kontuetan ere ez dabil fin dinosaurioak berpiztu zituen hori. Badakigu, berak hamaika alditxo esanda, Schindler ganorabakoa 1.200 judutar horiek salbatzera zerk bultzatu zuen inoiz ez dugula jakingo. Baina hori tamaina eskaseko aitzakia dugu. Inolako nortasunik , ez txarrerako, ez onerako, duen gizon horrek sekula ez baitu ez gorputzik ez arimarik lortzen gure begi aurrean.

Judutarren kasuan ere berriro egiten digu huts Spielbergekin. Urtetan zehar ikusi izan ohi dugun irudi indargabeakoari eusten dio. Bildotsak dira. Bildots herabe eta bigunak. Amore emango ez duten bakarreko batzuk ziztu batean ezabatzen dira pantailatik. Lastozko gizontxo txolinak besterik ez.... Lastima. Erresistentzia judua omentzeko beta ezin hobea galdu du behin baino gehiagotan gure bihotzak estutu dituen horrek. Nazien erretratua ere karikatura gogaikarria baino ez da. Gerrako tebeoetan agertzen direnetik ez da gehiegi apartatzen. Viscontik askoz hobeto ezagutzen zituen. Eta Resnaisek. Baita Fasbinderrek ere

Stevenen intentzio eta asmoak gaiztoak direla esango nuke inkluso. Hizkuntzen erabilpena, kasu, maltzurra da arras. Mintzatuko dira biktimak eta Oskar Schindler jauna ingelesez. Berba egingo dute borroroek alemanieraz.

Behin eta berriz idatzi dute «Schindlerren zerrenda» Spielbergengandik heldutasunaren froga zela. Justu kontrakoa uste dut nik. Spielberg bizargabea da oraindino. Umekieretan dihardu. Umekeri serioagoetan, hori bai. Eta tolesgabeko umetxo horri eman dizkiote 7 Oskar. Sakontasunik ez duen horri, izan ere, eman dizkiote. Gurasoekin hartu-eman onetan izategatik egindako lan herrena dela-eta. Eta niri Spielberg esaneko hori ez zait interesatzen. Nik ETren laguna nuen maite. Inozo eta ameslari hura. Ametsetako hegoak moztu dizkiote baina, eta zine «sakona»renak txertatu. Jada Spielberg hori ez da nire kidea. □

GORA ESPAINIA ERREPUBLIKANOA

Gezurrezko seriotasuna goraiatu bazuten «La lista de Schindler»en kasuan, alaitasun berdare saritu zuten «Belle Epoque» ri Oskarra eskainiz. Benetan dizuet, nire ustez, «Adiós a mi concubina» eta «El olor de la papaya verde» Truebarena baino pelikulagoak ziren. Handiagoak. Mamitsuagoak. Baina ez dio inportarik, lan barretsu horri darion alaitasun errepublikanoak engainatu du Akademia. Asko eta asko Espainian esperantza ero bat zegoeneko hartan murgildu dira algaraka. Komedia distiragarri azeriak irabazi zuen. Bihoakio musu gorri, hori eta more kolorekoa. □

MAITE, MAITE, MAITIA...

Apirilak 5 egun zituelarik, Juanma Bajo Ulloak bideoklip baten filmaketan ziharden bitartean, Enrique Urbizu Madriden jo ta ke, jo ta fuego zebilen une berean, Carlos Zabala eta Eneko Olasagasti teatrero eta telegile finek «Maite» izeneko luzemetraje bati ekin zioten Donostiako Gaztelubide sozietatean. Kubarekiko ekoizpen honetan, angulak eta Cohibas zigarroak dira benetako protagonistak. Azpinegozio erdi zikin, erdi koi-petsu, erdi ketsuetan ibiliko zaizkigu Jose Ramon Soroz, Agustín Arrazola, Mikel Garmendia eta La Habanatik etorritako Carlos Acosta. Angel Amigo eta Euskal Media tarte direlarik, urria arte ihardungo dute zeluloidean bilduta euskaldunak eta Caribeko semeek. Azken hauen esanetan, «oso filme kubatarra, sakonean kubatarra dugu».

Solasaldi guztietan izenburu bat agertu zen denon ahotan: «Fresa y chocolate» ezinbestekoarena. Acostak baieztatu zigun guk Berlinen somatu genuena: «Hemendik aurrera, Cubako istorio intimoan izango da mugarri bat, Alearen pelikula, hain zuzen ere. Miamin ere izan da ikusgai eta azken planoko besarkadak dardaraz jarri zituen bertakoak». «Maite»k ez du, seguru-erik, horrenbesteko eragina izango baina bizi gaitezen komedia bihurri baten grinaz eta desioan. □

GAZTEAK ETA TELEBISIOA: ADISKIDETASUN SANOA

Joseba Agirretxearen ETBko «Txuribeltz»ean ihardun genuen lagun batzuk telebisioak haur eta gazteengan duen islada. Plazaratu zen eztabaidarako puntu arriskutsua hauxe izan zen: Beharrezkoa, komenigarria sikiera al litzateke nolabaiteko kontrola ezartzea umeak telebisiotik babesteko?

Bazeuden, jakina, horren alde gogor aritu zirenak. Horiek, egongo gurasoengandik at zen kontrol bat eskatzen zuten. Zentsura hitza ez zuten erabiltzen, jakina, hitz zakarra baita, baina ekoizpenak erosi edo sortzeko unean kode deontologikoa exigitzen zieten telebisioei.

Nire aburuan, eskakizun horren azpian ala atzean haurren ezagupenik eza datza. Gaurko gaztetxoak gu baino sanoagoak dira. Gu baino listoagoak. Gu baino osasuntsuagoak. Umore finoagoa darabilte. Guk urteetan barrena pilatu ditugun traumak izango dituztela uste dugu oker. Trauma, beldur nahiz betegabeko ametsak pasa nahi dizkiegu. Sexua zen etsaia duela zenbaitu hamarkada. Indarkeria da orain aurkaria. Baina gure neurbideak ez dira haienak. Jende gazteak ederki daki Rambo bat bilakatzeak inora ez daramala. Umeek ondotoxo bereizten dute zeluloidearen gezur gozo edo gazia errealtateko egia mingarritik. Nik konfiantza osoa dut biharko gazteriarengan. Berariekin hitz egingo nuke sexuaz, bortxakeriaz ala arrazakeriaz. .Telebista, oster, ez nieke sekula itzaliko.□

TEATRORA BUELTATUKO GARA INOIZ?

Ez dabil osasun onez euskal antzerkia. Bai, «ekin eta jarrai» leloari atxekiko litzaioke gogo onez, baina diru eta inspirazio-iturriak lehor samar dirudite.

Egiten diren saioak argalak dira, mehe-meheak. Gero eta jende gutxiago tauletan. Gero eta minutu gutxiago jendaurrean. Gero eta emanaldi urriago. Aretoak ere, gero eta ttipiangoak. Eta fanfarroi eta faraoniko jaio zirenak, lozorroan.

Horratio, txalogarria da Errenteriko Trapu Zaharra taldeak aurrrera atera duen enbido-erronka. «Tarde de sábado» du izena eta pixkatxo bat zainduz gero, minik gabe konponduko diren akatsez dago hornitua. Halere, imajinazio mugaezinak eragindako hutsuneak dira eta ez prezeski, beldurrak, ezinak, ala alferkeriak sortuak. Bideoa, antzerkia, telebista eta zinema nahasten dituzte trapu-saltzaile hauek. Ero moduan darabilte ikuslea eta ahoa bete hortz uzten dituzte kritikariak. Argien kontua mimoz moldatu behar dute eta erritmoa estuago lotu baina, txalo-pin-txalo, ausart horiei. Pixkatxo bat garbitu, txukundu edo laztanduz gero, berariek dira basamortu honetan bizirik iraungo duten bakarrak.

Porzieto, «Kakatua berdea»ren paseoa bukatu da. Sekulakoak idatzi eta esan ditugu kontra eta alde, baina kontu bat darabilkit buruan dantzan: herria, ustezko ikusleak enteratu ote dira? Takilatik pasa behar zuten horiek pasa al dira ala, betiko moduan, mundu honetan erdi bizirik erdi hilik gabil-tzanok izan gara testigu, kulpante, defendatzaile eta salatari bakarrak? Pentsatzekoa da. Eta dardaraz hasteko modukoa izan daiteke erantzuna. □

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

HIZKUNTZEN HIERARKIA ETA TOUBON LEGEA

Soziolinguistikaren planteamendu tradizionaletan, estatuetako egoerak azaltzerakoan, hizkuntza menperatzailez eta menperatuez hitz egin izan da, bi multzo nagusi osatuz: estatuen hizkuntza nagusia (lauzpabost salbuespen alde batera utzita) eta bere menpeko hizkuntza zapalduak.

Nazioarteko ordenamendu berriak batetik eta iraultza teknologikoak bestetik, ordea, eskema hau irauli eta konplexuago bihurtu dute.

Esango genuke ingelesa gailurrean ipini dela, eta hortik beherako hizkuntzak, hierarkiaren maila desberdinetan kokatzen direla, baina beti ere ingelesa hizkuntza menperatzaitzat harturik.

Egoera honek euskarari eta beste hizkuntza gutxiengotu guztiei, bide berriak zabal diezazkieke, orain artean beraiek plazaratu izan dituzten eskaera eta errebindikazioak, oso modu beretsuan erabiltzen hasi direlako hizkuntza boteretsuak.

Guzti horren eraginez, kurioso egiten da, frantsesaren eta gaztelaniaren defendatzaileak ingelesarekiko, euskaltzaleok erdarekiko erabili ohi ditugun arrazoi beretsuak erabiltzen ikustea: heriotza-arriskua, hizkuntzaren degradazioa, modernizaziorako bideak, nazioarteko presentzia, etab.

Toubon Legea egoera berri honen emaitza besterik ez da. Frantsesaren defentsa «ingeles kolonialismoaren» aurka edo Legegaiak berak dioen bezala «frantsesa ingelesaren zabal-kundearen aurrean babestea».

Komunikabide espainiarrek azken bolada honetan bultzatu dituzten hainbat afera (Kataluniako inmertsio-programaren aurkako kanpaina, esate baterako), eta han-hemenka hainbat aldizkari eta egunkaritan argitaratzen hasi diren artikuluak irakurrita, gaztelaniaren alde eta euskara, katalan eta galizieraren normalizazioaren aurka, Espainiako sektore atzerakoienek prestatutako kanpaina gogor baten atarian egon gaitzkeela pentsa daiteke.□

HITZARMEN BATEN INGURUAN

Kultura Sailaren eta AEKren artean sinatutako hitzarmenak urtetan itxita egon den itxaropenezko ate bat zabaldu die administrazioaren eta herri-mugimenduaren arteko harremanbi-deei.

Historiak garbi erakutsi digu euskaltzeon arteko borroak, eta erakundeen eta herri-mugimenduen arteko liskar-giroak hizkuntzaren normalizazio-prozesua galgatu besterik ez duela egin.

Eta hori inon nabaria izan baldin bada, Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen esparruan izan da.

Hitzarmena sinatu den aldi berean, ordea, HABEko lau Euskaltegiak itxi egin dituzte. Bateko poza, besteko kezka bihurtu da euskaltzeon artean.

Zalantzarik gabe, aldagai asko nahastu eta tartekatu dira, egoera edo «eszenategi» (modako terminologia erabiltzearen) berri honetara iritsi ahal izateko.

Alderdi sozialistaren estrategi aldaketak eragin zuzena izan du guzti honetan. Izan ere, orain arte erabat jeltzaleena izan den euskalgintzaren esparru instituzionalean sartzeko erabakia hartu zutenetik, pieza asko mugitu dira, oso geldirik zegoen xake-taula horretan.

Erabakiotan arrazoi politikoak pisu handikoak gertatu dira, kalera begira arrazoi ekonomikoak erabili diren arren.

Orokorrean gainera, ez dirudi mozketa guzti horiek bideratzerakoan, ibilitako bidearen balantzeak oinarri modura erabili direnik edo orain arte jorratutako sail eta egitasmo desberdinek zer emaitza eman duten aztertu denik.

Helduen Alfabetatze-Euskalduntze alorrean diharduten erakunde desberdinetan egoera aldatu beharraz aspaldian jabetu baldin baziren ere, gatazka-giro horrek eztabaida sakon eta argia bideratu ahal izatea eragotzi egin du.

Eta nik uste, denok somatzen dugula azken hamarkada honetako benetako balantzea egingo bagenu, lortutako emaitzak, ezarritako helburuetatik oso urrun geratuko lirartekeela.

Horregatik, euskalduntzean diru gehiegi gastatzen ari dela dioen diskurtso demagogikoak (azken batean UAkoek oso gordin bota zuten: krisi-garai hauetan, lujo ikaragarria da euskalduntze-prozesuan gastatzen ari garena, «herritarren bizi-

moduaren kalitatean euskarak ez baitu lehentasunezko lekurik»; lehentasunak beste nonbait leudeke horientzat) ahalik eta babes sozial gutxiena lor dezan, ezinbestekoa izango litzaiteke, esparru honen barne-eraberritze sakon bati ekitea.

Eraberritze horri baldintza egokitan ekiteko ordea, sektorean zerikusia duten eta izan duten eragile guztien arteko hausnarketa-fase sakon bati ekin beharko litzaioke, eta emaitzak ahalik eta kontsentsurik handienez hartu.

Hori lortu ezean, Helduen Euskalduntze-Alfabetatzearen esparrua goitik behera eror daiteke (arrisku hau adierazten duten indikatzaileak azaltzen hasi dira) eta berarekin batera, euskalduntze-prozesu osoarekiko zalantza soziala sortu.□

EUSKARA ETA EKONOMIA

Gure inguruan, euskara «kultura», «altxorra», «nortasuna» eta antzeko kontzeptuekin lotu ohi dugu. Oso bakanak dira ordea, hizkuntzaren normalizazio-prozesuaren ondorio ekonomikoetako buruzko erreflexioak (prozesuaren garestitasuna azpimarratzen dutenak ez badira).

Horregatik iruditu zaizkit horren interesgarriak Toni Mollàk, «La utopia necessarià» liburuan agertzen dituen oinarrizko bi ideia:

- Hizkuntza da muga, kontrol-mekanismoa eta ondorioz, barne-merkatuaren faktore babeslea. Hizkuntz normalizazioa benetazkoa izango da, gizartearen ekoizpen, banaketa eta kontsumo-prozesuetan balio diskriminatzailea lortuko duenean.
- Bertako kultur industriaren garapena sahiestezinezko beharra da, ez bakarrik herria egituratzeko; baita erakunde-sistema propioa kontsolidatzeko ere.

Kultur industrietan orokorrean, eta ikus-entzunezkoek bati-
pat, hurrengo hamarkadetako industri esparruan leku garrantzitsua hartuko dutela aurrerik daiteke.

Kultur industria horiek euskaraz garatzeak, barne-merkatua sendotzea eta beraz, kanpo-produktuen kontsumoa murriztea ekarriko luke, ikuspegi ekonomiko hutsetik begiratuta.

Testuinguru honetan, euskarazko komunikazio-esparrua sortzea, hizkuntzaren normalizaziorako eta gure herriaren barne-garapenerako ezinbesteko oinarritzat jo genezake.

Esparru horren eraiketa bestalde, gure kultur ekoizpenaren kanpo-esportaziorako bideak eta kanalak zabalduz osatu beharko da.

Etorkizunean euskal kulturari planteatuko zaizkion erro n-kak handiak eta zabalak izango dira, kultur industriak eta ekoizpenak, multinazionalen esku geratzen ari diren garai hauetan.

Bide berriak jorratzeko orduan ordea, ez gara hutsetik abiatzen. Hain zuzen ere, Asisko Urmeneta, Bernardo Atxaga edo Negu Gorriak taldeak lortutakoa, besteak beste, ez da hutsaren hurrengoa: euskarazko kultur ekoizpenaren 3 alor desberdinetan Euskal Herri barneko zabalpena, atzerrira iritsi ahal izateko bideekin uztartu baitute.□

MUSIKAREN ERAGINA

Eta European zehar milaka gaztek abestien euskarazko letrak buruz jakitea lortu duten Negu Gorriak aipatu ditugunez (duela gutxi Valenciako institutu bateko irakasle batek esaten zidan, bere ikasleek nagusiki euskaraz kantatzen zutela NG-koei esker), azpimarratzekoa dela uste dut euskaraz kantatzen duten taldeen kontzertuek azken urteotan ezagutu duten gorakada.

Izan ere, euskarazko kontzertuen gorakada etengabea izan baita azken urteotan eta Euskal Herriko herrialde guztietan modu beretsuan gertatu baita.

Gaur egungo gizartean musikak duen garrantzi soziala kontuan izanik, gazteen artean euskararen erabilpena bultzatzeko

era daitezkeen egitasmoen artean, leku berezia eman beharko litzaioke bai Udaletatik, bai Euskara Taldeetatik, euskarazko musikaren sustapenari: kontzertuak, maketak, etab.

Azken urteotako emankizunen puntu ezkorra bestalde, gure «betiko» kantariei dagokie: publiko «zaharra» gero eta gutxiago doa kontzertuetara eta antolaketa-gastuak zeintzuk diren ikusita, gero eta gutxiago dira «dirua galtzera» arriskatzen diren antolatzaileak.

Eta musikarekin zerikusia duen azken printza bat: ohartu al zarete, asteburuetan herri euskaldun samarretan ere, bete ohi diren pub-etan ez dela dagoeneko euskal musikarik entzuten?.

Gaia aipatu izan den kasuetan erantzuna beti bera izan da: giro horrekin bat datorren euskal musikarik ez omen dago eta euskal musika ez omen dator bat giro horrekin.

Euskararen marka itsusi egiten zaie establezimendu-mota honetako jabeei eta nahiago dute bestelako eskaintza egitea, euskal musika jartzen duten lekuak «betikoentzako» geratzen direlarik.

Handik edo hemendik, hautsi beharreko beste «muga» bat dugu hau.□